


HERNANI 2003



AURKIBIDEA / INDICE

■ ALKATEAREN AGURRA - SALUDO DE LA ALCALDESA	4. or.
■ JOSE ANTONIO INSAUSTI "TXOBITO"REN ONDOAN GERTATUTAKOAK Garbiñe Tijero Azkue	6. or.
■ HERNANI FUE NOTICIA - HERNANI ALBISTE IZAN ZEN	19. or.
■ ELTZEKONDO: ETORRI HANDIKO INDARTSUA Jon Odriozola Amigorena	23. or.
■ VI. BERTSO PAPER LEHIAKETA "JOXE LEGARRETA" SARIA 1997	30. or.
■ FERNANDO LOPEZ DE ZUBIRIA Iban Oiartzabal Arraras	32. or.
■ JUAN ANTONIO ERDOZIA "PATAS" KURANDEROA Jexus Mari Irazu Muñoa	37. or.
■ HERNANI, PIONERO EN LA CREACIÓN DE SERVICIOS DE ENSILADO DE HIERBA MUNICIPALES Juan Cruz Alberdi Collantes	42. or.
■ HANDIK ETA HEMENDIK Udal Artxiboa	54. or.
■ JOSTUNAK ETA JOSTUNDEGIAK HERNANIN Eulali Aranburu Urkizu	56. or.
■ OIALUME DANTZALEKUAK 60 URTE BETE DITU GORPUTZAK MUGIARAZTEN Iñigo Goñi Iradi	64. or.
■ ETXEBERRIKO LAGUN-ARTEA, 25. URTEURRENA Javier Arraztio - Emiliano Rama - Dionisio Telleria	68. or.
■ JAIONE TEJEDOR Lore Unanue Azpiazu	75. or.
■ VISIÓN ARTÍSTICA DE HERNANI - EL LAVADERO DE HERNANI EN LA PINTURA: REGOYOS, ARCOS Y AGUERREGARAY Mikel Lertxundi Galiana	84. or
■ HERNANIKO PRINTZAK. HUMILDEGIKO GURUTZEAGA - CRUCERO DEL HUMILLADERO Andoni Unanue Lekuona	87. or
■ LARRAMENDI HERNNIKO, KARDABERAZ HERNANIARRAREN MAISU Enrike Larrarte Arregi	88. or.
■ BURUTU EZ ZIREN PROIEKTUAK. ANTEPROYECTO DE CEMENTERIO EN HERNANI Udal Artxiboa	98. or.
■ HERNANI CONVIVE CON LAS INUNDACIONES José Mari Martínez Mata	102. or.
■ HERNANIKO BASERRIEN EGOERA AZPIEGITUREI DAGOKIENEZ Ainhoa Amundarain Mendizabal	110. or.
■ MINAS DE ETXOLABERRI Jon Estonba Pérez (Felix Ugarte Elkartea)	117. or.
■ ATZO ... GAUR. PLAZA BERRIA	124. or.
■ 1936KO GERRA HERNANIN Urko Apaolaza Ávila	128. or.
■ HERNANIKO MUSIKA ESKOLA - LA MÚSICA COMO VOCACIÓN (IV y FINAL) Zipi Otxandorena Noble	137. or.
■ OLATZ ZUGASTI "ELEAREN LAINOA" BERE HIRUGARREN LANA PLAZARATU DU Arantzazu Zugasti Arizmendi	147. or.
■ EFEMÉRIDES 2002KO EFEMERIDEAK	153. or.
■ HERNANIKO HERRIARI BURUZKO ARGITALPENAK (JARRAIOPENA) PUBLICACIONES RELACIONADAS CON HERNANI (CONTINUACIÓN)	169. or.

ALKATEAREN AGURRA


HERNANIAK MAITEOK

Aurreko urtekariekin bezala, eskuetan dugun honek harritu egin gaitu. Iraganari buruz den-dena kontatua dagoela badirudi ere, hainbat istorio berri sortzen zaigu, gure herriko oroimen berri, hondorik gabeko kutxa bat izango balitz bezala. Gure herriaren bizitasunaz harro sentitu behar dugu eta.

Baina istorioak ez dira bakarrik sortzen eta idazten. Argitaratutako lan bakoitzaren atzetik aldizkari hau egiteko pertsona askoren ahalegin desinteresatuak daude. Gure eskerrona zor diegu.

Ziur naiz irakurleen harrera beroa izango dela haientzat ordainik onena, eta denok geure komunitatearen kemenaz harro senti gaitezen.

Horrela bada, goza dezagun aldizkariaren irakurketaz.



Mertxe Etxeberria Aranburu

ALKATEA

SALUDO DE LA ALCALDESA


QUERIDOS Y QUERIDAS HERNANIARRAS

Como anteriores anuarios, este que tenemos en nuestras manos vuelve a sorprendernos. Cuando parece que del pasado está ya todo contado, surgen nuevas historias, nuevos recuerdos de nuestro Hernani, como si de un cajón sin fondo se tratara. Y es que hemos de felicitarnos por el dinamismo de esta comunidad nuestra.

Pero las historias no se escriben solas. Detrás de todos y cada uno de los trabajos publicados, está el esfuerzo desinteresado de personas que han dedicado mucho de su tiempo al empeño de hacer posible esta revista. Desde aquí les mostramos nuestra gratitud.

Estoy segura de que el interés con que acogerán los lectores esta publicación, servirá de acicate a los autores y dará continuidad a su empeño.

Disfrutemos pues de su lectura.



Mertxe Etxeberria Aranburu
ALCALDESA



JOSE ANTONIO INSAUSTI “TXOBITO”REN ONDOAN GERTATUTAKOAK

Garbiñe Tijero Azkue

Antonio Insausti “Txobito” txistularia 2002. urteko apirilaren 24an hil zen, 54 urte zituela. Lur emateko unean han izan ginen adiskide franko, Hernani eta inguruko txistulariak barne, beren doinuak joaz, familiari laguntzen eta Txobitorri azken agurra ematen. Haren omenezko hileta elizkizunaren amaieran, berak agindu bezala, une hura iristean jo behar genuen pieza txistuarekin eta bi tronpetaz lagundurik joaz agurtu genuen, hunkiturik.

1965ean, Hernanin Luistarrek antolatutako Club Adarra dantza taldean dantzari gisa

aritzen zen Txobito, Patxi Apezetxearekin batera.

Taldeak txistularirik ez zeukanez, Donostiatik ekarri behar izaten zuten. Egoera hori aldatzeko, zenbait dantzariak “ofizioa” aldatzeko erabakia hartu zuten. Harrezkero, Txobito eta Patxi Apezetxea taldeko txistulariak izango ziren, eta Joakin Apezetxea atabalaria.

Txobito 1965ean, hamazortzi urte zituela, hasi zen txistua jotzen. Xabier Zugasti herriko txistulariengandik hartu zituen lehenengo irakaspenak, eta, ondoren, Javier Hernandez Arsuaga txistulariarekin aritu zen.

Hernaniko herria une latza ari zen pasatzen txistu kontuetan. Igandero Tilosetara dantzara jende multzo bat etortzen zen kanpotik, eta txistulariak oihuka eta txistuka hartzen zituzten, kioskora bere emanaldia eskaintzea igotzen zirenean. Udaletxeko txistulari ofizialek, Antsorena-Ugaldetarrek, dimititu egin zuten 1965eko martxoaren 23an, eta herria txistularirik gabe gelditu zen.

Txistulari hirukote berria gordin zegoen oraindik, hiru hilabete besterik ez zeramatzaten dimisioa gertatu zenean. Bitarte horretan, hutsunea betetzeko Andoain, Errerteria, Trintxerpe eta Intxaurrendoko txistulariak aritu ziren

1966ko Urteberri Egunean hasi zen igande eta jai egunetako goizeko diana eta arratsaldeko dantza saioa eskaintzen aipatutako hirukote berri hura.

Tilosetan igandetan Musika Bandaren atsedenaldieta jotzen zen txistua. Errromeriako doinuak jotzen zituzten; hau da, orrieko edo fandangoa, arin-arinak, biribilketa edo kalejirak, eta mutil-dantza.

Talde berria Tilosetan jotzen hasi zenean ere sekulako iskanbilak gertatzen ziren oraindik: txistulariak txistu-oihuka hartzen zituzten, harrika herriko gazteekin borrokan aritzen zen gazte taldea baitzebilen oraindik; baina hernaniarrek ederki defenditzen zuten Hernaniko txistulari gazte talde berria. Arazo horiek ere amaitu ziren noizbait, eta orduantxe giro zoragarria sortzen hasi zen herrian herri-dantzen inguruan.

Txobito mutil-dantzaren defendatzaile amorratua izan zen. Hernaniarrek asko estimatzen zuten mutil-dantza. Jai egunetako arratsaldeetan bandak bere saioa amaitu ondoren, txistulariek frontoian ordu erdiko saioa egiten zuten, baina mutil-dantza jotzen



Joaquín Apezetxea, José Antonio Insausti eta Patxi Apezetxea dantzariekin. 1966

hasten zirenean jendetza ugari biltzen zen dantzara, eta Plazatik Plaza berriaraino eta berriz gora joanez, luzatu egiten zen saioa.

Garai hartan txistua gainbehera zihoan. Udaletxeari esker, Musika Akademian txistua jotzen erakusteko Txobito hartu zuten. Juan Jose Iruretagoiena "Jauna" maisua hasten zen umeei solfeo ikasketak erakussten. Txistua jotzeko oinarriak eta txistua maiatzen erakutsi ondoren, Txobitorenengana bidaltzen zituen umeak, harekin txistulari taldean jo ahal izateko.

Hainbat gazte ibiltzen zen horretan, eta taldeko dezente sortu izan zen Hernanin. Garrantzi handiko taldeak izan ziren. Hala nola, Urnieta, Martutene, Egia eta Aieteko festetan jotzen joaten zirelarik.

Lehenengo talde horietako partaide izan ziren Landazuri (atabalaria), Jon Larrañaga, Junkal Larrañaga, Milagros Bergara, Dioni Loiarte (atabalaria), Rosa Jesus Oruezabala, Koro Zabaleta, Arantxa Ganzarain, Ana eta Maria Puy San Sebastian, Ina Idarreta, Mendiolatarrak, Karmele Bilbao, Karmele Mujika, Maria Rosario Irazustabarrena, Esteban eta Eulali Etxeberria... Talde hark igandeko kale jiraren

ondoren Joxe Mari tabernan gaseosa har-
tzeko ohitura izaten zuen. Ondoren, beste
talde bat sortzen joan ziren Bingen Zupi-
ria, Josexo Lizarreta, Xabier, Idoia eta Jon
Karrera, Jesus Mari Gutierrez, Garbiñe
Altuna, Birjinia Larrea, Maria Jesus Larra-
ñaga, Mari Carmen Lopez, Iraola, Mikel
Zilbeti, Azurmendi "Atxur", Ramon Iriarte,
Joseba Andoni Laburu "Putre", Mirari
Otxandorena, Garbiñe Tijero, Arantzazu
Zugasti... Harrezkero, Hernanin txistulari
talde handia egon izan da beti. Haien
ondotik, gaur egungo txistulari banda
arduratu zen igandeko kalejiraz, Sanjoanez
etab., eta gaztetxo taldea, berriz, herriko
auzoetako festetan jotzeaz. Hala ere Txo-
bito talde guztietako partaide izaten zen.
Oso festa zalea baitzen bera, festetan
txistua jotzea atsegin zuen batez ere, jen-
dea alaitza.

Dioni Loiartek birikeri latza hartu zuenean
(1970eko abenduan), taldea atabalaririk
gabe geratu zen. Txobito, beraz, Dionirekin
atabala ikasten ere hasi zen; kalejira amaitu-

takoan joaten zen haren etxera. Geroago,
1971ko urtarrilean, gaixotasuna luze zihola
ikusita, Joseba San Sebastian "Donosti" ere
Txobitorekin eta Jon Larrañagarekin batera
joaten hasi zen. "Donosti"k Txobitoren esku-
tik ikasi zuen danborra jotzen, paperik gabe,
belarritz; kalejirarako **TAKATATRAAA TAKATATRAAA**
TAKATA TAKATA TAKATATRAAA hotsak erabiltzen
zituen Txobitok irakasten ari zen bitartean.
Donostik pasadizo ugari bizi izan zuen Txo-
bitoren ondoan orduz geroztik.

Txobito 20-30 gaztetxoren txistu gidaria izan
zen. 1967tik 1985era arte aritu zen, gaur
egungo Musika Eskola sortu arte. Milagros
Bergarak laguntzen zion irakasle lanetan.

Nik zortzi urte nituela ezagutu nuen Txobito.
Juan Jose Iruretagoiena "Jauna"rekin, solfe-
oa eta txistua jotzen ikasi, eta Txobitorengana
bidali ninduen, taldeko partaide izan nen-
din. Lehen aipatutako bigarren talde
handiko partaide izan nintzen. Talde harta-
ko kideek, hazi ahala, txistua uzten zuten,
baina beti etortzen ziren kimu berriak.

1975.go Santa Ageda bezperan.





1979ko Aberri Eguna.


Joxan Goikoetxea ere hor aritu izan zen Txobitorekin, eskusoinuarekin serioago hasi aurretik, txistulari gisa. Ruth Martin, nire bi ahizpa Olatz eta Edurne, Jabi San Sebastian (atabalaria), Karmele Ugalde, Ana Altuna, Mikel Garayar, Ibon Arregi, Amaia Urnieta, Idoia Tejedor, Eba, Ana eta Marijoxe Igarriz, Santi Uranga, Marijose Etxarri, Garbiñe Plazaola, Maite Gorrotxategi, Patxi Bereziartua, Ana eta Amaia Quevedo,... anaia-arreba ugari. Horiek izango ziren seguruenik Txobitoren azkeneko ikasleak, gaurko Musika Eskola sortu aurreko garai-koak.

Oraingo Txistulari Bandako zortzi partaidetik sei Txobitorekin ibiliak gara. Oroitzapen asko ditugu harekin igarotako garaietakoak.

Udaletxeko arkupe txikian, pilota eta baloi saioak egiten genituen, Txobitoren zain, Udaletxeen zegoen "Akademiara" entsegua egingo igo aurretik. Akademia azkeneko pisuan zegoen; 96 eskailera igo behar ziren.

"Entseguetara joateagatik saria izaten zen: igande goizetako kalejiran jotzea, goizeko 9etan. Ondoren, denok ilusio handiz, Esnal gozotegira, "bonba" edo "pepito" pastela jatera. Jai berezietan, San Juan egunean eta Errege Egunean, bi pastel hartzeko aukera izaten genuen.

"Akademia" ez zen handia horrenbeste umek entseatzeko. Binako edo hirunako taldean banatzen ginen, eta taldetxo bati komuna tokatzen zitzaiion pieza berri bat ikasteko gela. Pieza berria ikasitakoan, denak ilara batean, akademiako egurrezko atril handien atzean jartzen ginen. Lehenda bizi banaka jotzen genuen, sekulako lotsa pasatuta; ongi jotzen zuena han geratuko zen, eta ez zekiena, berriz, komunera, hobeto ikastera. Denek ikasitakoan, talde osoak batera jotzen genuen pieza berria. Pieza buruz ikasi ondoren, akademiako pasilloan ibiltzen ginen jotzen, ilarak-eta errespetatuz, gero kalean joko genuen bezala jarrita.





1971eko irailaren 11ko "La Voz de España" egunkariak kaleratutako argazkian
M^a Rosario Irazustabarrena, Karmele Mujika, Eulali Etxeberria eta Kristina Barrenetxea.

Akademiako atril gehienak Txobitoren eskuetatik paseak izan ziren. Traste handiak ziren, eta hondatzen zirenean Txobitok kontontzen zituen, arotza baitzen.

Garai hartan, hasieran ez zegoen fotokopia-gailurik, eta pieza asko buruz ikasten zituen Txobitok.

Oso belarri onekoa zen. Guri kantatu eta horrela ikasi behar izaten genuen. Piezaren izena ere ahazten zitzzion Txobitorri, eta hainbat doinuk hasiera zuten moduko izenburua izaten zuen; hau da, "**MI MI SOL MI MI**" deitzen zion "Segurako alborada"ri, "**MI SOL SOL**", "Elizondo"ri eta abar. Garin zegoen artxibozain, eta artxiboan multikopista bat bazegonez, partiturak lortzeko modua izaten genuen geroago. Oso dotoreak ziren, paper arrosa kolorean ateratzen baitzizkigun kopiak.

Zortzikoa irakasten zigunean, "puntillo hori ongi markatu, puntilloa, puntilloa" esaten zigun; temoso samar jartzen zen, gaizki egiten genuelakoan.

Hernaniko auzo guztieta jaietan, han egoten zen Txobito bere gaztetxo koadrila-rekin festei hasiera emateko prest beti; festak Floridan maiatz aldean hasi, tartean jau-nartze egunetan ere umeak elizaraino txistularien atzetik eramaten genituen, eta irailean bukatzen ziren, Zikuñagako Amaren egunean.

Karmele Mujikak gogorarazi dit nola 1971. urtean Donostiako Euskal Jaietan egiten zen

txistulari taldeen txapelketarako prestat aritu ziren. Hernanitik joateko bizpahiru talde prestatu zituen Txobitok. Donostiarra iritsi, eta azaldutako txistulari bakarrak hernaniarrak ziren. Orduko kronikak dioenez, kontzertua soilik eman zuten, dantzari-txiki eta abesbatzakin batera.

Oso saio luzeak izaten ziren haiet: Floridan, adibidez, Etxeberriin hasi, Artetxeraino igo, Estaziora eta Txokoraino jaitsi, eta, bukatzeko, Etxeberriko elkarteraino, azkeneko eraikuntzaraino. Han hamaiketako batekin indarberritzen ginen. Portuko jaietan ere sekulako ibilaldia egiten genuen Pipirita, Elizatxo...

Goizueta edo Aranoko festetara joateko, zitroena erabiltzen zuen. Orduan, kabitzen ginen ba denak ba... nola? ala moduz. Goizuetara iritsi eta batek baino gehiagok botaka saioa egin behar izaten zuen txistu lanetan hasi aurretik. Askotan hamaiketakoa izaten genuen ondoren indarrak berritzeko. Hamaiketakorik ez bazegoen, Txobito baziak zera gonbidatzen zuten, zuzendari zelako, eta gaztetxoak, berriz, txorizo ogitartekoa jatera plaza edo frontoira. Ikurrina jartzea oraindik baimendua ez zegoenean, Donostik Goizuetan gertatutako bitxikeria bat kontatzen du: -Abuztuaren 15eko egun hartan, Udaletxetik zintzilik jarri beharreko ikurrina hartu zuen Guardia Zibilak. Korrika eta presaka, herrikoek beste ikurrin bat prestatu ahal izan zuten txistulariak etortzerako. Begiratzen jarri eta Donostik zerbaite arraroa ikusten zuen ikurrin har-

tan; Txobito, berriz, ez zen ohartzen, emozioz gainezka baitzegoen hura ikusita. Zer izango, eta ikurrina kolorez aldatuta zegoen: gorria dena berdez, eta berdez dena gorriaz.

kitzen zigun; geroago, Bakeroren etxeko ganbaran lo egiten genuen. Goizuetako festak eta Aranoko San Roke eguna aste berean izaten ziren. Urte batean, loak harrapatuta, ez nintzen plazara azaldu Ara-



Amaia Urnieta, Garbiñe Tijero, Jabier Narvarte, Txobito eta Javier San Sebastian 1983ko San Roke egunean Aranon barrena.

Urte askoan Goizuetako festetara jotzera joaten segitu nuen, nahiz eta jende askok taldea utzita zeukan. Izan ere, Txobitok Goizuetan lotarako lekuren bat aurkitzen zigun beti, festa guztiak bertan pasatu ahal izateko. Laburu izan zen garaje bat lotarako estreinatu zuen lehena. Guri, ordea, neskak ginelako-edo, etxe bat aur-

nora joateko, baina Txobito nerbioak iota guregana ganbaran azaldu, eta begietako makarrak garbitu gabe eraman ninduen Land Rover batean Aranora. Iritsi ginen, juxtu-juxtu meza garairako. Land Rover berean joan zen Aranora Etxarri Larraulko Xanti txistulari ezindua ere, bere gurpil-aulkian.

Egun osoa Aranon txistua jotzen pasatu, eta, arratsalde partean, Goizuetara berriz. Han ere, pilak oraindik gastatu gabe zituela, herrian buelta bat eman behar izaten genuen.

Gustatzen zitzzion Txobitori etxekoanderei txistu doinuren bat eskaintza. Tabernetako sukaldaraino sartzen zen eta "Aizu Maria, zuretzat pieza bat joko dizugu...." Horretarako gehien gustatzen zitzakion piezak "Aurtxo seaskan", "Pello Joxepe" eta "Maritxu nora zoaz" ziren. Lan horretarako biok geratzen ginen.

Garai horietan, makina bat kilometro eta ordu egiten genituen txistua jotzen, auzo edo herri guztia zeharkatu behar izaten baikenuen. Donostik kontatzen digu behin Aieteko jaietara joan eta han gertatu zena:

- Etxaferularia aurrean zihoa purua erretzen, eta, halako batean, dinbi-danba, etxaferu guztiak batera lehertzen hasi

zirelarik, korrika hasi zirela, erabat izututa.

Santa Ageda bezperan jotzea izugarri maite zuen. Sanjoanetako errondan ere abeslari bezala aritzen zen. Herriko ohiturak mantentzearen aldekoa zen.

Baina ez genuen festetan bakarrik jotzen. Aste Santuko prozesioetan ere han joan behar izaten genuen: serio-serio eta txukun dotore jantzita, eta aurrean udaltzain bat, eskuan "gorra" edo kapela zoramala. Erregeen kabalgatan ere parte hartzen genuen, eta hiru orduz pieza bera jotzen aritu behar baguen ere, ez ginuen aspertzen. Txobitori zurrara berezia pizten zitzion gorputzean. Horrelako ekitaldian ez zen bere ilaran zegokion tokian joaten. Danbolineko ziria hartuta, hor aritzen zitzaigun ilaran gaizki zihuanari bizkarraldean ziztatzen; susto galantak hartzen genituen!.

Galarretako frontoira ere makina bat ilunabarretan joan izen ostegunez, pilota

1985eko San Roque egunean Aranoko ostattu aurrean.



partidak hasi aurretik jendeari txistu doinuz harrera egitera. Finaletan, sari banaketarako ere han jotzen genuen; frontoia zeharkatzen genuen pilotariek osatutako arkupetik. Fron-toian horrenbeste jende ikusita nahiko ner-bioso eta larri egoten zen Txobito.

Urte haietan ekitaldi berezietan ere jo izaten genuen, jendetza ikaragarria biltzen zen eki-taldietan, hala nola Olano eta Santxiz espe-tuetik atera zituztenekoan: Zinkoeneatik Pla-zaraino "Aupa gizona" eta "Kalera kalera" doinuak behin eta berriz gelditu gabe jo genituen. Horien partiturarik ez genuen eza-gutu; Txobitoren buruari eta entzumen bere-ziari esker, ederki baino hobeto ikasi geni-tuen.

Martin Zabaleta 1980. urtean Everestera igo zenean ere sekulako harrera egin zitzzion.

Urte batzuk izan ziren Caja Laboralek txan-goak antolatzen zituenak Errioxara. Irteera horietara lauzpabost txistulari eta Txobito joan ginен hainbat alditan. Miguel Lujanbio laguntzaile lanetan ibiltzen zen gurekin. Goi-zean kalejira jo; bodegatik irienda ere, bazka-laurretik jendea biltzeko txistua jo; bazkalos-tean, postrearekin, txistua jo; eta, amaieran ere, autobus aldera joateko, txistua joz jen-

dea biltzen genuen eta kalejiran saltoka sar-tzen ziren. Egun osoa ematen genuen txistua jotzen. Urte batean Salouraino ere joan ginен hiru egun pasatzera.

Behin Oriora joan ginenean, Txobitori nahigabe txiki bat ere eman genion; gozo denda batean sartu eta zein pastel hartu aukeratzen ari ginela, bat-batean erakusma-haiko kristala mugitu, pastelen gainera erori eta bertan hautsi zen. Juan Joxe Iruretagoie-na ere bertan zen; "Ez arduratu, lasai nik ordainduko dut-eta" esan zuen, baina gorri gorri eginda, eta pasatutako larritasuna ez zuen erraz ahaztu.

Beste batean, Legorretan txistulari bilkura izan zen. Txistulariak binaka banatu gintuz-tzen hainbat etxetara bazkaltzera joateko, eta baten batek beste ezustekoren bat eman zion Txobitori, kopatxoak edanda pixka bat moxkorturik azaldu baitzen.

Gertaera eta xelebrekeria dezente pasatutakoak gara Txobitoren ondoan ...

Txobito festetako txistularia zen. Kontzer-tuetan jotzea ez zuen gehiegi atsegin,



Txobitoren azkeneko San Roke eguna 2001. urtean Ruiztarren etxearen.

nahiago zuen egun osoa txistua jotzen kalean aritu, ordu erdia geldirik arkupetan kontzertua jotzen aritu baino. Argia dantza taldean ere jardun zen urte batzuetan txistulari lanetan.

Berak sortu zuen San Roke egunez Aranora txistua jotzera joateko ohitura, 1970ean.

Urte horretan, Ama Birjin egunean Goizuetan txistua jo ondoren, Aranon azaldu zen Txobito, hainbat txistularirekin, arratsaldea pasatzera. Bertan zen Joxan Ruiz, eta honela esan omen zion: "Txobito bihar San Roke eguna da, eta etorriko ahal hintzateke txistulari taldearekin hori ospatzera?". Txobitok, lotsatuta, "ba ez dakit" esan zion, baina ongi pentsatu eta bota omen zion: "Etorriko gara, baldintza batekin: zuk lau-bost lagunentzako hamaikekoa prestatu". "Bale konforme -erantzun zion Joxan Ruizek-, baina orain horren berri emango duen kalejira eskainiko diguzue". Eta, horrela, Joxan Ruiz gidari zela, txistularien aurretik herriari kalejiran bira eman zioten. Hitzartutakoa beteko ote zen edo ez, hurrengo egunean han azaldu zen Txobito bere txistua eta danbolina hartuta,

eta orduz geroztik Joxan eta Mikel Ruizen familiak ez du hutsik egin urtero hamaike-tako hori prestatzen.

Martxelo Ruizek, aurrekoen aitak, asko gozatzen zuen txistu hotsa entzutean. "Eusko Gudariak" doinua jotseko eskatzen zigun urtero. Berak kontatzen zigun euskaldunentzat doinu hora gudarako deia izaten zela; hau da, "Eusko Gudariak" doinua entzun bezain pronto, gerrara joan behar zutela, gatazka lekura. Asko hunkitzen zen doinu hori entzutean, gogorapen latzak etortzen baitzitzakion burura.

Aranon bazegoen txistulari bat, Jabier Narbarte, baina Bartzelonan bizi zen. 1978. urtean Jabier San Roke eguna ospatzera etorri zen eta han ikusi zuen txistulari taldea kalejiran. Etxera abiatu, txistua hartu eta taldearekin bat eginda pozez zoratzen ibili zen. Jabierrek bazituen Bartzelonan lagun txistulariak ere, eta 1986an Iruñeko Gabriel Huarte Mendikoa etorri zen ere txistua jotzera.

Urte hartan, albiste txar batekin etorri zi-tzaigun Txobito: Goizuetan iskanbilak ger-



1999an San Roke
ermitaren
I Mendeurrena
"ARANO" herriaren
haseran lagun ugari
bildu ziren eguna
ospatzera.

tatu zirela ikurrinagatik eta 25 gazte atxilotu zituztela. Korrika bizian jaitsi nintzen Aranotik Goizuetara.

1992an Lekeitioko Markos Zapirain agertu zen lehenengoz. Hainbat lekutako txistulariak bildu ginen Aranon. Txobitok asko gozatzen zuen txistulari haiekin.

Neroni Aranoa joateko gogoa kendu zi-tzaidanean, Txobitok bezperan deitzen zidan eta konpromisoz ere joan izan naiz. Txobitori eskertu behar diot horrenbeste urtez segidan Aranora joan izana. Ez dut sekula ahaztuko bere azken "San Roke"

jertsea) edo txaketa urdin iluna eta gona edo praka grisak ziren, baina Sanjoantzan gona edo praka zuriak janzten genituen.

Mendizalea ere bazen Txobito. Patxi Apezetxearekin maiz joaten zen larunbatez. Urte batean Formigaleraino joan ginen, "La ruta del contrabandista" ibilaldia egite-ra.

Zazpi- zortzi orduko ibilaldia izan zen hura; amaieran, Txobitok, bi aldiz pentsatu gabe, ur ia izoztuan jarri zituen hankak freskatzen.



Txobitori omenaldia Aranon.
1995

eguna nire 25garrena izan zela (bazirudien horren zain zegoela...)


1995ean, Aranoko herriak merezitako omenaldia eskaini zion. 2001. urtean San Roke elizaren ehungarren urteurrena ospatu genuen, noski txistua joaz.

Uniformeari garrantzi handi samarra ematen zion Txobitok. Baino batez ere, "txistua jotzerakoan txapela beti buruan jarrita jo" esaten zigun. Gure uniformea, ekitaldi gehienetarako, txapela, alkandora zuria, kaikua (pilotak zintzilik zituen

Txobitoren azken ekitaldi nagusietakoa, berritasunagatik, 1999. urtean Amasan "Hernanin entzuna" CD-aren grabaketan parte hartzea izan zen. Txistulari gisa eta San Joaneko errondako kantari gisa aritu zen. Oso urduri ibili arren, pozez igarotako egunak izan ziren.

Gaur egun Hernaniko txistulari bandan badauzkagu Txobito gogorazten gaituzten piezak, J. Martinez de Lezearen hiru zortziko hain zuzen ere. Pieza horiek jotzen ditugun bakoitzean, "Al Txobitorena ezta?", esaten diogu elkarri.

"La ruta del contrabandista"
ibilbidea 1993an egin zuen taldea.
Atzean Arremoulit mendia.



Inauterietan Txobitok ezuste-koa ematen zuen beti. Oso ongi moldatzen zen mozorroa bilatzeko garaian. Txistulari taldea 1996an.

"Hernanin entzuna" CD-aren grabaketa 1999an
Amasan.



Harrotzeko moduko gauza asko baldin bazi-tuen ere, Txobito oso umila zen. Ez zen harrokerietan ibiltzen.

2002ko San Roque eguneko meza bereziki Txobitorri eskainia izan zen. Iñaki Aranzadi apaiza (Urnietako parrokoa) Urnietatik Ara-nora oinez etorri zen meza ematera. Meza guztia bertsoka aritu zen; Xalbadorren ber-tsoak kantatu zituen, batez ere. Oso meza polita izan zen. Txobitoren lehengusuak, Martxel Ansak, honako bertso hauek kanta-tu zituen:


San Roque eguna

Txobitorri eskeiñiak


Modu apal da xume honetan
Kantuan gara hasiko
Txistu ta tanbor soiñu alaiez,
Gaur ez bait da hemen Txobito.
Gaixotasunak eldu zion da,
Azken arnas hori ito.
Agur bero bat Aranotikan,
Gehiago ez gara ikusiko.

Ainbat urtetan gure artean,
San Roque egun bakoitzean.
Poz eta penak urbiltzen dira
Gaur Txobitoz oroitzean.
Zure txistuan ahotsarekin
Zaude gure bihotzean.
Zure irudia gurekin dago
Gaurko meza eta otoiitzean.

Gure artean izango zara,
Izar berri bat bezala,
Ez da ahaztuko egun honetan
Beti gurekin ziñala.
Zure txistua alaitzen zuen
Egunak iraun dezala.
Eta betiko pake bidean
San Roque lagun zaitzala..



San Roke eguna



Modu apal da xume honetan
Kantuan gara hasiko

Txistu ta tanbor soinu alaiez,
Gaur ez bait da hemen Txobito.

Gaixotasunak eldu zion da,
Azken arnas hori ito.

Agur bero bat Aranotikan,
Gehiago ez gara ikusiko.

Ainbat urtetan gure artean,
San Roke egun bakoitzean.

Poz eta penak urbiltzen dira
Gaur Txobitoz oroitzean.

Zure txistuan ahotsarekin
Zaudet gure bihotzean.

Zure irudia gurekin dago
Gaurko meza eta otoiitzean.

Gure artean izango zara,
Izar berri bat bezala.

Ez da ahaztuko egun honetan
Beti gurekin ziñala.

Zure txistua alaitzen zuen
Egunak iraun dezala.

Eta betiko pake bidean
San Rokek lagun zaitzala..

Txobito joan zaigu, baina txistuarekiko zuen maitasuna eta zaletasuna, jarraibide garbia izango da, dudarik gabe, txistulari guziontzat.

Izen asko aipatu dira idatzi honetan; baten bat aipatu gabe geratuko zen, seguru asko, eta barkamena eskatzen diet aitatu ez ditu- dan eta txistulari izan diren horiei guztiei. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet, Ian hau egiteko eman didaten laguntzagatik, Joxan Ruiz, Dioni Loiarte, Karmele Mujika, Patxi Apezetxea, Joseba San Sebastian eta Eba Igarziz, bandako gainerako txistulariei eta nire ahizpei.

HERNANI

ALBISTE IZAN ZEN

FUE NOTICIA

ESKOLA TXIKIEN JAIA, EREÑOTZUN

Eskola Txikien Jaia 2002ko ekainaren 9an egin zen Ereñotzun. "Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik" lelopean, herri txikiiek eta auzoek aurrera egin dezaten eskola txikiak beharrekoak direla aldarrikatu zen jai horretan.




Argazkia: Hernaniko KRONIKA



PARRONDO ANAIA-ARREBAK, EUSKAL HERRIKO TXAPELDUN

XXVI Euskal Herriko Dantza Solteko Txapelketa 2002ko ekainaren 16an egin zen Segurian, eta Aitor eta Amaia Parrondo anaia-arreba hernaniarrek irabazi zuten txapela. Irailaren 1ean Donostiako Euskal Jaietako Txapelketa irabazi zuten.

(Fotografías: DV)



FALLECE EDUARDO CHILLIDA

El pasado 19 de agosto de 2002 fallecía en Donostia, a los 78 años de edad, y como consecuencia de una prolongada enfermedad, Eduardo Chillida. Referente artístico del s. XX, estaba profundamente vinculado a Hernani. Residió entre 1951 y 1957 en la villa "Vista Alegre" de Florida Auzoa y es en la localidad donde desarrolla sus incipientes labores artísticas, labores que culmina con la creación de Chillida-Leku en el caserío Zabalaga. El 4 de septiembre el Ayuntamiento le nombra "Hijo Adoptivo" de Hernani.




Fotografía: Hernaniko KRONIKA



LAS HIJAS DE LA CARIDAD ABANDONAN SUS LABORES EN LA RESIDENCIA DE ANCIANOS

Las Hijas de la Caridad abandonan sus labores en la Residencia de Ancianos, tras más de 100 años al cuidado de enfermos y acogidos en ella. La avanzada edad de las religiosas y la falta de relevo, tras la jubilación de varias de ellas, han llevado a tomar esta decisión. El pasado 15 de enero de 2003 se les rindió un merecido homenaje-despedida.





Javier Otxoa - "Eltzekondo" borrokaldia hasi aurretik (Argazkia: "80 años de atletismo en Hernani" liburutik hartuta)

ELTZEKONDO: ETORRI HANDIKO INDARTSUA

Jon Odriozola Amigorena

ndar erakustaldiek, betidanik jarraitzaile asko izan dute Hernanin. Esaterako, urtero ospatzen ez bazen ere, 1942tik 1973ra, San Joan jaietan, Gudarien plazan, orduko Espainiakoan, boxeo jaialdiek, jende andana mugitu izan zuten. Boxeoaren antzera, borroka greko-erromatarrek ere izan zuen oihartzunik kaxkoan. Halere, bi kirol nahikoa ezagun horien aurretik, pultsularitza, pisua pultsuan altxatzea, egun arrunt zaletasun arrotza, oso zabaldua egon zen herrian.

Hernanin, Isidro Ollokiegi Garin, "Eltzekondo", ezinbesteko erreferentzia dugu. Herriko, pultsu-

lari eta borrokalari greko-erromatarrek, 1878ko urtarrilaren 2an egin zuen mundura. Hau da, aurten, egutegiaren estreinako hilabetean, bere jaiotzaren 125 urteurrena ospatu zen. Manuel Olaizola, Uztapide bertsolariak, ez zuen dudarik: "pultsuan, hemen azaldu den onena. Zenbat indar zuen ez zekien berak ere".

"Eltzekondoren" garaieraren inguruan, asko idatzi bada ere, bataz beste, 1,75-80ko altuera zuen. "Ez zen gizena, zabala baizik" irizten du Iñaki Zubeldia herritarrek. Halere, "Eltzekondo", bere handitasunean, arrunt arina zen. 100 metrotan korrika, oso gutxik irabazten

zioten. Oinak mugitu barik, inputsoa hartu, eta salto batean ahalik eta urrunera iristen ere, ez zen batere makala.

EGOSKORRA. Imanol Larretxeak ere oso gogoan du Isidro: "ahots fuertea zuen, eta leporik ez ! ". Imanolek, "Eltzekondo" "egoskor amorratua " zela dio, eta "nire aitonarekin, Jose Antonio Goñi, 'Maldaburu', ez zen bate- re ondo moldatzen.


Biak, ibaiko arrantzale- ak baitziren".

Imanol mutil kosko- rretan, lagun batekin egungo musika eskolako arkupetan pilotan jokatzen ari zela, hormaz-horma bizi zen "Eltzekondori", antza, pilota hotsek, siestatik esnarazi zio- ten. Halako batean "lizar makil mardul bezain lodia bat eskue- tan zuela azaldu zen - azpimarratzen du Imanolek. Bota egin zidan ! Bainak, zorionez makurtu eta ez zidan jo. Bainak, jaurtitzeko orduan, egin zuen indarrarekin, hankaz gora erori zen. Guk berriz, handik ospa azkar egin genuen ! ".

Iñaki Zubeldiaren aita zenak, Joaquinek, gerra zibila hasi aurretik, Gudarien enparantzan, bizar- tegia zuen. Ondoren ere, urtetan izan zuen. Sasoi hartan, herrian, euskarazko errtolua zuen denda bakanetarikoa zen, eta ohi denez, sagardotegiez gain, baita herritarron bilgunea.


Iñakik, "Eltzekondori" buruz, bere aitaren ahotik, hamaika pasarte entzun ditu, "Isidro, bizartegiko

bezeroa baitzen. Larru azala gogorra izaki, eta bizarra mozteko ere, labanarik zakarrena nahi izaten zuen. Halere, ia inoiz ez zuen ordaintzen. Nahikoa zekena zen. Ilea eta bizarra moztea, 15 xentimo inguru izango ziren. Berak, berriz, bost gutxiago ordaintzen zituen" -dio irribarrez Iñakik. "Isidro zuk ere berdin ordaindu behar duzu" esaten zion aitak. 'Bai zera ! -"Eltzekon- dok"- nik ez daukat apena ilerik eta, nola ordainduko dut besteak bezala !. Halere primeran moldatzen ziren aita eta biok".



ETORIA. "Eltzekondo" eguneroko tratuan nahiko zakarra omen zen, baina, aldarte onez egon ezkerro, hamaika ipuin, bertso eta zein gertaera errexitatzeko jario bikaina zuen. Herritarrok bere inguru marian, gustura egoten ziren ent- zuten. "Oso hizketa atse- ginekoa zen" -dio Iñakik. "Hargatik, Barriolak, 'Eltzekondo', Lekunberrin zuen hotelera ematen zuen. Orduan, urtarroak, negua batik bat, egungoak baino gogorra- goak izaten ziren, eta nagusiak, berton, aterpet- zen zituen mandozain eta basomutilak, baita apustuetarako prestaketen egoten ziren aizko- lari, korrikalariak ... entretenitu edo egonaldia atsegina izan zezaten, 'Eltzekondo' jarduten zen hamaika histori kontatzen ". Bistan da, indartsua, pertsona jantzia zela, eskola handi- rik gabekoa izan arren.

Bestalde, "Eltzekondo", Atxietasen zuen etxe- an, arrantzaran abila eta eskulanetan iaioa zenez, butroiak, egiten aritzen zen. Eulali Aranburuk, oso presente du, bere lehengusu,



Joxe Migel Goikoetxea Aranburu, "mutil koskorra zela, etxeen gurasoekin haserretzen zenean, Isidroengana joaten zen. 'Eltzekondorekin' egotea oso gogoko baitzuen".

SASOIA. Pultsularitzan, bere markak handitu ahala, eta Gipuzkoan areriorik gabe gelditu orduko, "Eltzekondok" bizkaitarrekin indarrak neurtezeari ekin zion. Esaterako, Durangon bazen Atxa izeneko indartsu bat. Asko ziren bien arteko indar erakusketa ikusteko irrikatan zeudenak, apustuak ez ziren urrutti izango-eta. Bizkaitarrak, Sota ontzi-egile ezaguna, babesle zuen. Halere, neurketa ez zen ospatu. Antza, Bilboko Buenos Aires antzokian eginko erakustaldi batean, "Eltzekondok", 130 kilo altxa ostean, hernaniarraren aurka jai zuelakoan, Atxak atzera egin baitzuen.

"Eltzekondoren" indarraren erakusle, Florida auzoko Irin lantegian gertaturiko pasartea. Bere lankideek 100 kiloko zakua bizkarre-ratzen zuten bitartean, Isidrok, bidaia oro. bi zaku garriatzen omen zituen. joan-etorriak aurretzuz. Nekatu eta eseri zen batean, nagusia azaldu eta hala esan omen zion: "Zer egi-ten duk eserita? Eta Isidrok bueltan. "besteek zaku bat eramatzen duten bitartean nik bi era-maten dizkiat!".

RAKU. 1908ko irailaren 13an, Tolosako zezen plazan, Raku japoniarak eta "Eltzekondok", indarrak neurtu zituzten. Ordurako, borroka greko-erromatarrean jarduten zuen han-hemenka Isidrok.

Malaysiar morroi eta guzti azaldu zen Raku, oso iaioa zen jiu-jitsu izeneko borroka-artearen.

Japoniarak, 3'10 minutu eskasetan, herritara mendean hartu arren, jendea arrunt kontent gelditu omen zen "Eltzekondoren" lanarekin.

Orduko kronika baten arabera, lehiak ikusmin handia sortu zuen, eta "guztiak isil-isilik gelditu ziren gipuzkoar borrokalaria azaldu eta borro-karen lehen faseak hasi zirenean. Bitxia oso Raku txikiak eta Eltze-kondo handiak erakus-ten zuten aldea, bata, gihar mehe, fin eta zin-belduna, bestea berriz, zango zein bizeps haragitsu mardulduna".

Rakuren aurkako lehia zelata, Telesforo de Aranzadi, antropologoak, era honetan definitu zuen "Eltze-kondo": "...gizeritasunera in Iodia eta altueraz arerioa baino ia punta bat garaia-goa, iletsua, burua beti zerbait ikasteko duen norbaiten antzera, onginahi hazpegiekin, egosgogorkeri eta harropuzkeri gabekoa, haur baten begiratua eta zurikeriari soraioa".

Aranzadiren hitzetan, "nire nerbioak gitarrako hariak bailiran, dantzan ibili ziren, gipuzkoar artzak arintasun benetan apartekoari berri ematen zuen bakoitzean...".

Tolosakoez gain, norgehiagoka esanguratsuen baitan, 1909ko irailean, Bilboko zezen plazan, Willie Lewis, borroka greko-erromatarreko txapeldun amerikarra eta "Eltzekondok" indarrak neurtu zituztenekoa, sona handiko lehia izan zen.

1908 eta 1910 bitartean, Gipuzkoa eta Bizkaian zehar, Urrestillako Ramon Garate eta "Eltzekondok", nor baino nor, borroka dezente jokatu zituzten. 1913an, berriz, Isidro, "Ortue-

Ilako Raku" eta "Urrestillako Caminerorekin" batera, erakustaldietan parte hartzeko kontratua izan zen, eta harrezkero ere, Javier Otxoa, borrokalari urdiaindarra eta biak makinak bat aldiz elkarren aurka lehiatu ziren.

Gure mugen gain, Eltsekondoren indarraren berri, munduko hamaika hirik izan zuten, bestek beste, Habanak, Parisek, Buenos Airesk...

EUSKAL JAIAK. 1909an Hernanin ospatu ziren Euskal Jaietako ekitaldiak bat, irailaren 20ko konpartsen desfilea izan zen. Sagardoaren prestaketa irudikatzen zen karrozetariko batean, sagardotegi bat antzeztu zuten. Kroniken aburuz, karrozak "zer esanik eman zuen jendartean, eta bertoko partaideak, euren artean 'Eltsekondo' entzutetsuak, 'Txirrita' bertsolariak eta Jose Miguel Oyarzabal, 'Nagiya' ezagunak, bildutakoak gozarazi zituzten".

Handik bi egunetara, Euskal Festetako ekitaldi sortaren baitan, goizeko bederatzi terdieten, pultsulari frogak ospatu zen. Nikolas Otaño eta Ignazio Egibar herritarra, nor baino nor jardun ondoren, "Eltsekondo" oholtzaren gainera igo orduko, berarekin neurtu nahi zuen edonori desafioa bota zion. Ez zen inor azal-

du, noski ! Beraz, "Eltzekondok" arerik gabe egin zuen ekitaldia. Esku bakarrez, 80 kilo altxa zituen. Biekin berriz, 115 kg. lanak amaitu orduko, erakustaldian aritutako hiru hernaniarrek, hogeina duroko saria patrikaratu zuten.

AI TXOMIN, TXOMIN !. "Eltsekondo" adineko zela, Txomin "Antxiola" gazte sasoikoarekin gertaturikoa ez zaio berehalakoan ahantziko Iñaki Zubeldiari.

Ilunabar batean, Txomin eta bere lagun bat, garai bateko "Amerikano" tabernan, egungo Portalondoko eraikuntzan, "Eltsekondoren" zain zeuden. Halako batean, "Eltsekondo", Atxietas inguruan zegoela jakin orduko, berarengana hurbildu ziren. "Aurrez aurre zirela, - dio Iñakik- harroxko samarra zen Txomin 'Antxiola', 'Eltsekondori' bere indarra kolokan jartzen hasi zitzaison, zabar, desafioka. Eltsekondok 'utzi nazak bakean' esanaz ez zion kasurik egin, Txominek, jo eta su zirikatzen jarraitzen bazuen ere". "Eltzekondok" istilurik nahi ez, eta ospa egin zuen.

Halere, bikotea Andrekaletik - Kardaberaz kaletik - gora igo, eta Karkabatik barrena, egungo Txili tabernaren inguruan, berriz, zirikatzen jarraitu zuen. "Halako batean -mintzo



da Iñaki Zubeldia- "Eltzekondo nazkatu, Txomin lepotik heldu, eta bere hanka tartean jarri zuen gaztearen burua. Bide batez, 'Antxiolari' laguntzera joan zitzaion lagunari, egundainoko belarrondokoa eman zion. Halere, Txomin askatu egin zen, eta hatzen bat Isidroren begiren batetik sartzeko asmoz edo, ezustean, borrokan, ahoan sartu zion. 'Eltzekondok' bi aldi pentsatu gabe, Txominen hatzari hozka egin, eta hortzkin hatz bat moztu zion !".


Auzia konpontzeko, oihartzun dezente izan zuen epaiketa ospatu zen herrian. Eltzekondok bere burua defendatzeko ez zuen abokaturen beharrik izan: "bere hitz jario lagun, bere buruaren defentsa bikaina egin omen zuen - dio Iñakik. Gertarak aintzat hartu ondoren, epaia 'Eltzekondoren' aldekoa izan zen".

Izan ere, sasoiaz gain, hizketan, etorri bikaina zuen herritarrok.

GABONAK. Eguberri garaiko eskean, Iñaki Zubeldia, mutil koskorra zela, anai-arrebekin batera, kantuan, garai beteko 'Leokadioren tabernan', egungo Zumitzan sartu zen. "Arratsaldeko seiak inguru izango ziren -dio pentjakor Iñakik. Kantuan egin ondoren txapela pasatzen hasi nintzen tabernan. 'Eltzekondo' ere, lagunartean bertan zen, eta eskean hurbildu nintzenean, [kantu] 'hau ba al dakik?' galdeitu zidan. Hura esan orduko, tabernako guzti-guztiak bat-batean isildu egin ziren. Gogoan dut eguberrietako bizpahiru kanta abestu zituela. Eta tabernako bezeroek, adi

eta errespetuz, entzun zituzten 'Eltzekondok' botatakoak".

BERTSOLARITZA. Kantua gogoko izateaz gain, arrunt bertsozalea zen "Eltzekondo". Uztapide bertsolariak, Hernanira saioaren batera etorri, eta ondo baino hobeto gogoratzentzu: "Bertsotan ari ginenean, [bertsoak] ondo aditu nahi izaten zituan. Han jiran hasten bazen berriketan baten bat, laster esango zion hark isilik egoteko edo bestela alde egiteko handik".




Isidro Ollokiegi "Eltzekondo" W. Lewisen kontra. Bilbo 1909 (Argazkia: Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco - Auñamendi)

Bertsolaritzak ere, "Eltzekondoren" marka eta indarra nahiko aintzakotzat izan ditu. Eusebio Mugerza (Mendaro, 1874-1955) "Mendarrako Txirristaka-k" idatziriko "Euskal-erriaren alabantzan" bertso sortan esaterako, bere sasoia azpimarratzen du.

Nor da gizona zezenak ainbat
indar izandutakua?
Dudarik gabe esan zazute:
Eltzekondo Ernani'kua,
zortzi, arrua* esku batekiñ
Pultsuan jasotakua.

*(Arroa bat, 11,5 kg)

AGURRA. "Eltzekondok", 1949ko maiatzaren 18an utzi zion arnas hartzeari. Lehengo mende erdian plazaratzen ziren, bataz beste, sei orrialdeko, bi egunkarietan, El Diario Vasco zein La Voz de



España-n izan zuen oihartzunik hernania-rraren heriotzak.

Bi hedabideek, kirol sailean, "Eltzekondori" goraipamen beroak egin zizkioten. El Diario Vasco-n zera azaldu zen: "Loiola auzoan, berton bizi zen 71 urte zituen Isidro Ollokiegi 'Eltzekondo' greko-erromatar borrokalari ospetsu eta pultsulari handia, hil da. Mundu guztian sona handikoa, bere gor-puzkera mardula Europako hainbat bazterretan ikusi zuten, behin, Otxoarekin batera Armeniaraino ere joan zelarik. Egun, adinekoia izan arren, sasoi ederra zuen, tarteka indar erakustaldi bat edo beste egiteraino". Ez da txantxa, Iñaki Zubeldiak gogoratzen duen lez, "hirurogeitaka urte izanik ere, belaunetatik jada nahikoa eskas ibili arren, gerriz gora, besoetan, egundainoko sasoia zuen".


1949ko maiatzaren 20ko, "Eltzekondo" hil eta bi egunetara, La Voz de España-n, "Mi atalaya montañera", ohiko idatzian, Iñaki Eizmendi, Basarrik, ondorengo bertsoa eskaini zion asko miresten zuen hernania-rrari.

Bizpahiru egunetara, berriz, El Diario Vasco-ko, "Nere Bordatik" atalean, Fernando Artola, Bordari-k, idatzi honekin hasi zuen kronika: "Lehen Otxoa eta orain 'Eltzekondo', indarraren bi koloso, euskal arrazaren sendotasunaren adierazle, betirako joan dira. Euren gaitasun herkulearrek munduaren mirespena jaso zuten eta nazio-arteiko kirol prentsa aintzakotzat izan eta beraietaz goraipamenez mintzatuko da".

Askotan irudikatu izan ditugu, kontaktua nagusi den kiroletako indartsuak, apur bat inozo eta nahikoa nortasun ahuleko pertsonak bezala. "Eltzekondok", tokitan uzten du, indartsu eta ezjakinaren mitoa.

"Uste gabetan eldu zitzaigun
berri triste ta samiña,
indarrik gabe gelditu zala
ainbat indarka egiña.
Zerutar Jauna, ikusi ondo
zertan zegon utsegiña,
danak barkatuz eman zaiozu
betirako atsegiña".

Eltzekondo zara'rez Oroinrez



Ara amen argazki gogozkoa
eriko seme zar batzen orimena
Olokiegui tar Ixidoro
Eltzekondo aundiarena
Inguru auelan, munduaren ere
pullzukarik onena,
ardatz aundi aiek jasoleen
Kontrariorik ez zubena

Bilbaoko Zabalbide antzokian
atelia dago argazkia,
ogei eta iru urte zituela
eunda beriogeita bi altzira
Rigulat prantzesak urte berian
eunda beriogeita irukin bestia
au kontrarioa izan baldin bazun
ez aritu oni ere, irabastia

Eunda irurogeitik gora
jasoa bere bi besoakin,
eunda amar ere altzira
beso ezker bakarakin,
bizi izan bear ez bazun
geienak bezela lonarekin,
pullzuz jasozen txapeldun
Eltzekondo bere indararekin.

Jaiotza: 1878 Motaclerk 20.
I - 1909 Motaclerk 10.



ERTSO PAPERAK

"JOXE LEGARRETA" SARIA 1997

Julian Albistur

EUSKERAZ BIZI ETA GAZTELERAZ HEZI TORTURA HURA EZ GENUEN MEREZI

- 1** Argazki zahar baten bila,
igaro dut otsaila;
armairu eta kajoi miatzen
naiz oso abila.

Bizitzaren maratila
eta oroitzapen pila,
argazki hortan jasoak daude
ta ager dadila!
- 2** Kartazalean itxia,
hain dokumentu bitxia;
auskalo noiztik zegoen hantxe
gordeta utzia.

Badu zer erakutsia,
ez baitzegoen hautsia;
gaur ikusita, egia esan,
dirudi kurtsia.
- 3** Berrogei urtetik gora...
azkar pasa da denbora!
Garai hartako gauza ugari
datorkit gogora.

Petatxuzko alkandora;
anaiaren kazadora...

Gauzak aldatu dira orduik
gaurko haurtzarora!
- 4** Gure lehenengo eskola,
ez zen izan ikastola;
garai haietan ez zutelako
onartzen inola.

Heziketa espanola,
eta esango dut nola:
kanta araziz "Cara al sol", ta ez
"Gernikako Arbola"

- 5** Kanpokaldean bandera,
gorri-horia gainera.
Gela barruan argazki zaharra:
zen Franco berbera.
Mintzatzeko, gaztelera,
bakarra gure aukera.
Ama hizkuntza kontutan hartuz
heziak ez gera.
- 6** Gogo onez ezin ekin,
orduan, sei urterekin:
han kastilanoz hitz egin behar
nahiz ezer ez jakin!
Hizkuntza arrotzarekin,
lortzeko nahiko etekin,
“A” ereduan hezi gintuzten,
makil motzarekin.
- 7** Hizkuntzaren eraginez,
sarritan buruko minez.
Dotrinan ongi moldatzen ginen
euskeraz eginez.
Errosaioa latinez,
hitzak ulertu ezinez.
Hiru hizkuntza erabili ta,
bat ongi jakin ez!
- 8** Eskolak, gela bakarra;
ikasleak barra-barra:
batek mukia zintzilik eta
besteak puzkarra...
Maistra genuen zakarra:
matrailean hatzaparra;
diktaduraren pedagogia:
umeen negarra.
- 9** Berrogeita hemeretzi;
ia ezin da sinetsi.
Hogeita hamaika mutilak eta
neskak ho(ge)ita zortzi.
Nola zitekeen onetsi?
Pedagogoak ez etsi,
irakaskuntza hobetzekotan
bihar edo etzi.
- 10** Ereñozu eta Latxe;
Fagollaga-koak, hantxe.
Lastaola ta Epele-tarrak
gogoan oraintxe.
Ikasteko “a”, “be”, “ce”, “che”,
“de”, “e”, “efe”, “ge”, “ta”, “hache”....
Zaitasun asko genituen guk
mekagu en la letxe!
- 11** Argazkia da lekuo
eta nik ez dut salduko;
ttikitau jasan genuenari
ezin egin uko.
Epele-Ereñozuko,
denek dute sinestuko:
hor galerazi zuten hizkuntza,
ez dugu ahaztuko.
- 12** Herri zahar honen kultura,
hizkuntza eta ohitura,
galtzeko aina indartsu ez zen,
izan diktadura.
Genozidio saio hora,
berriz nik ez nuke gura
eta ez bedi inoiz itzuli
gure ingurura!



Entrevista a FERNANDO LOPEZ DE ZUBIRIA

Iban Oiartzabal Arraras.

Nos acoge gentilmente en su casa, y en media hora de conversación amena, nos relata momentos y avatares de su juventud, marcada, en gran medida, por su paso durante tres años (1926, 1927 y 1928) y cuatro temporadas (1925/26 - 26/27 - 27/28 - 28/29) por el equipo de fútbol de la Real Sociedad de San Sebastián.

¿Cómo comenzaste a jugar al fútbol?

Cuando tenía 10 años fui a estudiar a Pamplona. Mi padre era notario, y, como también él había estudiado en la capital navarra, pues a me mandó allí a estudiar el bachiller. Los chicos que habíamos ido a estudiar desde San Sebastián conocíamos algo del fútbol, de haber visto algún partido en San Sebastián de gente que venía de Madrid. Por eso, y como en Pamplona no conocían apenas nada, éramos nosotros los que comenzamos a jugar al fútbol allí. Éramos los únicos que sabíamos como hacer las alineaciones y demás. En Pamplona se

Allá por 1906, concretamente un 5 de febrero, nació el protagonista de estas próximas líneas. Lo hizo en Hernani, más concretamente en Urumea 46, y es, con 97 años, el ex -jugador más veterano de la Real Sociedad. Hablamos, cómo no, de Fernando López de Zubiría.

comenzó a jugar en lo que llamaban hipódromo, que estaba en frente de la estación de entonces. Estando yo allí se fundaron los dos primeros clubes de la ciudad, que fueron la Deportiva y la Esportiva.

¿Cuánto tiempo estuviste en Pamplona?

Permanecí allí hasta los 16 años. Varios meses antes de volver de nuevo a casa, recuerdo que se organizó un campeonato entre colegios. Yo jugué únicamente dos o tres partidos, porque llegó mayo y tuve que volver a Hernani.

Y después...

Con 16 años comencé a jugar en el "Gure Izarra" de Astigarraga. Jugábamos en el campo de Zapiain, al que íbamos andando o en el tranvía; y bueno, pues ya teníamos nuestras botas y nuestra ropa de fútbol, aunque mucha de ella la utilizáramos también para andar por la calle. Recuerdo que con aquel equipo un año quedamos los últimos y al siguiente fuimos campeones.

Además de jugar al fútbol, ¿practicabas más deportes?

Le dijo que le pidiera un gracia, que quería concedérsela en prueba de su agradecimiento. Y, allí, enfrente del mismo campo de Mirabel que había sido el escenario de su gloria, amontonando sin duda mucha más, Urbina dió la nota de mayor grandeza de espíritu que pudiera nadie esperar: todos el que más el que menos, procuraba aconsejarle sugiriéndole peticiones más ventajosas, y él, Urbina, que podía pedir una fortuna y riquezas al más poderoso rey de Francia... asombró a todos, diciendo simplemente que, pues que Francia guardaba prisionero a uno que fué amigo y jefe del hernaniarra, el Señor Don Hugo de Moncada, le prometiera ponerlo en libertad. Todos se sorprendieron. El mismo rey no comprendía aquél desinterés, tan lleno de altruismo, y volvió a hacerle el requerimiento. Y todos eran a aconsejarle que aprovechase la magnífica ocasión que la suerte le deparaba; unos le decían que pidiera esto, aquello, o lo de más allá, pues, además todos sabían que eran muchas las necesidades del hernaniarra y enormes el orgullo, opulencia y poderes del rey preso. Pero nada hizo cambiar la decisión de Urbina, que manifestó que era aquella; que la había meditado, y nada le haría cambiar; declarándolo con tal firmeza, que a todos conmovió, e hizo manifestar al mismo Francisco I su admiración ante «tan ejemplar fidelidad y proceder tan desinteresado».

El Emperador Carlos V al conocer el lance no pudo dejar de admirarse a su vez. Le concedió singular escudo de armas.

JOSTUNAK ETA

JOSTUNDEGIAK HERNANIN

NON IKASTEN ZEN JOSTEN?

Ba al da norbait gure herri honetan sukalde txokoan amona, ama edo izeba josten ikusi ez duenik? Hainbat arropa zahar konpondu, galtza barrenak hartu, maindireei puskak jarri, soineko konponketak egin, galtzerdietako zuloak pasarazi... beti emakumeak horrelako lanetan.

XX. mende hasieran familiak handiak ziren, bai kalean bai baserriean; denontzat konponketak egiten bakarrik bazea nahiko lan. Beto jostorratza eta haria prest zutela emakumeek. Arropa aldatzeko, gaur adina ez zen izaten; seme-alaba nagusien jantziak txikienentzako izaten zirenez, soinekoei eta galtzei barrenak hartu behar izaten zitzaizkien. Botoiren bat falta bazuen, jarri. Josteko lan guztia etxeko-andreentzat izaten zen. Familia barruan ikasten zituen emakumeak zegozkion eginkizunak: garbiketan, sukaldaritzan eta josten.


Eskolak eta kolegioak izaten ziren ikasteko leku. Gogora ekartzen baditugu eskolan ibilitako garai haien, akordatuko gara, behin sei edo zazpi urte betez gero, neskak eta mutilak gela ezberdinetan bereizten zirela: neskak maistrarekin eta mutilak maisuarekin; horrela 14 urte bete arte. Eskolan erakusten ziren letrak, matematikak eta laboreak. Arratsaldeetan, neskek josten ikasten zuten: jostorratza ri haria sartzen, guraizeak erabiltzen, trapuari hariak ateratzen... eta, bitartean, abestiak eta olerkiak buruz ikasten zitzuten. Ondo irakurtzen zutenek, egunero txandatuz, altuan irakurtzen zuten guztientzat, gainerakoek josten jarraitzen zuten bitartean.

Neska bakoitzak bere trapu paska eraman behar izaten zuen. Aurreratzen zihoazen neurrian, "trapu muestrarria" egiten zuten: azpildura, atzera-puntadak, bainikak, inkrustazioak, festoiak, botoi zuloak, presillak, gurutze puntuak... Hamabi urtetik hamalaurea eskolan jarraitzen bazuten, denetarako prestatuta zeuden. Bakoitzak nahi zuen laborea eramatzen zuen eskolara, ahal zuenak ahal zuena.

Batzuek tapeteak, kuxinak, mahai-zapiak; beste batzuek telatxoa, gonamotxa edo azpiko gona, kuleroak... egiteko.

Neskentzat zaila izaten zen 14 urte arte eskolan jarraitza. Familien beharren arabera, 13 edo 14 urterako utzi behar izaten zuten eskola eta lanean hasi: neskame, enkarguetan, haur zaintzen, fabriketan.

Lan honen hasieran ageri den labore hori etorri zait eskura. 1890. urtean Hernanin egina da. ABEDeak edo ABECEDARIOak dauzka, tamaina desberdinetan eginak, eta honela dio azpian:



"Lo hizo Teresa Olloquiegui en Hernani año 1890"

Eskolatik atera, eta modua zuenak, jarraitzen zuen josten. Baziren jostea atsegin zitzaien neska gazteak, behin lanak bukatuta, ilunabarrean jostundegira joaten zirenak. Komenigarria zen emakumeak ezkondu aurretik josten ikastea. Beharrezko ofizioa zen etxea ongi eramateko. Aipatutako gazte horiek jostundegira joaten ziren, "Talleres de Costura" izenekoetara.

XX. MENDEKO JOSTUNDEGI SONAUTUAK

XX. mendearen lehenengo hiru hamarkadetan, edo beharbada luzaroago, Hernanin baziren jostundegi sonatuak.

Kardaberaz kaleko 44an, 1. bizitan, familia bat bizi omen zen, Izagirre-Zubillaga sendia. Hiru alaba eta semea zituzten. Haietako bi alaba, Carmen eta Trini, jostunak ziren eta josten erakusten zuten. Horien jostundegiak izen handia zuen. "Las del cantón" deitzen zitzaien. Hor telak mozten, neurriak hartzen, telei tolesak hartzen eta soineko, traje, gona, beroki, blusa, mahuka eta abar maniki batean probatzen ikasten zuten. Neska gazte asko inguratzen zen jostundegia zen, baina kontuan

izan behatzean lehen zitzada eskolan hartua zutela; han ikasi baitzuten titarea erabiltzen, trapu bat behatz artean ibiltzen, hariak atera

tzen eta bainika egiten. Horregatik diot eskolak goi mailako jostundegiak zirela, eta maistrak emakume finak eta eleganteak, argazkiek erakusten dutenez. 1900. urtean



Izagirre-Zubillaga sendia. 1898



Teodora Etxebeste Kerejeta. 1909

Graxi Izagirre Rekondo. 1906



Carmen eta Trini. 1920



ateratako argazkia: irakasleak eta ikasleak dotore jarrita, Sarasketa parkean, denak metroa lepotik zintzilik dutela. Bere lanean ari dira, bastidorean bordatzen, josteko makinan... Hortxe ageri dira bi maistrak ikasleekin josten.

Carmen eta Triniren ondoren, pisu berean, 1960-72 bitarteko urteetan, "Montero Sastre

Anaiak" jostundegia egon zen. Traje eta galtza ugari egin zizkieten hernaniarrei.

Beste jostundegi bat Plaza Nagusian izan zen, Telleria sendiarena. Telleria sendiak janari denda zuen (kamineroarena deitzen zioten). Telleriatarrek hiru alaba zituzten: Isabel, Rosario eta Pakita. Hirurek Parisen ikasi zuten josten. Rosariok oso esku ona omen zuen joste-

Josefa Urreaga jostuna ikasleekin. 1947/XII/13



ko, eta berandu arte dena eskuz josten omen zuen, makinarik gabe. Jostun tailer horretan Donostiarako asko josten omen zuten.

Atsegindagi etxeen bazeen beste jostundegi bat. Senar-emazteak, D. Cayo Blas eta Pilar Zuleta jostuna, seme batekin bizi ziren. Etxe horretan ikasten zuten neska gazteek josten.

Etxe berean, 1. pisuan, bizi ziren Alberrotar hiru ahizpa, Casimira, ezkondua, eta beste biak, ezkongabeak, Fermina eta Kontxa. Hirurak jostunak. Horien lehengusuak ziren kale Nagusian bizi ziren Alberrotar beste bi ahizpa, horiek ere jostunak. Jostundegia zuten, eta bertan ofizioa erakusten zuten. Gerra Zibilaren aurretik, gaur Aralar taberna dagoen gainean, bazeen beste jostundegi bat, Josefa Urreagarena. Jostundegi horretatik ere gazte asko pasatu ziren, batez ere ezkontzarako arreoa prestatu nahi zutenak. Bere jostun-ikasleekin oso ondo ospatzten omen zuen Sta. Luzia eguna, Zumarraga aldera joanez eta bazkari ederra eginez.

Kardaberaz kalean azken 40 urteetan M^a Dolores Lasak izan duen jostundegian adin guztiako emakumeak ibili dira ikasten, "Mozteko Metodo Berezia" liburua eta guzti. Bazuen diplomak emateko ahalmena ere. Orain dela urte gutxi arte, hortxe ikusi dugu lan eta lan. Gaur itxita dauka tailerra. Ama galtzagilea zuenez, berak erakutsi omen zizkion lehen puntadak ematen.

Jostundegi horiek Hernani erdian zeuden, baina auzo bakoitzean ere bazeen jostun bat inguruko gazteak hartzen zituena josten era-kusteko. Adibidez: Olazar baserrian, amona Maria omen zen erakusle; Berakorte baserrian, amona Saturnina Galardi; Ugaldetxon; Florida auzoan; Akarregi auzoan; Tellerigainen; Loidin. Herriko jostun guztiak ez zuten erakusten, baziren josi besterik egiten ez zuten jostunak ere, hau da, besteentzat josten zutenak.

Jostunen artean izaten ziren, eta badira, espezialistak: galtzagileak, kapelugileak, alkandoragileak, kortseterak, haurrentzat arropak egiten oso onak zirenak, bordatzaileak...



1915. Saturnina Galardi



Santiago Carrero fabrikako jostunak. 1924



EHUNGINTZA FABRIKAK

1914. urtean jarri zuen Hernanin lehen ehungintza fabrika Santiago Carrerok, eta 1918an Pablo Morencosek bigarrena. Bi fabrika horietan emakume jostun asko kolokatu zen.

S. Carreron 150 langileri ematen zitzainen lana. Dotorezia handiz aurkezten omen zituzten arropak. Arropa horiek batez ere honako hiru lehengai hauekin egiten zituzten: artile hutsez, artile eta zetaz, zeta hutsez. Horrela, ondo lan eginez eta kalitate handia eskainiz, merkatuan konfiantza lortu zuen, eta bere izena ez zen estatura bakanrik mugatu, ezaguna zen baita Portugal eta Ameriketan ere.

Pablo Morencos ehungintza fabrikan beste hainbeste gertatu zen. Marka onenekin lehiatu

zen, langileen kalitateari eta jostunen trebezari esker. Arropak ongi begiratuta bidaltzen zituzten modan punta-puntan zeuden merkatuetara: Parisera, Vienara, Donostiara... Gerora fabrika hark "Kurt Halle" izena hartu zuen, nagusiz aldatu zenean.

JOSTEKO MAKINAK

Josteko makinak asmatu zituztenean, izugarri erraztu zen josteko lan hori, eta horrek era industrialean lan egiteko aukera ere eman zuen.

Josteko makinarik zaharrena "Singer" izan zen, 1851. urtean asmatua. Gerora, 1920an, Eibarren, "Alfa" josteko makinaren fabrika jarri zuten; eta 1940an "Sigma" etxea aireki zuten Elgoibarren.

"Sigma" josteko makina bat saltzen zutenean, trukean, erosleari bordatzeko ikasteko hilabete-



ko ikastaroa eskaintzen zioten doan. Denbora gehiagoan jarraitu nahi zuenari beste bi edo hiru hilabete luzatzen zitzaion, baina hilabete horiek erosleak ordainduta.

Hernaniko emakume jostunak txalogarriak izan dira eta gaur egun ere hala dira. Orduak eta orduak jostorratzari lotuta egon direlako, eta daudelako. Horiei eskaini nahi izan diet lan xume hau, benetan merezi eta irabazi baitute aipamena eta ohorea.

Bukatzeko, 1933-36 urteetan Escuela Pública Viterin ibilitako neskei Srta. Agustina Leoz (aragoiarra), Srta. Gersi eta Srta. Resurekin jostorratzaren ohoretan abesten zenuten abesti hau dakarkizuet gogora, nahiz erdaraz izan.

LA AGUJA DE COSER

Un tesoro del taller
es la aguja, es la aguja.
Un tesoro del taller
es la aguja de coser.


Tan brillante y tan pequeña
no le cansa el trabajar.
Por tarea que la pongas
ella no se ha de quejar.

Un tesoro del taller
es la aguja, es la aguja.
Un tesoro del taller
es la aguja de coser.

C.C. Martín

Un te - so - ro del ta - ller es la_a-
 gu - ja, es la_a - gu - ja. Un te - so - ro del ta -
 ller es la_a - gu - ja de co - ser. Tan bri -
 llan-te_y tan pe - que - ña no le can-sa_el tra - ba -
 jar. Por ta - re - a que la pon - gas e - lla
 no se ha de que - jar. Un te - so - ro del ta -
 ller es la_a - gu - ja, es la_a - gu - ja. Un te -
 so - ro del ta - ller es la_a - gu - ja de co - ser.

Jakin-minez elkarrizketak eginez bildu
 ditudan kontutxo eta borondatez utzitako
 argazki guztiengatik, bihotzez, mila-mila
 esker.



Iñigo Goñi Iradi

OIALUME DANTZALEKUAK 60 URTE BETE DITU GORPUTZAK MUGIARAZTEN



Oialume, erromeria hasi zen garaietan

Gerra Zibilaren ondoren, 40ko hamarkadaren hasieran, egindako apustu baten ondorioa da Oialumeko erromeria.

Oialume dantzalekuak 60 urtean, urria eta ekaina bitartean, igande arratsaldero zabaldu ditu ateak Martindegi auzoan.

Joanita Agerrezabalagak urte guztia hauetan erromeria ezagutarazi eta hark bizirik iraun dezan lagundu du eta Oialumeko historiari buruzko hainbat pasadizo eta gertakari kontatu dizkigu.

Joanita Agerrezabalagak dioenez, "Felix Orkolakuak, Joxe Enporruk eta besten batzuek apustua egin zuten beraien artean, ea nor zen gehiago pultsoan. Apustua Oialumen egin zen, eta giro hobea izateko norgehiagoka soinuarekin alaitzea pentsatu genuen; Oialumeko erromeria horrela sortu zela esan daiteke, beraz".

Erromeria eta gaur egungo dantzalekua ez dira urte osoan zabalik egoten, Oialumeko atea Pilarika inguruan zabaltzen dira, hau da urriaren hasieran, eta gutxi gorabehera

Sanantoniotan egin ohi da azken emanaldia, ekain aldera. Martindegia auzoko festetan ere, Sanferminetan, irekitzen da dantzalekua; horrelaxe izan da 60 urteetan hauetan. 50 urtez erromeria edo festa Oialume tabernarenurrealdean egin da, baina duela hamar urtetik hona dantzalekua zabalik dago eta bertan egiten dira kontzertuak.

Oialumeko lehendabiziko soinujolea Martin Zubeldia izan zen; bost pezetaren truke igan-de arratsaldeak girotu zituen hasiera haietan. Ondoren, hainbat soinujole eta talde arituak dira. Euskal Herrian erromerietan ibiltzen diren talde gehienak, denak ez esatearren, bertan egonak dira. Zerrenda luzea da, ezbairik gabe: Juan Ramon Amenabar, Bikondoa, Satur Agirre eta Manolo Amenabar, garai batean, eta Egan, Etzakit, Anje Duhalde,

Hertzainak, Akelarre, Laiotz, Izotz eta Trakets, besteak beste, azken urteetan.

Gaur egunean Joanitaren ilobak arduratzen dira dantzalekuaz, eta, beraien esanetan, "gazteek ohiturak aldatzen dituzte eta bestelako taldeak eskatzen dizkigute. 'Ken 7' edo 'Berri Txarrak' bezalako taldeak dira nahi dituztenak. Orain, azken boladan, jendeak gogoko ditu disco festak; Joseina Etxeberriak egiten dituen Disco Festek arrakasta dute, eta bide horretan egon daiteke, agian, etorkizuna".

Taldeei dagokienez, aipagarria da, bestalde, Etzakit talde hernaniar entzutetsuak Oialumen eman zuela bere lehendabiziko kontzertua, eta bere azken kontzertua ere bertan eskaini du aurten.



Etzakit taldearen kontzertua, jadanik dantzalekua estreinatuta.

PASADIZOAK

Oialumen, erromeria guzietan bezala, protagonistak ez dira musika taldeak soilik izaten, askotan bertara hurbiltzen den jendeak ematen du zeresan gehien, eta, hauek bezalaxe, erromeriak berak sortzen dituen pasadizoak eta xelebrekeriak dira lekuari bizia ematen diotenak. Oialumen denetarik ikusitakoak dira: uholdeak, gazteen arteko borrokak, baimenik gabeko emanaldiak, apustuak ...

Behin, uholdeak zirela-eta, bertan behera geratu zen dantzaldia; Joanitaren hitzetan, hura izan zen erromeriarik gabeko igande bakarretakoa, berak gogoan duen bakarretakoa behintzat, 60 urte asko baitira eta hainbeste urtean gauzak ez ahaztea ezinezkoa baita.

Beste behin, gauza xelebrea gertatu zen. Hernaniko Udalak ez zuen baimenik eman dantza edo erromeria egiteko, arazoren bat zela medio; eta guardia zibilak etorri, eta festa galarazi zuten. Baino trikitilariek Oialume aurrean dagoen koskatik hasi ziren soinua jotzen, guardia zibilek txintik egin gabe joan behar izan zuten. Trikitilariek Astigarragatik ari ziren soinua jotzen eta ez Hernanitik; izan ere, Oialume aurrean dagoen koskak bereizten ditu Hernani eta Astigarraga.

HERNANITIK JENDE GUTXI

Oialumera hurbiltzen zen jendea gehienbat ez zela Hernanikoa dio Joanitak: "Hernanitik jende gutxi etortzen zen Oialumera, guk genuen jendea batez ere Astigarraga, Lezo eta Oiartzun aldekoa izaten zen. Giro baserri-tarra izaten zen, eta, beraz, Hernaniko kaletarra ez zen hurbiltzen; gainera, igandero, hemen bezala, Tilosetan ere dantzaldia izaten zen. Baserrietatik gehiago etortzen ziren, Oiartzun eta Astigarragatik gehienbat".

"Loiolako kuarteletik soldaduak ere mordoa etortzen ziren; igande arratsaldeak aprobetazen zitzuten kuarteletik irteteko eta berta, Oialumera, etortzeko. Gero, esan beharra dago Donostian neskame zebilen neska gazte ugari ere etortzen zela. Neska horiek Gipuzkoako hainbat lekutatik Donostiara joaten ziren neskame lanetara; Azpeitia eta inguru horietakoak ziren asko".

ALDAKETAK

Gazteen ohiturak aldatzen doazen heinean Oialumen ere gauzak aldatu egin behar izan dituzte, talde motatik hasi eta ordutegira. Garai batean arratsaldeko 16:30ean hasten zen dantzaldia, eta 22:00ak aldera amaitzen zen: baina garaiekin batera ordutegia aldatu egin da, eta gaur egun 19:30ean hasten da festa, eta 24:00etan amaitzen.

Jendearen adinari dagokionez ere gorabehera edo aldaketak izan dira Oialumen. Joanitak dioenez, "Orain dela 15 urte arte 20 urte inguru bitarte horretako gazteak etor-



Javier Barrenetxea, Oialume tabernako mahai batean eserita, bi oilaskoren zozketarako txartelak saltzen.



80ko hamarkadako ohiko irudia; Oialumen jendea dantzan, hamarkada horretan ohikoak ziren "bakero" eta galtzerdi zuriekin.

zen ziren Oialumera; gero, garai bat egon zen adin gazteagoko jendea etortzen zena, 10 urte inguruan zebiltzan neska-mutilak; baina berriz ere uste dugu adin gehiago duten gazteak etortzen direla, 18 urte inguruko gaztedia".

Oialumeren hasierako garaietan jendea era-kartzearen, zozketarako txartelak saldu eta gero bi oilasko zozkatzen ziren. Gaur egun, bi oilaskoren truke jendea ez litzateke asko mugituko, egia esan. Betiere Oialumeko tabernan ogitartekoak eta afariak eman izan dira. Hala ere, aldaketarik handiena, Oialumeko arduradunen ustez, gazteetan nabaritzen omen da, eta beraien jarreretan. "Gaztediaren jokaerak eta ohiturak aldatu egin dira, gaur egun dantzariak ez da egiten, eta hitz egin beraien artean ere ez". "Lehen Egan taldea etorriko zela esan, eta jendea txora-txora eginda, ilusioz, egun hura noiz iritsiko zain egoten zen. Gaur egun, berriz, ez dakit zein talde etorriko dela esan, eta jendea ez da inoiz konforme; beti kexu da, ilusiorik ez dio egiten".


Agian, garai batean taldeak ikusteko bide bakarra zuzeneko emanaldi haien ziren, eta orain, berriz, leku guztietan aukera zabala dago eta telebista eta irratien eragina ere handia izango da, seguru asko. Hala ere,

erromeria eta berbena taldeek beherakada nabaria izan dute, eta hori, noski, Oialumeren kalterako da. "Orain dela urte batzuk trikitia berriz ere modan jarri zen; baina berriz ere beherakada nabaria izan dute. Herrietako festetan, erromeriak eta berbena taldeak jotzen ari diren lekuetan jende gutxi ikusten da, eta aldatu beharrean aurkitu gara Oialumen ere". "Gazteen eskuetan gaude, beraiek dira merkatua eta beraien gustuetara moldatu beharra daukagu eskaintza"

Egan taldeak dantzalekua leporaino bete zuen; gaur egun hori ezinezkoa da. Hala ere, Oialumen erromeria kutsu hori mantendu nahi da, merkatuaren eskakizunak kontuan hartuta; baina, betiere, ahal den neurrian zainak mantenduz.

Oialumek 60 urte iraun ditu eta Hernaniko ohiturak zaharrenetako da Oialumeko erromeria. Bertako arduradunek oraindik urte askotan eustea espero dute. "Betidanik ezagutu dugu, guk hasi genuen bidaia hau, eta berarekin jarraitzea pentsatzen dugu. 60 urte bete ditu, eta oraindik ere urte gehiago geratzen zaizkio; guk gure lana eta ilusioa mantenduko ditugu. Honekin jaio gara, eta berau galtzeak min handia egingo liguke bihotzetan".

Urte askotarako!




Javier Arraztio
Emiliano Rama
Dioni Tellería

ETXEBERRIKO LAGUN-ARTEA. 25. URTEURRENA



ETXEBERRIKO LAGUN ARTEA



En los antiguos terrenos de Vista Alegre del hernaniarra Barrio de la Florida, donde anteriormente estaba situado el caserío Etxeberri, la Cooperativa de Edificación Oriamendi promocionó la construcción de 320 viviendas de protección oficial. Dentro de la promoción, y tras la cesión al Ayuntamiento de diversos locales y la puesta a la venta de bajos comerciales, garajes y trasteros, se destinaron unos amplios locales en el bloque 8 para dedicarlos a hacer labor social dentro del grupo.

Un grupo de inquietos socios decide intentar poner en marcha los citados locales, a la vista de que la mayor parte de los propietarios de los pisos eran matrimonios jóvenes. Se convoca a todos los vecinos en los locales del bloque 2 cedidos a la Ikastola Langile, y se acuerda la creación de una comisión gestora con ganas de trabajar desinteresadamente

Cocina de la sociedad




para preparar un proyecto. Por otra parte, se solicita a los socios de Cooperativa no interesados en el proyecto, y que por lo tanto se abstienen de los gastos económicos que ello acarrearía, se solicita, decimos, permiso para la puesta en marcha de los locales, quedando claro eso sí, que los citados locales serán siempre propiedad de los 320 vecinos.

La Comisión Gestora que sería presidida por Juan Tolosa contaba entre otros miembros con José Iturrealde, Javier Arraztio, Emiliano Rama, Enrique Pardo y Aurelio Hijarrubia. Una de las primeras decisiones tomada en asamblea es la de darle nombre a la entidad,

que definitivamente queda como Centro Social Etxeberri ó Etxeberriko Lagun-Artea. El socio Mikel Ruiz se encarga de diseñar un boceto del escudo para su posterior aprobación, teniendo en cuenta que como premisa debería de figurar el dibujo del caserío Etxeberri, desaparecido para dar paso al grupo del mismo nombre. El escudo aprobado consta de los siguientes elementos: en la parte superior, el escudo de la Villa de Hernani; en la inferior izquierda, una argazaila; y en la inferior derecha, un dibujo del caserío Etxeberri. El hermoso cuadro con el escudo fue pintado por el donostiarra Manuel Zugaza por 15.000 ptas.

Recordamos que la Comisión Gestora se tomó como primera meta el conseguir la implicación de 167 socios para seguir con los trabajos, para lo cual hubo que visitar casa por casa a todos los posibles socios para conseguir su compromiso. Nuestro agradecimiento a tantos de ellos que no dudaron en arrimar el hombro y rascarse los bolsillos por sacar el centro adelante y hoy es el día en el que todavía no han hecho uso de los locales.

Las ideas generales eran, dedicar una parte importante del local a la sección gastronómica



ca, esperando que de ella pudieran salir los fondos económicos necesarios para el mantenimiento de todos los locales, dado que en la planta baja se iba a montar un Club Juvenil en el que dar cobijo y entretenimiento a los peques del barrio.

Una vez finalizadas las obras, y en asamblea, fueron aprobados los Estatutos Sociales y Reglamento de Régimen Interior. Una de las novedades era que las mujeres podían ser socias de pleno derecho de Etxeberriko Lagun-Artea, como no podía ser de otra forma, ya que había mujeres propietarias de vivienda, requisito imprescindible en un primer momento para adquirir la condición de socio.

Los cuatro cargos importantes de la primera junta elegida fueron:

- | | |
|-------------------|------------------------------|
| * Presidente: | Antxón Goikoetxea |
| * Vicepresidente: | Dioni Telleria |
| * Secretario: | Jesús M ^a Larburu |
| * Tesorero: | Ignacio Inza |




Dado que hasta unos cuantos años más tarde las mujeres no podían entrar en las sociedades del pueblo salvo en las fiestas patronales, nuestros directivos tuvieron que soportar las bromas de directivos de otras sociedades, y prueba de ello son las anécdotas que contamos a continuación.

Cuando los miembros de la Junta fueron buscando asesoramiento en las sociedades del pueblo, ayuda recibida que agradecemos sinceramente, un directivo de Hernani puso en duda que nuestra entidad pudiera funcionar con el "lastre" de las mujeres. Al cabo de unos años, la misma persona se presentó en Etxeberriko Lagun Artea con su señora y una socia nuestra. Cogido in fraganti se hizo el "loco" diciendo que las señoras le habían liado.

Otra anécdota tiene como protagonista un conocidísimo y muchas veces directivo de la misma sociedad que el anterior, y todavía gran colaborador en las fiestas patronales. Este, en plan jocoso, sin pretender ofender pero con ganas de fastidiar, decía a uno de los redactores de este escrito que nuestra sociedad estaba "prostituida", porque en la suya no entraban las mujeres, claro. Pero como las cosas han cambiado y las damas ahora entran también en su sociedad, suponemos que estos dos señores se habrán dado de baja como socios.

Un apartado del Reglamento de Régimen Interior autorizaba a los menores de 14



años a permanecer en el local social hasta las 23 horas, siempre que estuvieran acompañados de sus padres.

Se habilitó el Club Juvenil, que cerraba sus instalaciones a las 21 horas. Se compraron juegos, se colocó una mesa de ping-pong, y se intentó en diversas ocasiones que la cosa funcionara, cambiando incluso de responsables, pero no hubo forma. El pez grande se comía al chico, y por fin se desistió.

La Junta habilitó un local para biblioteca. Para ello se solicitó la ayuda de los socios y del barrio en general, incluso de alguna editorial, y se consiguió gracias a la colaboración de todos ellos alrededor de 500 libros, así como un buen número de cuentos y cómics. El horario era de 19 a 21 horas, de lunes a viernes, turnándose los directivos para mantener




(Fotografía: Mikel Ruiz)

un cierto orden. Tampoco tuvo éxito, y se adoptó la decisión de cerrarlo. Hoy en día continúan los libros en las estanterías.

Al convocarse las primeras elecciones municipales de la democracia se organizó un debate con todos los partidos que aspiraban a gobernar nuestro ayuntamiento. Tuvo buena acogida, y como dato diremos que en aquellas elecciones resultó elegido alcalde Juanjo Uría.

(Fotografía: Mikel Ruiz)



Nuestra entidad ha sido durante años el motor de las fiestas de Pentecostés del Barrio de la Florida. En sus inicios, estas fiestas organizadas desde Etxeberri fueron preparadas por los socios Jesús Rodríguez y Juantxo Etxezarreta. Sin duda, las que tuvieron mas éxito, y es que en aquellos años, además, la asistencia foránea era importantísima, de tal guisa que durante algunos años las fiestas coparon dos fines de semana.



(Fotografía: Udal Artiboa / X. Iriarte)

Mas tarde se formó una comisión de fiestas con participación siempre de varios componentes de nuestra directiva. Años mas tarde un socio solicitó en asamblea que el posible déficit que pudiera acarrear el desarrollo de las fiestas fuera absorbido por la sociedad. Hubo socios que no apoyaban esta iniciativa, pero se aprobó la propuesta. Aclarar, para aquellos, que la sociedad en ningún momento se ha visto en la necesidad de cargarse con el posible déficit. De hecho, en el último balance aparece todavía una cantidad importante como superávit. Entre la falta de ambiente de los últimos años, la falta de interés de algunas directivas, y la poca participación, por tanto, en la Comisión, las fiestas se fueron a mejor vida.

Otro de los motivos que "ayudaron" a la desaparición de las fiestas fue el siguiente. Desde hace muchos años la Comisión llegó con el Ayuntamiento al acuerdo de repartir los ingresos de feriantes, de modo que la Comisión se quedaba con el 75% y el Ayuntamiento con el 25%. Este acuerdo fue aceptado en la Casa

Grande, dado que la captación de feriantes fue desde el comienzo obra nuestra y había una gran entente con ellos, puesto que siempre eran los mismos. La actual corporación, y de forma unilateral, ha roto el acuerdo anterior que tenía el visto bueno de todas las comisiones a las que atañía el tema, Cultura, Economía etc.

El Centro Social fue, asimismo, el que organizó desde el comienzo las tamboradas de adultos e infantil que participaba en las fiestas del barrio, así como la intervención de la Tamborrada Infantil en Sanjuanes. Dado que este año no se han celebrado las fiestas de Pentecostés, úni-



camente participa, y en Sanjuanes, la Tamborrada Infantil.

De cara al pueblo, Etxeberriko Lagun-Artea participa activamente en las fiestas de San Juan. Desde hace muchos años el socio José Iturralde propuso poner de nuevo en marcha la prueba del Atleta Completo, que años atrás había dejado de celebrarse. Algun año en colaboración con el C.D. Hernani (Manu Irastorza) y el resto de los años en solitario, esta prueba se ha convertido en una clásica dentro de los Sanjuanes. Esta prueba, aparte del trabajo previo de organización, requiere también la colaboración de alrededor de 50 personas voluntarias el día de la prueba, labor que llevan a cabo numerosos vecinos de Etxeberri y algunos hernaniarras del centro.

Asimismo, Dioni Telleria propuso organizar la prueba de Lanzamiento de Barra Vasca, ya que este deporte no se había vuelto a celebrar desde los Campeonatos de España celebrados Tolosa en el año 1959. Los primeros años fueron los mas difíciles por diversas circunstancias, pero actual y anualmente se celebran con toda regularidad.

También se han realizado en nuestros locales alguna exposición de pintura y de talla artesanal.

Antes de exponer los datos y estadísticas referentes al Centro Social, resaltar que en todo momento las diversas juntas directivas han intentado que Etxeberriko Lagun-Artea no quedara encuadrada en sociedad exclusivamente gastronómica. Si se ha conseguido, se debe a todos aquellos que han colaborado desinteresadamente. Por tanto, vaya por ellos nuestro agradecimiento.



Daniel Santiago, ante objetos de la exposición de talla de madera artesanal

ETXEBERRI LAGUN-ARTEA

Dirección: Etxeberri 8 - bajo.
Telf: 943 552718

•PRESIDENTES

- 1978-80: Antxon Goikoetxea
- 1981-82: Jesús Vélez
- 1983-84: Javier Olano
- 1985-86: Ignacio Inza
- 1987-88: José Antonio Pérez
- 1989-90: José M^a Etxeberria,
- 1991-92: Emiliano Rama
- 1993-94: Teo Larrañaga
- 1995-96: Rafael Truyo
- 1997-98: José M^a Persona
- 1999-00: Antxon Blanco
- 2001-02: Diego Salamanca.

•JUNTA DIRECTIVA

- Presidente: Diego Salamanca
- Vicepresidente: Francisco Pavón
- Secretario: Belén Altuna
- Vocales: José Manuel Calleja, Juan Cisneros, José Eusebio Del Amo, Patxi Flores, José Angel Hijarrubia, Joaquín Pavón, José Angel San Clemente, Cristóbal Telletxoa.

•ACTIVIDADES

- Campeonatos de mus y tute
- Organización de las Fiestas de Pentecostés
- Organización de las pruebas del Atleta Completo y Lanzamiento de Barra Vasca en fiestas de San Juan.

•BREVE HISTORIA

- Presidente de la Comisión Gestora: Juan Tolosa


- Aprobación de Estatutos: 18 Julio 1978
- I Asamblea General: 16 Septiembre 1978
- I Presidente elegido mediante asamblea: Antxon Goikoetxea
- Inauguración: 28 Octubre 1978
- N° de socios inicial: 198
- N° de socios actual: 202
- N° de mujeres socias: 20
- N° de hombres socios: 182
- N° de socios residentes en Etxeberri: 139
- N° de socios que inicialmente residían en Etxeberri y han fijado su residencia en otro lugar: 38
- N° de socios que nunca han residido en Etxeberri: 25

En sus inicios, solamente podían ser socios los residentes en Etxeberri, sin exclusión de sexo, siendo la primera sociedad de Hernani que admitió como socias de pleno derecho a las mujeres.

En el año 1984 se aprueba en asamblea general el aceptar como socios a personas que no residieran en Etxeberri, fijándose como límite aproximado el 10% de la totalidad de socios.

ADMISIÓN DE NUEVOS SOCIOS

Los residentes en Etxeberri, cuando lo deseen y sin ninguna condición, y los no residentes en Etxeberri, previa presentación y aceptación en asamblea general.



(Argazkia: Hernanika (KRONIKA))

16 urte ditu eta oso ondo daki non
dagoen eta zer nahi duen.

16 urte ditu eta badaki zer den
etxetik at, guraso eta betiko lagu-
nengandik urrun, bizitza.

16 urte ditu eta bere edadekoek oro
har duten ardurez gain beste bat du:
Gimnasia Erritmikoan gogor aritzea.

JAIONE TEJEDOR

Lore Unanue Azpiazu

(Otsailean egindako elkarritzka)

Txikitatik atsegin du gimnasia JAIONE TEJEDORrek. Urteak dira gimnasia erritmikoa oso gustuko zuela konturatu zela, eta, orain, urtebete eskas darama Eibarren ikasten, entrenatzen, bizi- tzen. Oso gutxitan etortzen da Hernanira, eta elkarritzka egiteko telefonoa erabili behar izan genuen, berarekin aurrez aurre geratzea oso zaila delako.

Bederatzi urterekin hasi zen banaka eta taldeka lehiaketetan parte hartzen, eta bere azken lorpena iazkoa da: Espainiako Bakarkako Txapelketan bosgarren geratu zen, eta, Taldeka- koan, IPURUA bere taldeak, zilarrezko domina lortu zuen.

Sakrifizio handia eskatzen duen kirola da gimnasia erritmikoa, baina bera oso pozik dago aukeratutako bizimoduarekin.



Eibarrera joan aurretik Hernanin ibili zen Jaione gimnasia egiten eta txapelketetan parte hartzen.

L.- Jaione, ia urtebete daramazu Eibarren ikasten eta bizitzen, zer moduz?

J.- Oso ondo. Gogorra da hemen bizitza, egoitza batean bizi zarelako, etxeekoak ez daude zurekin, ezta zure lagunak ere, baina pozik nago. Bi urte daramatzat Eibarren entrenatzen, eta hona bizitzera etorri naizen arte egunero lau autobus hartu behar izaten nituen, eta hori oso neketsua da. Pentsa ezazu, ikastolatik atera ondoren, Donostiarra joateko autobusa hartu behar nuen, gero Donostiatik Eibarrera, entrenatu eta buelta. Hiru urte egin ditut horrela, eta aurtengo ikasturtean Eibarren bertan geratzea erabaki nuen.

L.- Esan dugu txikitatik ari zarela gimnasia erritmikoa egiten. Nondik zaletasun hori? Nondik izan zenuen gimnasia erritmikoaren berri?

J.- Zazpi urte nituela Urumea ikastolan hasi nintzen. Orduan Elena, Kataluniako entrenatzailea, etortzen zen astean bitan. Horrela hasi nintzen. Gero ikastolan bakarrik ez, kirolegira ere joaten nintzen. Elena bera zen kirolegiko entrenatzailea eta jarraitu egin nuen gimnasia erritmikoa egiten, baina eskolatik kanpo. Ni

beti izan naiz oso kirol zalea, baleta ere egin nuen. Kirol asko probatu nituen, baina beste kirolek ez ninduten betetzen. Gimnasia erritmikoarekin, berriz, kirola egiteaz gain ondo pasatzen nuenez, serio hartza pentsatu nuen.

L.- Oso urte gutxirekin hartu zenuen gainera serio. Zenbat urterekin?

J.- Hasieran astean hiru egunez entrenatzen nuen, baina hamar urte nituenean hasi nintzen lehiaketetan eta txapelketetan ondo gelditzen. Orduan pentsatu nuen gimnasia erritmikoa serio hartza. Eta hamabi-hamahiru urte nituenean hasi nintzen entrenatzera Eibarrera joaten.

L.- Berehala ohartu zinen oso gustukoa zenuela gimnasia erritmikoa eta serio hartu nahi zenuela; baina etxeekoek zer esan zizuten bide hori hartuko zenuela esatean?

J.- Etxekoek ez zuten ezusteko handirik hartu, ikusten zutelako nik nola bizi nuen gimnasia. Gainera entrenatzaleak harreman zuzena zuen nire gurasoekin. Beti izan dute argi asko gustatzen zaidala eta ez dudala egiten egiteaga-

tik. Beste batzuek zaletasun moduan hartzen dute, baina nire kasuan ez zen horrela. Ez dut inoiz etxekoaldetik trabarik izan.

L.- Eta lagunek zer esan zizuten astean gutxienez lautan Eibarrera joan behar zenuela jakitean?

J.- Beraiek esaten zidaten oso gogorra zela, baina gustukoa banuen, aurrera egiteko. Beraien laguntza ere izan dut, beti joan izan direlako ni ikustera. Betiko lagunak, gainera, mantentzen ditut; nahiz eta Eibarren egon, ez dut beraiekin dudan harremana galdu.

L.- Hala ere, 16 urteko neska batentzat ez al da oso bizimodu gogorra?

J.- Bai, gogorra bada, eta izan da, orain arte. Bainanik kalean egon baino nahiago izan dut beti entrenatzera joatea. Eta aurten Eibarren bizi naizenez, erosoa goa zait ez ditudalako hainbeste autobus hartu behar eta hainbeste ordu errepidean galdu behar. Hala ere, bidaude une gogorak. Asteburueta ezin izaten dut etxera joan, entrenamenduak ditudalako edo txapelketan nagoelako, eta ezin dut gurasoekin eta lagunekin nahi bezainbat denbora igaro. Gurasoen falta nabaritzen dut, eta baita lagunena ere.

L.- Esan diguzu etxera oso gutxitan etortzen zarela. Etortzen zaren horietan izaten al duzu lagunekin egoteko modurik?

Bai. Azken urte hauetan zailago egiten ari zait beraiekin egotea, baina saiatzen naiz. Eta egoten naizen aldietan gogo gehiagorekin hartzen ditut. Haien falta nabaritzen dudanez, aurrean ditudanean gusturago egoten naiz.

L.- Jaione, zein da zure eguneroako bizimodua? Eguna nola duzu antolatua?

J.- Goizeko zazpi eta erdietan jaikitzen naiz; gosaldu eta klasera. Eskolan bertan

bizi naizenez, ez dut denbora asko behar klasera iristeko. Ordu bi eta erdiak arte ditugu klaseak. Ondoren, baziakaldi egiten dugu, eta, nahi izanez gero, pixka bat deskantsatu. Arratsaldeko lauretan kiroldiagian egon behar dugu, entrenamendua hasten delako. Zortziak arte aritzen gara entrenatzen, lau orduz gelditu gabe. Entrenamenduak ateria, eta ikastera edo etxeko lanak egitera. Afaldu, eta hamabiak aldera ohera. Horrela egunero. Asteburuak difereenteak dira, eskolarik ez dagoelako, baina, bai, ordea, entrenamenduak.

L.- Zenbatero etortzen zara Hernanira?

J.- Ez dago esaterik. Otsailean adibidez "banakakoak" egiten ari dira, eta, ni bakarrak entrenatzen ari naizenez, errazagoa zait nire ordutegiak egitea eta Hernanira joatea. Bainan "taldekakoak" datozenean zailagoa da, bost lagun garelako eta bosten ordutegiak koordinatzea zailago delako. Abuztuan oporrak ditut, kiroldiagia itxita egoten da-eta.

L.- Zenbat urte daramatzazu Sanjoanetara eterri gabe?

J.- Urtero joaten naiz, baina egun pasa. Etxera joan behar izaten dut, eta nire lagunak, berriz, kalean geratzen dira. Bainan kirol honek trukean ematen dizkit merezi duten gauzak, eta hori nahikoa da niretzat.

L.- Eibarren bakarrik sentitzen zarenean, norengana jotzen duzu?

J.- Gelakideengana. Hemengo lagunengana jotzen dut, eta, askotan, nahiz eta jakin oso txarra dela, niretzat gordetzen dut eta nik bakar bakarrik pasatzen dut.

L.- Psikologikoki prestaketa berezirik ba al duzue?

J.- Ez. Gure artean laguntzen diogu elkarri. Psikologikoki prestatuta egon behar duzu askotan, baina guk bakarrik egiten diegu aurre egoera horiei.



L.- Noiz arte irauten du Gimnasia Erritmiko Ligak?

J.- Martxoaren 23an hasi da Liga, eta Espainiako Txapelketa, berriz, Sanjoanak ondoren izango da. Udaberritik aurrera, orduan, gogor hasi behar dugu entrenamenduekin. Maiatzean erabakiko dute zer txapelketetan hartuko dudan parte. Jendeak jakin dezan, bi txapelketa mota daude: bakarka, lau tresnarekin, eta bikotearekin. Maiatzean jakingo dut zein txapelketetara joango naizen.

L.- Zuk, aukeran, zer nahiago duzu: taldeka edo bakarka aritu?

J.- Segun. Taldeko beste kideekin gehiago zaude, eta bakarka zure burua neurtzen duzu. Biak egitea komeni da, denboraldi

batean banaka eta bestean taldeka. Bere gauza ona eta txarrak ditu mota bakoitzak.

L.- Eta zer da zailagoa?

J.- Taldekoa, zalantzarak gabe. Koordinazioa oso importantea da. Bost lagun gara taldean, eta guztiak oso ondo koordinatua egon behar du.

L.- Mazak, zintak, pilota eta uztaietan erabiltzen dituzuen tresnak. Zein da gehien gustatzen zaizuna?

J.- Mazak. Akaso izango da denbora asko daramadalako tresna hori lantzen. Zintekin oso denbora gutxi daramat, eta, oraingoz, zailagoa egiten zait. Kontuan izan behar da sei metroko zinta dela, eta ez duela lurra ukitu behar. Gustatu, gustatzen zait, baina besteekin erosoa sentitzen zait.





Jaione bere taldekideekin batera podiumean zilarrezko domina irabazi zutenean

L.- Joan den abenduan Estatuan zilarrezko domina lortu zenuten IPURUA taldekoek. Lan asko egin behar izan zuten?

J.- Bai. Lan asko egin beharra dago. Lehenengo maila da, eta asko entrenatu behar da gauzak behar bezala ateratzeko. Guri dagokigunez, gainera, Eibarko jendeak irabaztea nahi zuen, azken bi urteetan irabazole izan baitira IPURUA taldekoak. Horrek presioa esan nahi du. Nahitaez irabazi behar genuen, eta lortu genuen, zilarra ekarri genuen etxera.


L.- Bost neskak osatzen duzue IPURUA taldea: Miriam Merino, Ylenia Lopez,

Leire Lasa, Lorea Palacios eta zu. Zer moduz konpontzen zarete?

J.- Ondo. Hiru urte dira elkar ezagutzen dugula, eta harremana ona da. Emaitzak dira harreman onik ez baduzu, nabaritu egiten da, gauzak ez baitira behar bezala ateratzen. Tarteka, eguneroko bizimoduan, izaten ditugu tirabirak, baina ondo konpontzen gara.

L.- Lehia handia al dago gimnasia erritmikoan?

J.- Gu boston artean ez, baina, oro har, mundu honetan, bai. Nik badakit zeintzuk diren nire mugak, ez dut ezinezkoa den ezer eskatuko. Gure artean badakigu bakoitza



noraino iristen den eta zer egiten duen ondo eta zer ez hain ondo.

L.- Euskadiko Selekzioarekin aritutakoa ere bazara. Zer moduzko selekzioa dugu?

J.- Ona, baina oso lagunza gutxi dago. Kirol hau ez dago oso ondo ikusia ez Espainian, ezta Euskalerrian ere. Ez da ezaguna, ez zaio behar duen garrantzirik ematen, eta apena dagoen laguntzarik.

L.- 1,65 metro neurten dituzu eta 55 kiloko pisua duzu; asko kontrolatzen al dizuete pisua?

J.- Bai, entrenatzailak kontrolatzen digu pisua; tarteka izaten da hori, baina hemen bakoitza da bere buruaren arduradun eta badaki zer jan dezaken eta zer ez. Niri asko

gustatzen zait jatea. Lehiaketak hastean, kontrola zorrotzagoa izaten da. Bainaz hemen bakoitzak badaki zer egin dezaken eta zer ez.

L.- 16 urte dituzu, zer adin arte egin dezakezu gimnasia erritmikoa?

J.- Batez besteko gehieneko adina 18-19 urtekoa da. Miriam Merinok, adibidez, 20 urterekin utzi zuen, baina hori berandu da. Almudena Cidek, Mundialtan dagoenak, 21-22 urte ditu. Bainaz bi kasu horiek bereziak dira.

L.- Zuri oraindik urte batzuk geratzen zaizkizu. Une honetan batxilergoa egiten ari zara, baina, gero, gimnasia erritmikoko lehiaketak uztean, zer egin nahi duzu?

J.- Ez dakit seguru. Bainaz gustatuko litzai-dake mundu honekin lotura duen zerbaitei



egitea. IVEF edo Irakasle Ikasketak baina kirol alorrean... hortik joko dut seguru asko.

L.- Inoiz pasatu al zaizu burutik Spainiako Selekziora iristea?

J.- Hori ametsa da. Oso gogorra da hor ari- tza. Niri dagokidanez, nik argi dut ezinezkoa dela. Errealista naiz, eta badakit ezin dudala. Ametsa bai, baina ez helburua.

L.- Zein da zure helburua gimnasia erritmikoan?

J.- Ahal dudan arte jarraitu eta hobetzen joan pixkanaka-pixkanaka. Nire buruarekin ondo sentitzea da helburu nagusia. Une batean egin ezin duzuna lanketaren bidez egiten lortzea. Pausoz pauso joatea eta egunen batean Jaione Tejedor esatean, jendeak nor den jakitea. Hori da helburu nagusia.



Jaione, gustuko daukan modalitatea, mazak



"JAIONE TEJEDOR esatean, jendeak nor den jakitea". Hori da 16 urte dituen gazte honen helburua. Nirekin, behintzat, lortu du; ez zait luzaroan ahaztuko bere izena.



Mikel Lertxundi Galiana

VISION ARTÍSTICA DE HERNANI EL LAVADERO DE HERNANI EN LA PINTURA: Regoyos, Arcos y Aguerregaray

Hernani fue un lugar por el que los pintores sintieron cierta predilección. Ya a principios del siglo XIX existe constancia del paso de artistas por la villa, aunque es quizá desde mediados de la centuria cuando su visita se hace más frecuente.

Los artistas que durante los siglos XIX y XX decidieron hacer de Hernani y sus gentes un motivo pictórico se fijaron en todo cuanto la villa podía ofrecerles. Si bien es cierto que predominan las panorámicas del pueblo dominado por la imponente masa de la iglesia parroquial y observado desde los más diversos puntos de vista, encontramos también obras que recogen sus barrios y caseríos. En otras ocasiones, los paisajes dan paso a imágenes del transcurrir cotidiano de la villa. Así, encontramos representaciones de un día festivo en la Plaza Mayor o en el Paseo de los

Tilos, y de ferias o mercados, que nos permiten evocar el Hernani del pasado.

Uno de los rincones que debió de tener un especial atractivo para los artistas de entresiglos fue el lavadero.

La hoy titulada *A la fuente*, de Darío de Regoyos¹, es la obra más temprana de las tres que conocemos, aunque debemos mencionar que todas fueron pintadas en un breve intervalo de años. La pintura del asturiano, datada en 1895, nos muestra con su suelta pincelada a una mujer que, con un cubo sobre la cabeza y bajo el cálido sol de la tarde, dirige sus pasos hacia un lavadero apenas reconocible en la actualidad.

Dos años después, en 1897, el pintor chileno Santiago Arcos -al que dediqué un artículo en el número anterior del anuario Hernani² debido al especial vínculo que le unió a la villa- presentó a la Exposición de Bellas Artes de San Juan de Luz dos obras relacionadas con Hernani³: por un lado, la conocida *Juego de pelota en Hernani* (Museo de San Telmo, San Sebastián), en la que despliega su minuciosa




Charles Aguerregaray. Hernani-Elizatxo (1905). Museo de San de Telmo.

la colada ya limpia se seca al sol en los pretiles cercanos.

Estas líneas se han ceñido a las representaciones pictóricas del lavadero en el periodo de entresiglos, pero, aunque no conocemos obras posteriores, puede decirse que durante

el siglo XX los artistas también posaron su mirada en las lavanderas que trabajaban en las riberas del Urumea. Es el caso del pintor, entonces avecindado en Hernani, César Hombrados Oñativia -hermano del conocido Gregorio Hombrados- que en 1942 ejecutó varias obras con esta temática.

-
1. Ha sido frecuente el error de creer que Darío de Regoyos vivió a finales del siglo XIX en Hernani, cuando en realidad estuvo domiciliado en la calle Hernani de San Sebastián.
 2. LERTXUNDI GALIANA, Mikel: "Santiago Arcos, un pintor chileno del siglo XIX en Hernani". Hernani. Hernani, 2002. pp. 103-105.
 3. Exposition des Beaux-Arts. Catalogue. Bayonne, 1897.
 4. Archivo del Museo de San Telmo, San Sebastián. C/ 12, E/ 1. Carta de Charles Aguerregaray a Pedro Manuel de Soraluce, director del Museo. Biarritz, 10 octubre de 1907.



Darío de Regoyos. A la fuente (1895). Colección particular.

técnica para retratar a la sociedad hernaniarra en un día festivo, y, por otro, Lavadero en Hernani, de la que tan sólo conocemos el título, pero que nos sirve para constatar su interés por el lugar.

De un momento cercano a las obras de Regoyos y Arcos es también Hernani-Elizatxo del pintor bayonés Charles Aguerregaray, ejecutada en 1905 y donada dos años después por el autor al todavía joven Museo Municipal de San Sebastián. En la carta que acompaña a la pintura, Aguerregaray, entonces

Secretario de la Societè des Amis des Arts de Bayonne-Biarritz, explicaba que se trataba de "un paisaje de Hernani País Vasco" y que por ese motivo podía "interesar a los vascos nuestros compatriotas"⁴

La obra nos muestra un rincón que prácticamente cien años después no ha alterado su fisonomía, si exceptuamos, claro está, la construcción de algún levante o la desaparición del matadero que se aprecia en la parte derecha del cuadro. En el lavadero, unas mujeres se afanan en lavar la ropa, mientras

Andoni Unanue Lekuona

HERNANIKO PRINTZAK HUMILDEGIKO GURUTZEAGA - CRUCERO DE HUMILLADERO



GURUTZEAGA
- UZTALEA / -
ELIRATXO

5/2001
ANDONI

LARRAMENDI HERNANIKOA, KARDABERAZ HERNANIARRAREN MAISU

Aita Manuel Larramendi 1690eko Eguberrieta jaio zen Andoainen, Garagorri baserrian. Handik urtebertera, San Martin egunean, Garagorri baseria errentan eman, eta familia Hernanira aldatu zen bizitza. Beraz, hamar hilabete eta egun batzuk besterik ez zituela ekarri zuten Aita Manuel Hernanira (“donde aprendió la escuela” diote paperek). Eta bertan urteak eman zituen bere osaba batek Bilbora eraman zuen arte. Gero, Bilbon hasi zituen jesuita ikasketak, eta jesuita egin eta gero ere, askotan azaltzen zaigu Hernanin, batez ere Ereñotzuko Beroitztarren sendiarekin harreman estuak zituelako, lehengusuak baitziren. Jesuiten katalogoetan urte askotan Hernaniensis (Hernanikoa) bezala azaltzen da; juxtu-juxtu hil aurreko azkenekoan bakarrik esaten zaigu non jaioa zen. Horregatik esan dezakegu andoaindarra zela, bai, baina baita Hernanikoa ere. Ez dut uste hau esateagatik andoaindarra haserretuko zaizkigunik. Larramendi Andoaini lotuta azalduko da beti, haiena izango da ospea, baina batak ez du bestea kentzen. Hernani ere harro senti daiteke Larramendirekin, eta konformatuko nintzateke Andoainen Larramendiri dioten miresmenaren laurdenaren laurdena bagenio Hernanin!

Aita andoaindarra zuen: Domingo Garagorri; ama, berriz, hernaniarra: Manuela Larramendi. Beraz, gaur jaio izan balitz, Manuel Garagorri Larramendi zatekeen gure protagonista. Bainan garai haietan abizenek ez zuten gaur duten finkotasunik, eta berak honela sinatzen zuen: Manuel de Larramendi; eta Aita Manuel Larramendi bezala egin zen ezaguna. "...dieron en llamarle Larramendi, del apellido de su madre, y con él continuó en la religión aunque con algún sentimiento de su parentela por línea paterna".

*Mr.
Manuel de Larramendi?*



Nolakoa izan zen Aita Larramendi? Ondo ezagutzen zuen garaiko jesuita batek honela esaten digu: "El padre Larramendi fue monstruo y hombre grande en cuerpo y alma...: gran estatura, gran aire, gran fuerza, gran proporción, gran despejo, vista, oído, lengua, voz, acción etc... todo grande. ... clavaba en las paredes y los corazones las sentencias y movía a lo que quería a los auditorios. Era el clarín del púlpito y de España. ... gran memoria, entendimiento grande, voluntad grande y buena, y alma y corazón vastos, serenos amplísimos. Parecía incapaz de perturbación y

ruindad alguna. Y era capaz de cautivar y arrestar a un gigante, o por bien mirando, o por mal, con un guijarro en la mano." Bestalde, ikasle eta irakasle bikaina izan omen zen. Bere irakasle izandako batek esan zuenez, Aita Manuel baino ikasle azkarragorik ez omen zuen inoiz ezagutu Unibertsitatean.

Izaera indartsua eta liluragarria zuen gizona izan zen. Jende xehearentzat gizon atsegina, eta beti laguntza emateko prest zegoen "Aita Manuel" izenaz ezagutzen zena; zenbait handikirentzat, aldiz, polemista beldurgarria zen; eta denentzat "bere garaiko erraldoia".

AITA MANUELEN FAMILIA

Aita Manuelen familiaz ez da denbora asko gauzak argitu direla. Hasieran, Tellechea historialariak, gure jesuitaren lan bikainak argitarra eman zituenean, Aita ManueLEN gurasoen bataio agiririk azaltzen ez zelako edo, Domingo Garagorrikin nahastu zen. Hau dela eta, liburu askotan familia honi buruzko gauza okerrik irakurriko dituzue. Gauza da Andoainen garai berean bi Domingo Garagorri izan zirela: bata gure jesuitaren aita, Garagorri baserrian jaioa eta bertara ezkondutakoa; eta bestea, aurreko baino zerbait gazteagoa, Sarmendi baserrira, Katalina Etxegoienekin ezkondu zena. Beraz, kontuz!

Domingo de garagorri


Aita: Domingo Garagorri

Domingo Garagorri 20 urterekin Ereñotzuko burdinolan ari zen lanean, Don Frantzisko Beroizen familiako burdinolan. Don Frantzisko hau ezkondu berria zen Margarita Larramendi-


rekin, eta Margarita Manuelaren ahizpa zen, handik bost urtera Domingorekin ezkondu zen jesuitaren amaren ahizpa, hain zuzen. Domingok, bada, Ereñotzun izan zuen Manuela eza-gutzeko aukera.

Domingok bazuen lehendik andregaia Andoainen, baina, hala ere, Hernanin alabatxo bat izan zuen Manuela Larramendirekin. Gero, Andoaingo andregaia utzi eta Manuelarekin ezkondu zen. Horregatik zioen Patxi Altunak:"Ezkondu zireneko ordea arin samar ibiliak ziren eta ez guztiz alfer egonak". Bai horixe, hala da, alabatxoa izan zutenean Domingo eta Manuela oraindik ezkontzeko baitzeuden.

Osaba: Dn Frantzisko Beroiz
(Margaritaren gizona)




1688. urtean ezkondu ziren. Hernaniko parrokian ezkondu ere, baina Andoaingo Garagorrin jarri ziren bizitzen, baserriko maiorazkoa bai-tzen Domingo. Han hiru urte gutxi gorabehera egin, baseria errentan jarri eta behin betiko Hernanira aldatu ziren bizitzen.



Izeba: Margarita Larramendi


Zazpi seme-alaba izan zituzten: bi Andoainen eta bost Hernanin. Horietatik heldutasunera bi bakarrik ailegatu ziren: Aita Manuel eta M^a Ignazia, bere arreba. M^a Ignazia hau ere

ezkondu aurretik arin samar ibilia zen: aurrena, Astigarragako palazioko nagusiarekin izan zituen erdi ezkutuko harremanak (Joxepa Marielusen etxeen ezagutu zuten elkar), baina mutil koskor bat jaio zen, eta orduan hasi ziren komeriak: bukatu ziren bai, ondo bukatu ere, bien arteko igurtzikeria xamurrak!; azkenean, M^a Ignazia hau Andoaingo batekin ezkondu zen Garagorrira.



Lehengusua: Dn Frantzisko Beroiz
(Margaritaren semea)

Larramendiren gurasoak Hernanin hil ziren. Gure protagonistak 10 urte zituen aita hil zi-tzaionean eta 32 ama hildakoan¹. Eta Hernanin non bizi ziren jakiteko datu segururik ez badugu ere, arrasto bat azaltzen da: aita hil eta handik hilabete batuetara familia Hernaniko kale Nagusian bizi zen, zein etxetan juxtu ez badakigu ere.



Osaba: Juan Zabalegi
(Zabalaga baserrikoa)

Ikusi dugu Aita ManueLEN izeba bat, MargariTA, Ereñotzuko Don Frantzisko BeroizeKIN ezkonduta zegoela; beste izeba bat ZabalagaRA ezkondu zen, gaur Chillida-leku den base-rrira. Bi osaba fraide ere izan zituen, eta hauetako batek asko lagundu zion familiarri,

familia larri samar ibili baitzen diru kontuetan. Izan ere, amaren aldetiko Aita Manuela aitona (Frantzisko Larramendi) eta amona (M^a Joan Barkaiztegi) hil zirenean, lurak, sagastiak eta lau etxe utzi bazituzten ere, zorrak handigoak ziren oraindik, eta ondorengoak ezer gabe geratu ziren. Etxe hauetako hiru Kardaberaz kalean zeuden eta bat ("Saranea") Zinkoenean, ospitale zaharraren aurrean, moja agustinetatik gertu. Frantzisko, aitona, negoziente samarra zen, olagizona, eta behin baino gehiagotan azaltzen zaigu Zabalagako bere suhiarekin burdinoletan negoziotan.

Aitona: Frantzisko Larramendi

Aita Manuelek izan zuen beraz txikitatik burdinolak ondo ezagutzea aukera. Hernaniko aingura fabrika zela-eta harreman estuak izan zituen Espainiako Ensenada ministroarekin, eta hau harrituta zegoen Larramendik burdinoletako martxaz zekienarekin. Hala dio Larramendik liburu batean: "Alégrase Ensenada, y me pregunta donde habia aprendido aquella facultad. Díjele que unos bárbaros con seis dedos de corteza en el entendimiento aprendían la facultad, y no era mucho que la supiese yo, que no tengo tanta corteza. Envíeme V. Ex.^a dos brazos fuertes y le haré cuantas anclas quisiere ...".

LARRAMENDIREN IZAERA BERE TESTU BATZUETAN

Ikusi dugu lehen jesuita batek egiten zion erretratua; ikus dezagun, orain, bere lanetatik ateratzen den bigarrena. Pena da baina hone-

lako artikulutxo batean ezin da gauza askorik jarri. Horregatik, Aita Manuela zertzelada batzuk bakarrik jarriko ditut, erakusgarri gisa, bere izaera ezagutzeko.

Euskararen maitale eta defendatzaile sustsuia. Hara pasarte bat: "... el Bascuence es lengua lenisima, y suavisima ... : su general pronunciación muy dulce, y graciosa, con un ceceo natural, sin la aspereza que en el Castellano, y sin lo femenil del seseo".

Eta beste hau: "El Bascuence es deleitable por la variedad hermosa de los Dialectos. No es tal, dirán algunos, sino muy enojoso, y desabrido por la mucha confusión de sus dialectos ... Pero los que tal dixeren, no saben de musica, ni cómo de la variedad de tonos resulta una harmonía consonantisima, y agradable ... no saben de jardines ... y preferirán-les una huerta de ajos, puerros, berzas y perexiles".

Lan erraldoia egin zuen euskararengatik, batez ere El imposible vencido eta Diccionario Trilingüe lanak. Mariana idazle jesuitak euskarrari egin zion irainetik ("rudem et barbarem lingam, culturam abhorrentem" - hizkuntza basatia eta barbaroa, kulturaren gaitzeslea) Larramendik biziki defendituko du: euskara munduan den hizkuntzarik hoherena eta bikainen dela esango du; eta, dudarik gera ez dadin, aingeruen ahotan jarriko du euskara: "Señores, si los theólogos y otros supiéradess el bascuenze, concluiríades al instante: que el bascuenze es la locución angélica, y que para hablar a los ángeles en su lengua es necesario hablarles en bascuenze".

Diferentzia ederreko aingeruak Larramendirenak eta beste idazle euskaldun batenak: Orixerenak hain zuzen ere. Honek bere liburu batean dio behin gaiztoz eta lotsagabeki hau aurpegiratu ziotela: Paradisuan sugeak Evari, sagarrarekin engainatu zuenean, euskaraz hitz

EL IMPOSSIBLE VENCIDO.

ARTE

DE LA LENGUA

BASCONGADA.

SU AUTHOR

EL P. MANUEL DE LARRAMENDI
de la Compañía de Jesús, Maestro
de Teología de su Real Colegio
de Salamanca.

Larramendiren "El imposible vencido"

libururen azala

egin ziola. Beraz, Larramendiren aingeruak zerutiarak diren bitartean, infernukoak ditugu Orixerenak. Honek euskarari buruz entzun zuena gure Aita Manuelek aditu izan balu, zer ez ote zukeen esango! Agudo isilarazi zukeen, bai, Orixeri hori esan zion lotsagabea!

Polemista eta ziri sartzaile. Ze... Larramendi polemista beldurgarria eta ziri sartzaile abila baitzen, Koldo Mitxelenak ongi dioenez. Hara, esandakoaren adibide, zer dioen Larramendiri buruz beste linguista famatu batek ere. Hau dio Tovar-ek: "... en las consideraciones que dedica Mayans [garai hartako beste lingüista bat] al vasco en su estudio de la formación del castellano, es innegable el tono polémico contra Larramendi". "La medida y discreción de Mayans en su crítica le impidieron enfrentarse directamente con el P. Larramendi. ... Tal vez temió la agresividad polémica del jesuita, pero ésta terminó por volcarse sobre él". Hala da, Larramendi ez zen isildu eta Mayans-i esan zion euskara ez zela usteldu edo nahasi Baberetik hasi eta gaurdaino. Euskarazko esaldi hau ematen dio adarra jotzeko, baina hitz solteak balira bezala jarrita, eta erronka hau botatzen dio: esplika diezaiola zein beste hizkuntzatik datozen hitz hauek:

Txori-buru, putztua,
Ero, garbi, buztan, latz,
Nondik, hiri, zikiñ, orri,
Bekaitz, aldia, eldu, zak?
Eztek, berdiñ, igerriko,
Hitz, oyetan, zer, datzan.

Euskarari buruz ontzat ematen zirenak.

"... el bascuence, inaccesible a la novedad y alteración, y libre de impresiones bastardas, ha conservado tan intacta su antigua pureza y hermosura, que si el primer poblador de España, sea Tubal o sea Tarsis, oyera hoy hablar a los guipuzcoanos, los entendería sin diccionario y sin intérprete, a menos que hubiere olvidado su propia lengua".

Babeleko hizkuntzen nahasketaz ere Larramendik beste autore batzuengandik iritzi hau jaso eta onartu zuen: "... la lengua de Adán, y de los demás hasta el Diluvio, y la confusión de Babel, fue una lengua tan abundante en synonimos que tenia setenta y dos para explicar un mismo objeto: y que la confusión que Dios causó, consistió en que restringió aquellos synonimos, dexando a cada familia solo uno de los que antes sabía, y assi quedaron divididas las setenta y dos lenguas." Hauetako bat euskara izan omen zen.

Hitzen sorrerak bilatzerakoan ere ez zen kikiltzen: edozein hizkuntzatako edozein hitzi segituan aurkituko zion euskaratik sorrera. Esate baterako: gaztelaniazko erótico - erótica hitzak euskaratik omen dator. Hitz hauek maitasuna eta maiteminduarekin zerikusia omen dute; eta honelako ondorioa ateratzen du: maiteminduta dagoena "erotuta" dago. Ez omen da, beraz, harritzeko, "ero"tik erótica sortzea.

Gipuzkoako emakumeen edertasuna.

"Las mujeres en Guipúzcoa son las más hermosas que hay en toda España; de bellísimo color, bien apuestas, rollizas, fuertes, agiles y sanas ... trabajan sin melindres y afectadas delicadezas ... No se espantan, sino que



antes están con mucho gusto mirando los alardes viendo disparar arcabuces y fusiles, notando y haciendo burla de cuantos los manejan mal. Reciben, miran y tratan a los soldados ... con gran frescura y serenidad; y con la misma sacuden la bofetada al soldado insolente que se atreve a amagar alguna indecencia ... Andan por los caminos y montes de un lugar a otro ... sin temor de ladrones ni de otros pícaros malhechores, y sirve de mucha admiración a los castellanos".

Ez ditu gaizki jartzen, ez alajaina, emakumeak; baina herritako "señorita" batzuk kanpoko moda berriak sartzen hasi omen dira, eta aurrerantzean emakumeak kristalezkoak bihurtuko ote diren beldur da.

Handikiekin ausarta. Mariana Neoburgo, Espainiako erregina izana (Karlos II.aren alarguna), erretiratuta bizi zen Baionan. Larra-mendi zuen konfesore. Mariana honen iloba, Felipe V.a alegia, zen orduan Espainiako errege, eta Isabel Farnesiorekin zegoen ezkondu-ta. Erregearen gortean (garai hartan Sevillan) Marianaren kontrako zurrumurruak zabalduziren, eta nahasle eta xaxatzaire handiena Isabel Farnesio bera omen zen. Laramendik, Marianaren nahigabea ikusirik, gortera joan zen Felipe V. arekin hitz egitera gauzak argitzeko asmoz. Isabelek orduan, beldurturik, ahalegin guztiak egin zituen Laramendiri oztopoak jartzeko, eta zurikeriaz limurtu nahi izan zuen. Hara nola kontatzen digun Aita Manue-lek berak Isabelekin gertatu zitzzion pasadizo bat.

Espainian Parisko enbaxadore zenak Larra-mendiri esan zion erreginak, Isabel Farnesiok alegia, ezagutu nahi zuela eta "... convino [Isabel con el Embajador] en que me daría a besar la mano en el tocador, así como por casualidad y en secreto. Admitióle el Embaja-dor, sin saber de mi talante. Víname a hablar del caso, como que había logrado una gran

cosa. Pero yo, echando por delante ciertas previas sonrisitas y fruncimientos, le dije: '¿En el tocador, Señor Conde? Buena ocasión, por cierto y sitio oportuno para hablar de negocios'. 'No, me replicó él, no tiene U. que hablar cosa alguna, sino besar la mano de Su Majestad y salirse luego'. Formalicéme y dije: 'No soy venido a la Corte a entender en impertinencias y vanas complacencias y disimulos. La Reina sabe a lo que he venido, y para su expediente nada hace al caso ni el tocador ni el favor de darme a besar su mano, y así no entraré jamás en eso. Y si V.E. ha de dar cuenta de mi respuesta, puede darla diciendo dos cosas: 1^a, que no soy venido a Sevilla a tratar impertinencias y a pasar el tiempo en balde. La 2^a, que, en lo demás de besarle la mano, estoy acostumbrado a besar mano más blanca que la suya'. Levántase el Conde y me abraza, pidiéndome que le repita esto último. Repetíselo francamente y se lo expliqué sin frenillo en la lengua ...".

Isabel de Farnesio



Politikan aitzindari. Politikari ere liburu oso bat eskaini zion. Eta liburu honetan, halako batean, Gipuzkoako Batzar Nagusi hipotetiko batean erabaki beharreko arazo bat plazartzen du. Eman dezagun, dio, España gaizki portatu dela Euskal Herriarekin. Gauzak horrela, zer egin beharko genuke euskaldunok? Erantzuna, badezpada ere bere burua babestuz, ia burutik joana zegoen agure zahar baten ahotan jartzen du: "Tocó su vez de hablar a un caballero anciano que ... en su ancianidad no tenía otra ocupación que la de ... estar ... babeando consejos ... y sabían todos al mismo tiempo que era de los que no saben siquiera poner paz entre las 'nesca- mes' de su casa". Eta honela hitz egin omen zuen: "... ¿por qué el bascuence ... no ha de ver a todos sus bascongados juntos y unidos en una sola nación libre y exenta de otra lengua y nación? ¿Por qué tres Provincias en España (y no hablo ya del reino de Navarra) han de estar dependientes de Castilla: Guipúzcoa, Alaba y Bizcaya, y otras tres dependientes de Francia: Labort, Zuberoa y Baja Navarra?" Eta euskal nazio bat egitearen aldeko proposamenarekin bukatu omen zuen agure txotxoloak.

Jasan behar izan zituen nahigabeak. Ikus-ten dugu, bada, bere idazkietatik ateratzen zaigun Aita Manuela bigarren erretratua. Azaldu dugu lehen jesuita batek atera ziona, eta ezin hobea da. Baina ez dirudi denek argazki makina berdina zutenik. Inbidiak leku guztietai egiten du bere habia eta jesuiten artean ere ez ziren denak santu.

Bere idatziak, euskararekikoak salbu, orain dira ezagunak; baina garai hartan, beldurrez edo, jesuitek ezkutatu egin zituzten argitara eman gabe. Hori guztia isilik sufritu zuen Larramendik, eta ez zen behin ere kexatua. Hala ere, ez da hau jesuitekin izan zuen sufrimendu bakarra, izan zituen beste atsekabe batzuk ere. Erreginaren konfesore iza-

teari utzi zionean, adibidez, mundu honetako handikien petralkeriekin eta amets ustelekin etsita, Loiolarako destinoa eskatu zuen eta, lortu ere, lortu egin zuen erreginaren bitarte-kotzaz, baina jesuiten nahiaren kontra, hauek Unibertsitatera bidali nahi baitzuten irakasle. Hara nola kontatzen duen: “Siete meses me detuvieron en San Sebastián, sin oficio ni beneficio, con el pensamiento de llevarme a Salamanca, hasta que escribí a nuestro Padre lo que pasaba; y entonces me dejaron ir a Loyola, diciéndome el provincial Prado: ‘¿Soledad quieres? Pues soledad tendrás’. Y entendí toda su energía y significación, y he visto sosegadamente su práctica. Cuando salté a Bayona, me tuvieron por perdido, midiendome por su haraganería, que tanto ha cundido, y por su cortísimo espíritu para especies grandes y de honra”.

Loiolan eman zituen urteetan (bere bizitzaren azken 30 bat urte) etengabe ateratzen zen herrietara, jendeak hala eskatuta, zenbait istilu konpontzera eta korapilo asko askatzera. Eta gauza da batzuek “fraide eta festazole” izatea leporatu ziotela. Hori zela-eta, bere autodefentsa luze bat idatzi zuen, bere bizitzan egindako ekintzen berri emanet. Liburu honen hasieratik irakasle eta predikatzaile izan zen garaiko zatitxo hau aukeratu dut: “... a cuantas partes iba apredicar, allá iban a cirme cuantos podían, de todas clases; y no dirán que les predicaba flores. Todo es así, pero ni importa nada: es perro que rabió y ha de ser perro que rabia. Sería nunca acabar detenerme en lances particulares, que demuestran que no era lo “fraile” ni lo “amigo de fiestas” lo que estimaban en mí”.

Bere liburuetako pasarte hauekin bukatu beharra daukagu. Nahikoa izango da, noski, Larramendiren izaeraren bigarren argazkitxo bat ateratzeko. Goazen, bada, beste puntu batera.

KARDABERAZEKIN IZANDAKO HARREMANAK

Larramendi Kardaberaz baino 13 urte zaharra-goa zen, eta Agustinek Teologiako irakasle izan zuen Aita Manuel. Loiolan ere egin zituzten urte batzuk elkarrekin. Bestalde, jesuitak idazten zituzten liburu guztiak Larramendiren eskutatik pasatzen ziren argitaratu aurretik, bere iritzia eta argitaratzeko baimena eman zezan: garai bateko Nihil obstat (Ez dago inolako eragozpenik). Eta, nola ez, Kardaberaren liburuak ere bere begi zorrotzetik pasa ziren.

Ez luzatzearen, Kardaberaren liburu baten zentsura aipatuko dugu, Tellechea historialaria-ri jarraituz. Testu hauetan bi jesuiten izaera elkarren oso desberdina zela ispilatzen da: Larramendi oldartsu eta gogor samarra azaltzen bazaigu, Kardaberaz bihotz finekoa eta apala zela ikusten da, baina, aldi berean, bere iritziari tinko eusten zekiena.

Liburua hau epaitzerakoan Larramendi ez da sartuko ia idazkiaren forman, hau da, euskara kontuetan, Kardaberazek espero zuen bezala. Aitzitik, mamiarekin sartuko da bete-betean, eta ez nolanahi gainera. Liburutxoaren ideia piadosoei astindu ederra eman zien! Larramendi Kardaberaz baino arrazionalagoa zen eta ez hain piadosoa. Baieztagenetan zorroztasuna eskatzen dio, eta gai historiko eta teologikoetan seriotasuna. Bere estilo zuzen eta gordin horretan bere ikasle eta miresle zen Kardaberazi honelakoak esaten dizkio: “Mal dicho, es falso, devociones mal fundadas” eta abar. Larramendirengandik espero ez zuen zentsura honi erantzun beharrean aurkitu zen Kardaberaz, eta hor ikusten da Larramendiri zion errespetua.

Euskara kontuan eginiko zuzenketak onartuko egingo ditu banan-banan (Hona hemen, adibide moduan, Larramendik egin zion oharretako bat: “No se diga ‘Jangoicoa’, sino ‘Jaungoi-

'coa', porque Dios no es 'jana', ez goicoa ez becoa"). Honela dio apal Kardaberazek: "Pido perdón y tengo voluntad de enmendarme. Mas no prometo el acierto, por falta de conocimiento práctico y a lo menos actual advertencia. Son muy pocos los que con rigor saben el bascuence con toda su estensión en nombres, verbos y la rarísima armonía de sus conjugaciones; ni soy de estos pocos, y acaso será Vuestra Reverencia solo y no ay más. Si con reñirme más y más de gana, pudiera Vuestra Reverencia infundirme o meterme en esta mala y dolorida cabeza parte de su noticia y conocimiento de todo el bascuence, me haría un favor inestimable. ¡Válgate Dios por Maestro! Ya preguntaré algunas dudas sobre los artículos con varios nombres". Bainax, ziritxo hau sartuz bukatuko du: "Vuestra Reverencia que ha escrito a la maravilla y tantos libros sobre el bascuence o del bascuence, ni uno ha escrito en bascuence. ¡Ojalá hubiera escrito muchos y muchos sermones y aun más doctrina! Nos hubiera hecho a todos otro favor mayor y nos hubiera enseñado practicamente a hablar, escribir etc."

Euskara kontuekin honela bukatuta, gaiari edo liburuaren mamiari buruz egin dizkion oharrekin jarraitzen du Kardaberazek. Eta gai honetan, euskara kontuetan ez bezala, Larramendirekin buruz buruko lehia mantentzeko indarrarekin sentitzen da. Amore emango du batzuetan, baina gehientsuenetan irmo jarraitzen du esandakoarekin, arrazoitz eta erabili dituen autoreetan babestuz. Behin baino gehiagotan ematen duen argumentua Larramendirekiko akusazio ere bihurtzen da. Akusazio leuna, hori bai, Kardaberaz gizon apala eta eraman onekoa dela erakutsiz. Bainax, esaten duenez, Larramendiren hitzak ez dira gogorrak harentzat bakarrik, baita erabili dituen maisu eta santuentzat ere. Kasuren batean Ebanjelioarekin tentu handiagoa izateko eskatuko dio, gainera.

Bukaerako esaldiak erakusten digu, beharbada, Larramendik bere bizitzan hartu zuen ikasbiderik finenetarikoa. Honela dio Kardaberazek: "Parcat tibi Deus, Pater, [Jainkoak barka diezazula, Aita,] el trabajo ímprobo o tormento que ha dado a mi quebrantada cabeza en obligarme a juntar tantos testimonios y citas de autores que yo tenía sin orden en mis papeles, procediendo de buena fe. Humíllese Vuestra Reverencia coram Deo [Jainkoaren aurrean]. Y si quiere saber más y mejor, ¿quién lo dice?, etc., vaya a los santos, al cielo, y se lo dirán. Bien puede Vuestra Reverencia pedir perdón a los santos que cito y sobre todo a S. Josef: yo ruego al santo le perdone todo, y por el santo ruego a Vuestra Reverencia que si per possibile [kasualitatez], etc., alguno se anima a escribir en nuestro dichoso bascuence, no trate Vuestra Reverencia a quien bien quiere, como me trata a mí: porque, en vez de aleitarle, le aterrará y le retrairá del trabajo, que es bien grande, e impedirá el bien de las almas. Ay otros modos de enseñar al que no sabe: el espíritu de Jesuchristo es de moderación y dulzura, y sin ésta, tarde, mal o nunca se tendrá el espíritu de Jesus, que dice Discite a me, quia mitis sum et humilis corde (Ikas ezazue nigandik, otzana eta bihotz apalekoa naiz eta). Los muchos y grandes defectos de mi trabajo se pueden remediar; ya que Vuestra Reverencia es más Maestro, tanto más suave debe ser según el Apostol, Vos, qui spirituales estis, hujusmodi instruite in spiritu lenitatis, Gal. 6. [Zuek, espiritualak zaretenok, era honetan irakats ezazue otzantasunaren espirituarekin] Después de tantas razones y autoridades de santos tan convincentes de casi todo lo que dije, si con todo y sobre todas ellas gustase Vuestra Reverencia borrar lo que quisiere o que yo lo borre, lo haré con gusto por dárse-lo: pues, como yo logre el fin de sacar algún bien de las almas, nada se me da que sea por este camino u otro, por este medio u otro."

Handik urte gutxitara, 1766ko urtarilean, hil zen Loiolan Aita Larramendi. Ordu haietan Kardaberaz, ongi hiltzeko Manualaren egilea, Larramendiren oheburuan egon zen Aita Men-dizabalekin batera. Pentsatzekoa da Kardabe-razen jainkozaletasuna eta samurtasunā ado-retsu izan zirela Larramendirentzat azken une latz haietan.

Buka dezadan. Gure Larramendi handiaren erretratutxo bat ematen saiatu naiz. Larra-mendik hainbeste maite zuen Hernani hone-tan norbaiti piztuko al zaio bere lanak irakur-tzeko irrika! Agur. Amai dezagun Iztueta zaldibitar famatuak eskaini zizkion hitz haue-kin:

Ay gure biotzeko
Aita Larramendi!
Bost eguiya esan da
juan ziñan emendik.

1. Artikulu hau idazten ari nintzela, interneten Euskonewsen orrialdean sartu nintzen eta hau jartzen zuen oraindik Larramendiri buruz. "Hiru urte zituela ama hil zitzaion eta aita bigarren aldiz ezkondu zen". Kontuz!



BURUTU EZ ZIREN PROIEKTUAK ANTEPROYECTO DE CEMENTERIO EN HERNANI¹

El Consistorio hernaniarra ve hacia los años 70, la necesidad de construir un nuevo cementerio para la población de Hernani y su barrio de Lasarte ya que "... se encuentran prácticamente colapsados, al haber sido alcanzado y rodeado por el desarrollo urbanístico de la villa y siendo su extensión insuficiente para satisfacer las necesidades.

Ante esta situación la corporación municipal de Hernani se ha propuesto la construcción

de un cementerio de nueva planta que centralice el servicio de enterramiento de todo el término ...".

Para su ubicación se propuso "... como lugar de emplazamiento del nuevo cementerio ... la ladera del monte Santa Bárbara ... " un "... terreno situado en el trayecto del camino llamado de Zabaleta que enlaza Hernani y Lasarte, concretamente una vaguada próxima a la carretera del Circuito ...".



Los arquitectos Luis Ulacia y José A. Pizarro redactan en 1975 un anteproyecto verdaderamente revolucionario, "... cuya edificación podrá desarrollarse paulatinamente en 19 años, desde 1975 hasta 1994, ...".

"... una plataforma horizontal, completamente despejada de 70 x 70 metros, rodeada en dos lados por un edificio porticado que alberga la capilla y todos los servicios del conjunto.


La plataforma, se configura rellenando la vaguada por tierras sostenidas por un muro de contención escalonado formado por el apilamiento de nichos. Mediante galerías a

diferentes alturas se accede a cada nivel de nichos.


... y ... están previstos enterramientos por inhumación para pequeñas comunidades no católicas. ...


La construcción del edificio podrá realizarse por fases tantas como galerías estando prevista su total terminación en un plazo de 19 años. ..."

Finalmente no llega a llevarse a efecto, al optarse definitivamente por la ampliación del hasta entonces existente cementerio (construido hacia 1915) y que con las sucesivamente realizadas perdura en la actualidad.



1. Archivo Municipal de Hernani; 1053/1





ANTEPROYECTO DE CEMENTERIO	
JUNIO 1975	
Pr. n° 154	HERNANI
PROMOTOR	EXMO. AYTO. DE HERNANI
ARQUITECTOS	LUIS ULACIA JOSE PIZARRO
Escala 1:250	ALZADO - SECCION NORTE
Raúl M. A. Rafael A. Santos F.	El promotor
ESTUDIO PROYECTO DIBUJO DIBUJADO	Sello del Colegio de Arquitectos
13	COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS V.A.C. AÑO 1975 LOS ARQUITECTOS Hernani 26 JUN 1975 <i>Julián Hernani</i>



José Mari Martínez Mata

HERNANI CONVIVE CON LAS INUNDACIONES

Las inundaciones son el fenómeno natural que más daños provoca en Euskal Herria, por delante de terremotos, temporales, vendavales, mareas o galernas (una de enormes proporciones provocó 150 muertos en Bermeo hacia 1920). Hay varias razones que explican esta incidencia. Algunas están relacionadas con la propia orografía del país, pero otras son la herencia de actuaciones del hombre a lo largo de los años, especialmente desde el inicio del proceso de industrialización en el siglo XIX. Hernani reúne las condiciones para padecer inundaciones y convive desde hace siglos con los desbordamientos del Urumea y otros riachuelos.

La orografía de Euskal Herria, sobre todo la de Gipuzkoa y Bizkaia favorece la rápida concentración de las aguas de escorrentía en los valles cuando se producen lluvias torrenciales. En ocasiones, esa súbita concentración de agua en una zona puede provocar serias inundaciones, aunque la lluvia caída por metro cuadrado en el conjunto de una comarca o provincia no sea razón suficiente para justificarlas.

Algunos datos estadísticos relativos al final del siglo XIX y a la primera mitad del XX ponen en evidencia que no siempre una fuerte cantidad de lluvia genera inundaciones. Así el periodo que va de 1891 a 1894, el de 1900 a 1905 y el de 1945 a 1950 fueron de elevadas precipitaciones pero escaso número de episodios catastróficos. Todo lo contrario que en el periodo de 1923 a 1930.

Si nos fijamos en los meses en los que se producen más inundaciones se ve que son los que van del final de la primavera (junio) hasta septiembre. Las lluvias en esa época anual tienen un mayor carácter torrencial, o más propicio para la aparición de inundaciones por la dificultad de dar salida a miles de litros de agua.

Pero junto al agua de lluvia hay otras razones que explican la existencia de inundaciones y están relacionadas con la actuación del hombre a lo largo de los años. Las vegas o llanuras de inundación, como técnicamente se conocen, son zonas actualmente ya casi inexistentes por su ocupación urbana e industrial. Donde antes había zonas de cultivo, cosechas o arbolado, en definitiva áreas de expansión de los ríos, ahora hay edificios de viviendas o polígonos industriales.

Los encauzamientos de los ríos o la eliminación de meandros son actuaciones que pueden favorecer a determinadas zonas, pero

perjudicar a otras, porque, en definitiva, llega un momento que el agua no se deja domar y desborda por donde puede.

De todos es conocido que el Urumea era navegable hasta Hernani. Este río, tras nacer cerca del alto de Ezkurra, atraviesa Goizueta y serpentea por un angosto valle, recogiendo aguas de las laderas de los montes (Bianditz, Urdaburu y Adarra, entre otros) y de numerosos riachuelos. En buena parte de su recorrido el agua desciende con relativa fuerza debido al desnivel orográfico, pero cuando llega a Fagollaga el río alcanza al valle donde se asienta Hernani y se desliza más lentamente. Se produce un remanso natural. Fagollaga es precisamente uno de los puntos negros de inundaciones.

Hace muchos años, desde la donostiarra barra de la Zurriola y el desaparecido puerto de Santa Catalina, barcos de pequeño calado, txanelas y gabarras ascendían río arriba por Loyola, Astigarraga y Ergobia hasta llegar al Puerto hernaniarra. Instalación portuaria a la que ya se refería el historiador Lope Martínez de Isasti en 1625, aunque antes, en 1562, una gran riada había afectado seriamente los terrenos del Puerto, unas instalaciones, como se ve, que venían de antiguo y se prolongaron durante siglos.

Este puerto contaba con embarcaderos, al parecer cerca del caserío Egaña, y una casa-lonja para las transacciones, edificio que, remozado, aún existe en el barrio del Puerto. Sin embargo, llama la atención que las dos edificaciones citadas se encuentren lejos del actual cauce del río lo que lleva a pensar que el curso del Urumea conoció una importante modificación hace muchos años. Nos encontramos, por tanto, con una actuación del hombre sobre el cauce natural del río. No fue probablemente la primera, pero desde luego no es la última.




Imagen de Karabel tras el desbordamiento del río Urumea, tras las inundaciones de diciembre de 1960
(Fotografía: Udal Artxiboa)

La vega o rivera del Urumea en el amplio valle donde se asienta el núcleo de Hernani ha conocido no pocas modificaciones a lo largo de los años. Entre ellas, la instalación de numerosas industrias que aprovechaban el agua del Urumea en su ciclo productivo y vertían sus residuos contaminantes al río. Esa colonización de sus márgenes fue quitando espacio a la expansión de las aguas, convirtiéndose en una de las principales razones de la existencia de inundaciones. No hay más que repasar los asentamientos industriales aguas abajo de Fagollaga (Epele, Lastaola, Ibarluze, Ezia, Zikuñaga, Karabel o Landare) en el término municipal hernaniarra.

Ese fenómeno de la colonización de los terrenos de expansión del Urumea se da, asimis-

mo, en Astigarraga, Martutene, Loiola y Amara, zona paradigmática en este aspecto y que prácticamente hasta mediados del XIX era un humedal con escasos asentamientos urbanos.

Los puentes que se construyeron para vadear el Urumea se han convertido a la postre en otra de las razones que han propiciado o favorecido algunas inundaciones por el efecto de presa que realizan. Esos puentes, su destrucción o reconstrucción, aportan datos de riadas importantes. Inicialmente se construyeron en madera por lo que varias riadas se los llevaron por delante. Así sabemos que el de Ergobia se vino abajo en 1569 y el que hoy conocemos de piedra fue construido entre 1729 y 1733. El de Karabel, construido en madera en 1558, fue destruido por varias ria-

das, una de ellas en 1636 y rehecho en piedra en 1805, mientras el de Ereñotzu conoció serios daños provocados por el río, que generaron no pocos litigios ya en el siglo XVI por la responsabilidad de su reconstrucción.

RIADAS DEL SIGLO

Hernani convive con los desbordamientos del Urumea, sobre todo, y de otros riachuelos. Raro es el año en el que no ha habido riadas que han afectado en mayor o menor medida a propiedades públicas y privadas. Lógicamente, las catástrofes más recordadas y de las que más datos se dispone son las más próximas en el tiempo. Archivos y hemerotecas aportan información de los episodios más significativos.

El Archivo Municipal de Hernani alberga algunos datos de una riada de la primera quincena de junio de 1895, con la relación de afectados -en su mayoría agricultores de las zonas de Puerto, Karabel y Martindegui- que evaluaban sus pérdidas por la destrucción de las cosechas de maíz, trigo, pipirigallo, patatas, habas, remolacha, todo tipo de hortalizas, árboles manzanos arrancados, olmos, castaños de indias, tilos etc.

Cuatro años antes, en 1891, varias zonas del Estado Español (Toledo, Almería, Valencia,...) se vieron afectadas por fuertes inundaciones y Hernani recaudó 822,95 pesetas de las de entonces entre la población para ayudar a los damnificados. La lista de donantes la encabezó el Ayuntamiento con 200 pesetas seguido por una veintena de particulares, los más pudientes, con 10 pesetas cada uno, entre ellos el párroco y el vicario de las monjas. En total dos centenares de personas aportaron su ayuda. Hay que recordar que hacía pocos años que había finalizado la segunda guerra carlista y nuestro pueblo había adquirido gran

relevancia por el sitio que las tropas carlistas ejercieron sobre la población gobernada por los liberales. Se mantenían, por tanto, corrientes de solidaridad.

En ocasiones, las lluvias torrenciales han tenido un carácter local, afectando a áreas muy concretas, mientras que otras han repercutido sobre el conjunto del país adquiriendo categoría de grandes catástrofes. En el siglo XX, fueron notables las inundaciones de 1933. Pero la primera gran tragedia tuvo lugar en 1953. Las inundaciones comenzaron el 14 de octubre y las lluvias duraron 48 horas. El saldo de víctimas mortales en Euskal Herria fue de 27 personas, entre ellas dos hernaniarras que perecieron al arrastrar las aguas del río Urola un autobús en Zestoa. Las pérdidas materiales alcanzaron los 1.000 millones de pesetas en el conjunto del país. En Hernani se desbordaron el Urumea, Oria y regata Latsunbe, afectando a 350 hectáreas y 44 edificios. Se vieron seriamente afectadas, entre otras, la carretera a Nafarroa, el camino rural de Urmendi, líneas eléctricas, la Casa Concejal, Escuelas, Matadero y Servicio de agua de Lasarte, entonces un barrio de Hernani. Se realizaron veinticinco partes de declaración de daños sufridos en bienes no asegurados. Una de las empresas más afectadas fue la Harinera Guipuzcoana S.A. de la Florida que tardaría poco tiempo en desaparecer. En Andoain se recogieron en pocas horas 230 litros por metro cuadrado. En el ferrocarril del Plazaola que unía Donostia con Iruña a través del valle del Leizaran, muchos puentes, terraplenes y muros de contención quedaron arrasados.

VEINTE AÑOS

La mayor catástrofe del siglo pasado ocurrió en 1983. Las sucesivas trombas de agua registradas, sobre todo, los días 26 y 27 de

agosto originaron las más graves inundaciones que se recuerdan en Euskal Herria con un trágico balance de setenta muertos, la mayoría en

Bizkaia, y medio billón de pesetas en pérdidas materiales. Todos los municipios de Gipuzkoa (82) y Bizkaia (101), junto a 16 de Araba y

38 de Nafarroa fueron declarados zona catástrofica por el gobierno central. En Iparralde también hubo daños materiales y víctimas mortales. Bizkaia fue el herrialde más afectado, especialmente las cuencas de los ríos Nervión e Ibaizabal. La capital, Bilbo, que celebraba su Semana Grande, vio como 700.000 metros cúbicos de lodo, piedras y



Estado en que quedó el casco viejo bilbaíno tras las inundaciones de finales de agosto de 1983

(Fotografía: DV 31-VIII-1983)

desperdicios arrastradas por la fuerza de las aguas arrasaban cuanto encontraban a su paso y se depositaban en su ría. Sólo en Bilbo hubo 417 viviendas destruidas y 6.000 afectadas. En la Comunidad Autonómica Vasca los daños en la agricultura ascendieron a 9.500 millones de pesetas, hubo 8.000 comercios afectados, con pérdidas en este sector que rondaron los 50.000 millones, y 100.000 trabajadores vieron sus contratos laborales rescindidos temporalmente.

Pero la capital vizcaína ha conocido otras tragedias. Así se sabe que el 21 de septiembre de 1593 diluyó sobre Bilbo y sus habitantes abandonaron la población, entonces circunscrita al actual Casco Viejo, subiendo a Begoña en busca de protección. Barcos y galeones rompieron amarras y navegaron por las calles del citado casco urbano. Entonces había arenales, de ahí viene el nombre de tan señalado lugar bilbaíno. Ante la frecuencia de las riadas los serenos advertían a la población de la crecida del nivel del Nervión haciendo sonar unas carracas.

En las inundaciones de 1983, la parte más septentrional de Gipuzkoa fue la menos afectada comparativamente. El Urumea se des-

bordó a su paso por Hernani provocando desprendimientos y cortes de carretera. Además, algunos vehículos aparcados en las zonas más cercanas al río fueron arrastrados. Ereñotzu quedó aislado y en los barrios del Puerto y Karabel el agua generó situaciones de temor e incertidumbre entre los vecinos. En Karabel algunos vecinos temieron el derrumbe de los pisos. A la DYA se unieron miembros del Club Náutico de Donostia y del Grupo de submarinistas Hegatz en tareas de "rescate" por vía fluvial de las personas más necesitadas.

En el Puerto, los vecinos, muy acostumbrados a situaciones similares, se afanaron en tareas de achique y limpieza. Los polígonos industriales también se vieron afectados y en Eziago las instalaciones del periódico EGIN se vieron anegadas y la tirada del sábado 27 de agosto tuvo que hacerse en otras instalaciones cedidas para la ocasión. En Lasarte, que no constituiría municipio propio hasta tres años después, el agua del Oria alcanzó 1,50 de altura en la calle Mayor. Ni que decir que los daños en agricultura, comercio, industria e infraestructuras (red viaria, suministro de agua potable y electricidad, saneamiento, etc.) fueron cuantiosos, aunque afor-

Karabel tras las inundaciones de agosto de 1983.

(Fotografía: Inaxio Sanz)



El río Urumea a su paso por el puente de Karabel a finales de agosto de 1983.

(Fotografía: Inaxio Sanz)



tunadamente no hubo que lamentar pérdida de vidas humanas.


CONTAMINACIÓN

Uno de los efectos de las inundaciones de 1983 fue la fuerte contaminación de plomo, zinc y cobre en el Urumea provocada por el desprendimiento de una masa de residuos de una antigua mina de plomo en el término municipal de Goizuetta. El agua alcanzó concentraciones de zinc ochenta veces mayor que la habitual y quince veces mayor de la permitida para el consumo humano en plomo. Como consecuencia de ello el peligro ecológico fue total, afectando a la vida piscícola, impidiendo la utilización del agua para consumo humano. Tampoco era apta para bañarse ni para el riego de huertas ni para usos industriales en general. La prohibición de baños, por diferentes motivos, se extendió asimismo a las playas.

Pero las inundaciones continúan. En 1988, la famosa "gota fría" volvió a provocar destrucción, afectando especialmente a las cuencas del Deba (Elgoibar) y Urola. Fue una tromba de agua de menor duración pero más intensa que la del 83. Catorce

muertos y 45.000 millones de pérdidas fue el balance.

1992, 1997, 2002 o las más recientes del 2003, con Zubipe y Landare inundados y las instalaciones deportivas inutilizadas temporalmente, son los últimos episodios. ¿Cuándo será el próximo?





PAÍS TROPICAL

Las inundaciones más fuertes en Euskal Herria tienen lugar entre junio y septiembre, periodo de tiempo que va del final de la primavera al del verano. Generalmente tienen su origen en un fenómeno conocido como la gota de aire frío y que consiste en la súbita aparición de una masa de aire polar a baja altura que entra en colisión con el aire cálido y húmedo que exhalan el mar y la tierra recalentados por el sol estival. La frialdad atmosférica (-15°) provoca una rápida condensación del vapor y la formación de gigantescos cumulonimbos (nubes de tormenta) en sentido vertical. Lo curioso es que este fenómeno, característico de la cuenca mediterránea, se produzca en el Cantábrico donde la temperatura de la superficie del mar rara vez supera los veinte grados.

El Centro Meteorológico reconocía hace dos décadas que "se había padecido el agosto más lluvioso, la tromba de agua más intensa, el peligro de sequía más severo, la temperatura más alta, el verano más tormentoso y el julio más húmedo". Hay quien asegura que la costa cantábrica se está transformando lenta-

mente en una zona de tipo subtropical, e incluso, que asistimos a un inquietante fenómeno: el progresivo deslazamiento hacia el norte del desierto sahariano. José Ignacio Usabiaga, director del Centro Meteorológico del Golfo de Bizkaia, afirma que "el área cantábrica se encuentra en una situación de subtropicalidad, debido a que nos encontramos en latitudes más bajas de las masas de vientos que circulan en la zona septentrional, desde el oeste, por lo que, a menudo, se producen situaciones meteorológicas de bloqueo, con cambios bruscos y violentos, en vez de los graduales que se producían anteriormente. Buena prueba de ello es que ha ido desapareciendo el sirimiri clásico y recordado y ha sido substituido por los charrones bruscos".

Ante todo ello solo nos queda aprender a convivir mejor con la naturaleza, poner los medios para hacer frente al riesgo de inundaciones, corrigiendo en primer lugar lo inducido, es decir, la colonización de márgenes, y evitar que en la ordenación del territorio la especulación de la tierra ocupe un lugar predominante.



HERNANIKO BASERRIEN EGOERA, AZPIEGITUREI DAGOKIENEZ

Ainhoa Amundarain Mendizabal

Hernani udalerria Donostialdea eskualdean dago. Eskualde hori eskualde oso urbanoa da, eta presio urbanistiko handia du, azpiegituren eta hirigintzaren hedakuntza dela-eta. Aldi berean, Hernaniko udalerriak nekazaritza ustiapen garrantzitsuak ere baditu.

Epe laburrean Donostialdea eskualdean azpiegitura erraldoien garapena gertatu da (Bigarren Saihesbidea, Urumeako Autobidea, Abiadura Handiko Trena, Iparraldeko Saihesbidea...), eta garapen horrek eragin zuzena izango du profesional moduan dihardutenean nekazari ustiategietan: hiru edo lau urtean desagertu egingo dira, ez bazaie beste leku batean lurra ematen.

Nahiko aurreraturik dago A-8 autobideko Donostiako bigarren saihesbidearen trazatuaren proiektua. Ordaindu beharreko autobidea izango da, eta A-8n hasiko da, Usurbilgo Aritzeta

inguruan. Lasarte-Oria, Donostia, Hernani, Astigarraga eta Erreenteriatik igaro, eta, berriz ere, A-8n amaituko da, Oiartzungo lotunean.

Tartean bi lotune izango ditu: Lasarten bat, N-1 errepidearekin bat egingo duena, eta, Astigarragatik gertu, bestea, eraikitzeak den Urumeako autobidearekin bat egingo duena. Ibilbideak 16 km izango ditu, gutxi gorabehera, eta 2 bideko bi galtzada Aritzetatik Astigarragara bitartean, eta 3 bideko bi galtzada Astigarragatik Oiartzungo lotunera bitartean.

BIGARREN SAIHESBIDEAREN ETA IPARRALDEKO SAIHESBIDEAREN ERAGI- NA HERNANIKO BASERRIETAN

Hernaniren kasuan, Jauregi auzotik hasita, Garmendienea baserriaren gainetik pasatzen da autobidea, eta baseria desagertza ekariko du. Galarreta aldera, Bigarren Saihesbideak Zabalegiko lurak harrapatzen ditu bete-betean; lur horiek artzain batek neguan eta behizain batek udan erabiltzen dituzte, ganadua botatzeko, gainera malda gutxiko lurak izanik mekanizagarriak dira, eta, beraz, makinekin ibiltzeko oso onak. Aldi berean, Zabalegi Nekazal Eskolako lurak izanik, praktikak egiteko erabiltzen dituzte, eta bertan negutegiak, fruitu arbolak, baratzea, etab. dituzte. Horrenbestez, eskolaren etorkizuna bertan bera geldituko lirateke, nekazaritza eskola batek bere ikasketak aurrera eramateko duen funtsezkoena, lurra, kentzen badiote.


Ukituta geldituko den hurrengo zonaldea Antziola auzoa da. Bost baserri dira kalteturik aterako direnak (Balantxa, Larrabide, Buskando, Berakorte eta Estubegi), baina ez bakarrik Bigarren Saihesbidearen eraginaren ondorioz, baita Hernaniko Iparraldeko Saihesbidearen eraginez ere. Bi azpiegitura horiek elkarren parean joango dira, bata goitik eta bestea beheko partetik, eta baserri horietako lur ba-


tzuk bi errepideen artean geratuko dira. Horrek lur horien desegituraketa, orubeen apurtzea etab. ekarriko du Larre behiak dituztenetza arazoa are larriagoa izango da, ezin izango dutelako ganadua bertan eduki, lurak errepidez inguraturik geldituko direlako.

Baserri horien artean larre behiak dituztenak Balantxa, Larrabide eta Buskando dira; besteek baratzea aire librean eta negutegieta dute (Berakortek kasu). Baratzezaintzan dihar-duen baserri horrek (Berakortek) dituen lurak oso onak dira baratzezaintzarako, lurak zeliaik dira, agrologiaren ikuspegitik ere oso lur ona da, eta, gainera, ura bertan dute. Baserritarri lur horiek desjabetzen baditzio-te, oso zaila izango du baldintza berdintsuak dituen lurrik bilatzea. Hori dela-eta, ustiapen honen etorkizuna arriskuan egon daiteke.


Azkenik, Bigarren Saihesbideak harrapatzen dituen beste lur batzuk Arizmendi baserriarenak dira. Larre behiak dituzte, eta lur gehienak larrerako erabiltzen dira. Baserritarak dedikazio osoa du, baina lurak desjabetzen baditzute, ezin izango du ustiapenarekin segitu.

Aipatu ditugun auzoetan azpiegitura horiek egiteak kalte larriak ekarriko dizkie baserritarei, baserriko profesionalak direlako eta, beraien ustiategien oinarria lur hori bera izanik,





(Argazkiak: Hernaniko KRONIKA)



lurrik gabe geratuko liratekeelako beraien jarduerari eusteko.

Agian azpiegitura hauek gizarte justifikazioa badute, eta herriarrek beharrekoak dituzte, kontuan harturik Hernaniko errepideak nahiko saturatuta daudela. Baino Hernaniko nekazariei zalantzak gabe ekarriko dizkienetan ondorio negatiboak (batik bat, nekazari lurren galera; ustiategien suntsitzea eta enplegu galera; desegituraketa, orubeak apurtuko direlako eta sarrera-irteerak apurtuko direlako) onartzeko aukera bakarra dago: azpiegituren xedapenetan gizarteari ekarriko dizkienetan onura orokorrak nekazaritzaren sektoreari eragindako ondorio negatiboek gizarte horri berari sortuko dizkio-

ten kalteak baino gehiago izatea, hain zuzen ere.

Gizarteari azpiegiturek ekarriko dioten onura bakarra errepideen eskaintza handitzea da; azken batean, motordun ibilgailuen mugikortasuna hobetzeko eskariari erantzuna ematea. Bide berriak egiteak berarekin dakar zirkulazioa eta parke mugikorra handitzea, eta bide berriak eskatzen ditu





Antziola auzoaren ikuspegia

horrek berriro. Bainaz ez da ahaztu behar Gipuzkoako lurraldea murritza dela, eta dinamika horrekin epe luzean segitzerik ez dagoe-la, eta, horrenbestez, oreka bilatu behar dela.

1990ean argitaratutako "Hiritar Ingurumena-ren Liburu Berdea" k honako hau dio: "...bide, tunel,... berriak sortzearen ondorioz hazten doan zirkulaziora egokitzeko eraikuntza lanek iraun bitartean zirkulazioa moteldu egiten da, eta kutsadura eta zarata gehiago sortzen da. Azpiegitura egiten bukatu ondoren, zirkulazioa azkar handitzen da berriro, eta errepidea egin aurretiko arazoak agertzen dira..."

Aldi berean, azpiegiturek, nekazaritza sektoreari zuzenean eragindako ondorio negatiboez aparte, paisaian ere badute eragina. Bidezubiek, tunelek eta abarrek izugarrizko eragina dute, eta herritarren aisialdia ere mugatzen dute, paisaia guztiz aldatzen dutela-ko. Gaur egun, paisaia bere horretan man-tentzen dutenak baserritarra dira, nekazaritza eremuko lorenzaintzat har daitezke; baina, azpiegituren ondorioz beraien ustiapenen etor-kizuna kinka larrian jartzen bada, ezin izango dute paisaia orain dagoen bezala mantendu.

Eta gaur egungo gizarteak errepideen beharra izango du, baina baita paisaiarena ere.

Horregatik, ez da kontuan hartu behar baka-rrik nekazaritza ustiategien produkzioak ema-ten duten etekin ekonomikoa; aintzat hartu behar dira, baita ere, paisaia mantentzen lagunten dutela, kalitatezko produktuak ekoizten dituztela eta bertako arrazak man-tentzen dituztela, besteak beste.

DESJABETZEEN ONDORIOZ GALTZEN DIREN LURREN ORDEZ BESTE LUR BAT-ZUK LORTZEKO AUKERAK

Lur eskasia arazo orokorra da Euskal Autono-mia Erkidegoan; hori aitortzen dute Lurralte Antolaketarako Artezkariak (LAA-DOT) eta lurralte antolaketarako beste zenbait tresnak. Nekazaritzako lur eskasia hori Hernaniko uda-lerrian ere gertatzen da, eta horrelako ekime-nek ezinezkoa egiten dute produkzio faktore horren (lurraren) gabezia nolabait saihestea, inguruko eremuetan ez baitago lurrik eroste-ko. Horrenbestez, nekazaritza ustiategi horien biziraupena jokoan egon daiteke horrelako ekimen urbanistikoekin; ez bada beste neurri-rik edo alternatibarik hartzen, behintzat, lur horien ordainetan antzeko ezaugarriak dituz-ten beste lur batzuk lortzea, adibidez.

Lurrak lortzeko hainbat aukera daude:

1. Agroaldeak egitea. Kontzeptu honek zera adierazten du: agroaldea nekazaritzara bide-ratzen den lur zati bat da, aire zabaleko edo negutegiko baratzezaintza edo lorenzantzarako bakarrik erabiltzen dena. Gaur egun nekazari-tzarako lur gutxi egotea eta lur horien duten prezio garestia dira agroalde kontzeptuaren oinarriak.

Agroalde formularen bitartez bilatzen dena da erakunde publiko batek bere lurrak alokairu



Agroaldea eta kogenerazio planta bat

sinboliko baten truke nekazari batzuei edo elkarteko bat uztea, bertan ustiategia eratu eta nekazaritza jarduera egin dezaten.

Aukera hori azpiegituren eraginez bi edo hiru urteren buruan desagertzeko arriskua duten ustiategi profesionaliei irtenbidea emateko era-biltzen da; izan ere, baratzezaintzan eta lore-zaintzan diharduten nekazaritza ustiapen profesionalak babestu eta mantendu egiten dira, bere ustiapenarekin etorkizunean segitzeko aukera emanet, nahiz eta beste leku batean izan.

Azpiegitura hauetan lur mugimendu handiak egiten direnez, eta, ondorioz, betelanak egin behar izaten direnez, betelanak agroaldeak edo baratzeak egiteko aprobetxatzea izan daiteke beste aukera bat. Horretarako, betelaren eta lurren desjabetzearen bidea jorratu beharko litzateke. Desjabetzeen bidez lurrik lortzeko aukera bat badago; baina, horretarako, lur horri eman nahi zaion erabilera erabilgarritasun publiko edo interes sozialeko moduan deklaratuta egon beharko luke.

Aipatutako aukera hori 1999ko azaroaren 6ko BOEn azaltzen da, hain zuzen ere Desjabetze Legearen 54. artikuluan. Bertan esaten da "Desjabetzea sorrarazi zuen obra egiten ez

bada edo bidezko zerbitzua ezartzen ez bada, edota desjabetutako ondasun zati bat sobera geratzen bada edo afekzioa desagertzen bada, jatorrizko jabeak desjabetutako guztia edo sobera geratu dena berreskuratu ahal izango duela."

Baina lege horrek aipatzen du ere kasu batzuetan ez dela izango lehengoratzeko eskubiderik, hau da: ...

2. Desjabetzea sorrarazi zuen xedea desafektatzearekin batera, herriaren eta gizartearen onurako aitortu den beste xede baterako afekzio berri arrazoitua erabakitzenean. Horrek bide bat irekitzen du bide sarearen azpiegiturak ukitzen dituen lursailak etorkizunean agroalde izan daitezen. Baino, horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideen Departamentuarekin koordinatu beharko da prozedura osoa.

Honenbestez, errepide bat pasatzen den lekutik errepide horren interesagatik lurrik desjabetzen diren bezala, agroaldeak jartzeko aukerak dituzten lurrekin berdin egitea izango litzateke irtenbidea. Azpiegituren ondorioz lurrik gabe gelditzen diren nekazariei alternatiba bat eman ahal izango litzaieke horrela.

3. Astigarragako Udala lurak lortzeko jorratzen hasi den aukerak. Astigarragako Udalak gaur egun dauden tresna juridikoei buruzko txosten juridiko bat egin du, agroaldea sortzeko lursailak erosi ahal izateko.

Txosten horretan udal barrutian lurra eskuratu ahal izateko aplikagarriak diren irtenbide juridikoak aztertu dituzte, agroaldeak sortzeko aukera egon dadin. Eta Plan Berezia omen da lurzoru hiritarrezinean esku hartzeko, berori antolatzeko edo babesteko hirigintza tresnarik egokiena.

Bestalde, Astigarragako Udala bereak dituen lur batzuetan agroaldea jartzekotan dabil. Uru-meako Saihesbidearen eraginez lurrik gabe geldituko diren ustiapen batzuk kokatu nahi dituzte bertan. Horren arabera, Astigarragako nekazari profesional bat edo bi (erabilgarri litzaken azaleraren arabera) finkatuko dira agroalde horretan, eta beraien egoera larrirentzako izugarritzko laguntha izango litzateke lursail hori erabili ahal izateak (desjabetzeak direla medio lurrik gabe geratuko baitira). Agroalde hori baratzezaintzara bideratuko litzateke eta bertan aire libreko baratzeak jarriko lirateke.

Hernaniko Udalaz ez da oraindik horrelakorik jorratzen hasi.

LURRALDE ANTOLAKETAKO TRESNEK NEKAZARI LURRAK BABESTEKO BALIAGARRI OTE DIREN ZALANTZAN

Lurralde Antolaketaren ikuspuntutik lurraren arazoari erantzun bat ematekotan, argi dago nekazari eremuak definitzeko eta babesteko lan bikoitzari heldu behar zaiola. "Definizioa", hau da, nekazaritzarako gordeko diren lurak zein izango diren zehaztea edo esatea; lurra, eta ez lurzorua, zer izango den zehaztea. Eta "babesa", hau da, mekanismoak jartzea lurra

lurzoru bihurtuko ez dela bermatzeko, edo, behintzat, bihurketa hori ahal den txikiena iza-tea bermatzeko, sektorearen biziraupena ziuratzearen.

Esan beharra dago lan bikoitz hori aurrera eramateko tresnak badaudela, hain zuzen ere Lurralde Antolaketa. Eta oraindik ere Lurralde Antolaketarako tresna batzuk egiten ari diren arren, kontuan hartu behar da horietan garrantzitsuena eta onartuta dagoena.

Ildo horretatik, LAA edo DOTen aipamenak egin daitezke, bere testuko 8.5.2.a) 5 eta 8.5.2.b) 6 ataletan dioena ikusita:

"... 8.5.2.a) 5. Nekazaritzako lurzoruak euskarri hutsezko funtziotik harantz doazen ezaugarriak ditu. Bere izaera erreproduziezinak, urritasunak eta lehen sektoreko jardueretarako duen garrantziak, EAEn bereziki garrantzitsua den babesia aholkatzen dute. Izan ere, Autonomia Erkidegoan kalitatezko lurzoruak oso urriak dira, eta hiri, industria eta azpiegitura erabilerek egiten duten presio handiak suntsitu egiten ditu; presio hori bereziki trinkoa da eremu oso egokietan, ibarren hondoetan adibidez. Lurzorua antolatzeko lehen urratsa inventarioa egitea izango litzateke. Nekazaritza balioari eta lurrardearen nekazaritzarako egokitasunari buruzko irizpideak kontuan hartuta, babestu beharreko ezaugarri berezietako lurzoruak bilduko lituzke inventario horrek.

8.5.2.b) 6. Lurraldearen Antolamendurako Plan Sektorialek, Lurraldearen Antolamendurako Plan Partzialek eta Udal Plangintzek lurzoruaren nekazaritza ahalmena eta narradiurren ondoriozko hauskortasuna hartuko dituzte obrak eta azpiegiturak ezartzeko irizpidetzat, eta beren balioetan eragina izan ditzaketen garapen hiritar eta ekonomikoko prozesuetatik baztertu behar direnak mugatuko dituzte. Babes hori, beren produktibitatea edonolakoa dela ere, nekazaritza erabileren bideragarrita-



sunerako kontserbatu beharrekoak diren lurretara zabalduko da, lurralte bakoitzeko lan partzialean ezarritako landa garapenerako lerroekin bat datozen irizpideei jarraituz."

1997ko maiatzean "Landaluraren Garapenerako Aktuazio Planaren" gain Gobernuaren Komunikazioari eginiko Ebazpenetan, honako hauek zehazten dira:

1.- "... euskal gizartearen gero eta urriagoa den errekurso honek duen izaera estrategiko kontuan hartuz, espekulazio eta eraso prozedura batean sartuta dagoena etxebizitza eskarietatik, industriatik, errepide eta bestelako azpiegituretatik datozen presioak direla eta..."

2.- Eusko Legebiltzarrak landa-nekazari lurzorua babesteko neurri eraginkorrik hartu eta garatzerako bultzatzen du Eusko Jaurlaritza. Alde horretatik, Lurralte Antolaketarako Artezpideen garapen eta implementazioa, departamentuen arteko koordinazioarekin, Lurralte Plan Partzialen (L.P.P) eta Lurralte Plan Sektorialen (L.P.S) bitartez, nekazari lurraren babes eta defentsara bideratu behar da. Arreta berezia eduki beharko da azpiegitura handien eraginetan".

Aurrerago, honela dio:

"....Eusko Legebiltzarrak, lurrari lotutako nekazaritza politika bat gauzatzen bultzatzen du Eusko Jaurlaritza, baita lur hori babesteko neurri eraginkorrik hartzera ere. Era berean, azpiegituren garapenerako Plan guztiak, balio agrologiko altuko nekazari lurren babesera zuzendu beharko dira".

Arazoa da praktikan zehazten ari den lurralte antolaketa konkretuan ez dela egiten gai horren gainean egin beharko litzatekeena. Argi eta garbi esateko, lurralte antolaketako tresnek (indarrean daudenak eta onartze bidean daudenak) ez dituzte nekazari eremuak definitzen, are gutxiago babesenten. Horregatik, eragile erasokor bihurtzen ari dira horiek ere; arazoak areagotu egiten dute, babes ematen baitiote azpiegiturako proiektu handiei, obrei eta asentamenduei.

Horrenbestez, lehen aipatu diren azpiegiturak egitea ezinbestekoa denez, dauden aukera guztiak baliatu beharko dira ahalik eta kalte gutxien egin dezaten; ustiapan profesionalei irtenbideak eman beharko zaizkie, beraien ustiapena bertan behera utzi behar ez izateko.



Etxolaberry

MINAS DE ETXOLABERRI

Jon Estonba Pérez


(Felix Ugarte Elkartea)

Hernani, y por extensión el Territorio Histórico de Gipuzkoa, tiene una gran tradición de explotaciones mineras. Su particular y variada geología ha permitido la formación de filones de diferentes metales que han sido explotados a lo largo de la historia.


Esta variedad geológica y minera también la encontramos en Hernani. En el solar municipal se pueden encontrar rocas de todos los períodos geológicos desde el Carbonífero (paleozoico) hasta el Cretácico Superior (mesozoico) y

UNIDAD DE SAN SEBASTIAN
DONOSTIA UNITATEA

BLOQUE DE EREÑOZU
EREÑOZU BLOKEA



- DOGGER** { 16 Calizas bioclásicas y calizas con silex
Karri bioklastikoak eta silexdun karriak
- 15 Margas grises, generalmente masivas
Margo grisak, normalean masiboa
- 14 Calizas grises y calizas margosas
Karri grisak eta karri-margatsuak
- 13 Calizas dolomíticas y calizas grises estratificadas
Karri dolomitiko eta karri gris geruzatzuak
- 12 Carniolas
Karriolak
- 11 Rocas volcanoclásticas
Harri bolkanoklastikoa
- 10 Ofitas
Ofitak
- 9 Conglomerados
Konglomeratuak
- 8 Areniscas cuarzo-feldespáticas y limolitas rojas
Hareari koartzo-feldespaticoak eta limolita gorriskak
- 7 Alternancia de areniscas y conglomerados. Areniscas dominantes
Hareari eta konglomeratu txandaketa. Harearrak nagusi
- 6 Conglomerados silíceos
Konglomeratu silizesuak
- 5 Pizarras
Harbelak
- 4 Alternancia de pizarras y grauvacas. Grauvacas dominantes
Harbel eta grauwaken txandaketa. Grauwakak nagusi
- 3 Alternancia de pizarras y grauvacas. Pizarras dominantes
Harbel eta grauwaken txandaketa. Harbelak nagusi



2 Diques de diabasa
Diabasazko dikeak

1 Filón de cuarzo
Koartzozko zaina

una variada litología de pizarras, cuarzo, calizas, areniscas, margas, argilitas etc.

La minería es reflejo de esa riqueza geológica, pudiendo encontrar en Hernani minas de hierro, plomo, zinc, lignito e incluso plata (galena argentífera) que han sido explotadas desde antiguo e incrementando su presencia a partir del siglo XIX.

GEOLOGÍA

Etxolaberri se encuentra situado en el macizo paleozoico de Cinco Villas, unidad geológica que abarca los períodos finales del Paleozoico e iniciales del Mesozoico, y que se extiende por el nordeste de Gipuzkoa, noroeste de Navarra y sur de Lapurdi.

La roca predominante en la zona de Etxolaberri está representada principalmente por pizarras, grauvacas y calizas, con tonalidades grises y negras. Estos materiales han sufrido las

presiones y empujes de dos tectónicas (Herciniana y Alpina), por lo que se encuentran fuertemente plegados, con presencia de fallas, en una de las cuales se ha desarrollado el criadero del mineral que ha sido extraído de las minas.

La génesis de este tipo de yacimiento, al estar asociada a una fractura, inclina a considerarla como de origen hidrotermal, al rellenarse las fracturas producidas en la última fase de la orogenia hercínica.

Desde el punto de vista geomorfológico, la zona minera se encuentra situada en la cabecera de Etxola Erreka (regata de Urruzuno). Esta regata es de desarrollo típicamente fluvial, excavada en terrenos impermeables como pizarras, con fuertes pendientes y valles muy encajados. El desarrollo de su red fluvial es de textura media, y alcanza un nivel 4 de jerarquización (Strahler). Precisamente en la zona de minas hay varias cascadas debido a la existencia de



varias fallas, las mismas que posibilitaron el filón de mineral.

ETXOLABERRI

El valle de Etxolaberri tiene un recorrido limitado, entre la cabecera que se forma al pie del cordal Zaburu-Azketa-Leuneta, con una

cota máxima de 820 m., y la desembocadura en el Urumea a la altura de Urruzuno, a 45 m.s.n.m. En apenas 7 kilómetros se salva un desnivel de casi 800 m. Además, la litología del terreno ha propiciado la formación de un cauce estrecho y abrupto, encajado entre los materiales pizarrosos y calcáreos.

Si las aguas de la regata han modelado un paisaje singular que da un tono personal al enclave, las iniciativas económicas que se han sucedido en el lugar durante los últimos siglos han ido añadiendo elementos característicos, resultando un espacio en el que los valores del medio físico y del medio humano se presentan bien equilibrados. La escala de la consideración es, ciertamente, local, pero se cuenta con testimonios de interés más amplio que, por las vinculaciones asociadas, contribuyen a ampliar la estimación del conjunto.

Se conoce la existencia de minerales férricos y no férricos. Los primeros se entiende que fueron aprovechados en la instalación siderúrgica de Olaberria, situada en un pequeño recodo del río,





aguas abajo del foco principal de la explotación minera. La ferrería se encuentra rodeada de otras bocaminas y se conoce que estuvo en activo entre los siglos XVI-XVII, por lo que sus necesidades se limitarían a los óxidos e hidróxidos de hierro. Los carbonatos, sin embargo, se introdujeron mas adelante, en el siglo XIX, como consecuencia de la implantación de los altos hornos.

La metalurgia del hierro está representada en Gipuzkoa desde el siglo IV antes de Cristo. La producción debió incrementarse en el periodo romano y, en torno al siglo XI conoce un desarrollo intenso de la mano de las haizeolas; entre los siglos XIII-XIX se extiende el dominio de las ferrerías hidráulicas, a las que puede considerarse motores económicos que prepararon el terreno al desarrollo industrial reciente.

En lo que respecta a los minerales no férricos, destaca la galena argentífera de la que

se obtenía principalmente el plomo y, en menor medida, la plata. Atendiendo a la catalogación de dos posibles minas romanas y de un puente de factura romana, que sería el único de estas características en Gipuzkoa, podría pensarse para Etxolaberri en un fenómeno similar al reconocido en Aiako Harria. Este fenómeno supone el beneficio de todos aquellos filones de plata de cierto interés coincidiendo con la colonización romana. Esta hipótesis de trabajo es la que está marcando las investigaciones más recientes, habiéndose completado las primeras campañas de prospección arqueológica en la zona.

Las actividades mineras documentadas se iniciaron a mediados del siglo XIX, intensificándose las labores a principios del siglo XX. Consecuencia de ello es la existencia de importantes ruinas de la infraestructura que utilizaron. Destacan, por sus dimensiones, los silos de carga y la edificación principal, de la





que se conservan parte de las fachadas, muros de contención y soleras. Son de destacar, también, los restos de presas, canales, piscinas de lavado de mineral, edificaciones de alojamiento de mineros y almacenes, así como las redes de canales y explanaciones para el transporte de mineral. En las ruinas del cargadero de mineral, podemos encontrar todavía galena argentífera y otros minerales, como pirita y calcopirita.

CONCLUSIONES

En el bienio 2001-2002, miembros de la Felix Ugarte Elkartea (grupo dedicado al estu-

dio y defensa del medio subterráneo), con la ayuda del centro de estudios e investigaciones histórico-arqueológicas ARKEOLAN y el apoyo económico del Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Hernani, hemos llevado a cabo diferentes trabajos en la zona:

-Inventario y cartografía de las galerías de minas. Se han inventariado 14 minas muy cercanas entre sí. En el análisis de sus galerías podemos encontrar diferentes técnicas de extracción, con reaprovechamiento de galerías, lo que nos indica la existencia de varios períodos de explotación. En algunas de las galerías, ETX-10 y un tramo de ETX-2, además de otra mina cercana al puente de



factura romana localizada hace unos 15 años, la técnica es claramente diferente al resto, asemejándose a labores antiguas. Se han explorado más de 1000 m. de galerías y realizado el plano de las más significativas.

-Reconocimiento de las infraestructuras mineras existentes. Toda la infraestructura (silos de carga, canales, restos de presas, edificaciones etc.) se encuentra en franco deterioro debido a las condiciones ambientales y a la exuberante vegetación. Hemos observado un importante aumento de la ruina en los edificios principales si los comparamos

con las fotografías y observaciones realizadas hace unos 15 años.

-Estudio documental en la Delegación de Minas del Gobierno Vasco. Hay que precisar que los registros de las minas en nuestro territorio se llevan a cabo a partir de mediados del s. XIX. La primera concesión para mineral de plomo data de 1857, para la mina San Antonio, situada en Ececo-Azquia. Posteriormente, los trabajos respecto a la minería de plomo se debieron intensificar, ya que diversos particulares y compañías, como la "Sociedad Vascongada", registraron minas los años 1872 (Mina San Eloy, lugar Mugatz-erreka), 1886 (Mina Dolores, lugar Icaceche), 1887 (Mina San Enrique, lugar entre Sagarretako-erreka y Egurrolako-erreka), 1892 (Mina San Eloy Aumento, lugar Mugatz-erreka), 1905 (Mina Despeñadero, lugar Echolaberry), 1907 (Mina Santa Cruz, lugar Francesen-posso), 1907

(Mina San Jose, lugar Francesen-posso).

Para finalizar, decir que en Etxolaberry se pueden encontrar restos de actividad minera por ejemplo, ruinas de las infraestructuras, que gracias a la inaccesibilidad del lugar no han sido alteradas por posteriores actividades humanas. Podemos encontrar galerías de minas, restos de edificios, presas, canales y explanaciones, en un espacio reducido de gran valor patrimonial (patrimonio industrial) como ejemplo de la actividad minera del siglo XIX. Con este trabajo se ha pretendido dar a conocer parte del patrimonio histórico olvidado de Hernani, y que en otros lugares, con restos menos completos, se están revalorizando como alternativa al ocio cultural.



IN MEMORIAM

El 22 de enero de 2003, fallecía víctima de enfermedad, el espeleólogo Juanxo Esnal Kastresana, miembro de Felix Ugarte Elkartea y de la Unión de Espeleólogos Vascos. Amante de la montaña y sus grutas, colaboró activamente tanto en Etxolaberry como en otros proyectos.

Agur eta Ohore, Lagun.

BIBLIOGRAFIA.

- M.M. URTEAGA ARTIGAS. El puente de Etxola Erreka. Munibe 41 153-160. San Sebastián 1989
- EVE. Ente Vasco de la Energía. Planos geológicos 1:200000; 1:100000; 1:25000



FERI PLAZA - PLAZA DEL MERCADO

ATZO ...

FORU PLAZA - PLAZA DE LOS FUEROS



Hernani - Donostiarako
Tranbiaren errailak Feri
Plazaraino edo Foru
Enparantzaraino iristea
inguruko fisionomia izu-
garri markatu zuen 50
urte baino gehiagotan,
1903 eta 1958. urteak
bitartean.




La llegada de las vías del Tranvía Hernani - San Sebastián hasta la Plaza del Mercado, a la Plaza de los Fueros, marca la fisonomía del espacio durante más de 50 años, los que van entre 1903 y 1958

El 23 de junio de 1957 se inauguró la nueva plaza de los Fueros, tras diversas obras de reforma llevadas a cabo. Esa fisonomía perduró hasta las décadas de los 1980 - 1990, momento en que se realizan los distintos proyectos de urbanización que nos llevan a la actual PLAZA BERRIA



1957ko ekainaren
23an inauguratu zen,
zenbait eraberrikuntza
egin ondoren,
Foru Plaza berria, eta
horrela mantendu zen
1980 - 1990 hamar-
kadetaraino. Orduan
hainbat urbanizazio
proiektu burutu zen
gaurko PLAZA
BERRIA egitaratu
zutenak





... GAUR





Urko Apaolaza Avila

1936ko GERRA HERNANIN

Hernaniko herria ez zen salbuespena izan; bertan ere nabaritu ziren gerraren ondorioak. Tirohotsak, bombardaketak, atxilotuak, erreketak eta hildakoak ugari izan ziren, ugari bezain gogor eta jasangaitz. Gurean, gerrak ez zuen ibilbide luzeik egin, hilabete gutxian guztia erabakita gelditu zen; baina 1936ko uda hura ahaztu ez duen aitona-amonik badago oraindik; hilabete horietan pasatutako beldurra ezin kendurik egon ziren urte askoan. Gaur egun, ordea, gauzak beste modu batera ikusten dira, patxadatsuago, hotzago, eta gertaera horien kontakizun zuzenagoa egin daiteke, horrenbestez.

1936ko Gerra Zibila da XX. mendean izandako gertakizunetatik sakonen ikertu denetakoak; gai honek interes nabarmena sortzen die historialariei, eta interes horren ondorioa da liburutegi eta hemeroteketan aurki dezakegungo bibliografia zabala. Baina Gerra Zibilari buruko ikerketak egiterakoan, funtsezko muga edo oztopo batekin topo egiten dugu gehiendetan: idatzizko dokumentazioa oso urria dela, galtzaileen aldekoa, behintzat; horregatik, orain urte gutxi arte han eta hemen azaldutako dokumentazio idatzian oinarrituriko ikerketak egin badira ere, informazio hori ahozko iturriekin osatzea da gaur egungo metodorik berritzairel eta eraginkorrena¹. Artikulu honetan beraz, bibliografiaz gain, ahozko iturrietatik jasotako informazioa erabiliko dugu.

Gerra Zibilaren aurrekariak.

II. Errepublika

1931ko apirilaren 12an, Berenguer-en gobernu espainiarak hauteskundeak egin zituen; monarkikoak irten ziren irabazle - 18.401 zinegotzi, eta errepublikar eta sozialistek 2.5922 -, baina errepublikar eta sozialisten koalizioak probintzietako ia hiriburu guztietan irabazi zuen; horrek monarkiarentzako erabateko porrota esan nahi zuen, eta, horrenbestez, apirilaren 14an Eibarren errepublika aldarrikatu zenean, Alfontso XIII.a erregeak Espainiatik alde egitea erabaki zuen.

XX. mende hasieran gertatu ziren gizarte aldaketak izan ziren errepublikar eta ezker-tiarren gorakadaren eragile; hain zuzen ere, industrializazio prozesuak eta nazioarteko gertaerek -Errusiako iraultza, Berlingo Komuna...- zerikusi handia izan zuten ideia berri haien indartzean. XX. mendeak aurrera egin ahala, ezkertiarren ideiak gogortuz joan ziren, baina ideia horiek kontra iharduki zituzten tradizionalista eta monarkikoek ere

beraien posturak gogortu zituzten, are gehiago 1931n Errepublika aldarrikatu zelarik.

Euskal Herrian elkarren kontrako bi alderdi horien arteko gorabeherak ere nabarmenak ziren, baina monarkiko eta errepublikazaleen, edo ezkertiar eta eskuindarren, arteko liskarrrei, abertzale eta espainiarren arteko liskarrak ere gehitu behar zaizkie. Abertzetasunak, sozialismoaren antzera, gorantz egin zuen, azken hamarkadetako aldaketa politiko eta sozialek eraginda -foruen galera, immigrazioa...-, eta 1933ko hauteskundeak irabazi zituen, EAJren eskutik.

1936ko otsaileko hauteskundeetan, ezkerreko alderdiek osaturiko koalizio bat sortu zen, "Frente Popular". Koalizio horrek 1933tik gobernuan egondako eskuindarrak garatu zituen -Euskal Herrian berriro ere EAJ irten zen garaile-, eta, hortik aurrera, egoera gero eta jasangaitzagoa bihurtu zen. Batetik, langileek beraien aldarrikapen eta protestak area-gotu zituzten; eta eskuindar espainiarak, bestetik, hauteskunde bidez lortu ezin izan zuten



Botoa emateko Biterin sortu ziren ilarak 1933ko hauteskundeetan .



boterea eta kontrola bide militarretik lortzeko prest agertu ziren. Nafarroa, Araba eta Gipuzkoako zenbait nekazari lurraldetan tradizio karlistak sendo zirauen; Nafarroan, adibidez, erreketeak gerrarako antolatzen ari ziren, armak bildu eta desfileak eginez³. 1936ko udaberrian zerbait bazetorrela sumatzen zuen jende asko zegoen jadanik, baina beste asko ezustean harrapatu zituen gerrak.



Jose Aranbururen hiletaren irudiak.

(Argazkiak: Aranzadi Zientzi Elkartea - Jesus Elosegi Fondoa)

Hernaniri dagokionez, herri industrializatua zenez gero, ezkertiarrek eta errepublikazaleek indar handia izan zuten. 1934ko urrian, Espainia osoan saiakera iraultzaile bat egin zen; Asturiasen jarraipen handia izan zuen, eta Euskal Herrian Nerbioiko Ezkerraldea, Eibar eta Arrasate izan ziren iraultza puntu garrantzitsuenak. Baino guzti horiei jarraituz, Hernanin ere izan zen kalera irten zen iraultzailerik, eta UGTRA afiliaturiko 40 bat gazte atxilotu zituzten tiroketa batzuk zirela-eta⁴. Hernanin ez zegoen tradisionalista eta karlista askorik; bai, ordea, abertzale eta sozialista ugari. Abertzale eta sozialisten artean tentsio nabarmena izaten zen, batez ere hauteskunde garaian eta Elizarekiko jarreran, abertzale-katolikoak beldur baitziren ezkertiarrek elizak erreko ote zituzten, beste leku batzuetan geratu bezala. 1936ko hauteskundeetan, Frente Popularra garaile irten zen Hernanin, baina EAJk, tradisionalisten botoei esker, Udalean jarraitzea lortu zuen. Urte bereko San Jose egunean, komunista batek Jose Aranburu Lasa abertzale gaztea hil zuen, eta hilketa horrek herrian eragin handia izan zuen.

Hilabete batzuk geroago ostera, uztailaren 18an, gerra hasi zen Espainian eta Euskal Herrian.

Gerraren bilakaera Euskal Herrian

Uztailaren 13an anarkista batek Jose Calvo Sotelo eskuindarra hil izana estatu kolpea gertu zegoen seinale izan zen militar askorentzat; horien artean Franco eta Mola jeneralak zeuden. Francok Marokoko goarnizioaren babesia zuen; Molak, berri, Nafarroatik antolatu zuen altxamendua. Beren asmoa zen bote-rea segituan eskuratzea; baina, jakina denez, altxamenduak ez zuen nahi adinako sostengurik izan, eta Espainiako lurralte asko Errepublikaren aldean geratu ziren -horien artean Madril-. Ondorioz, bi alderdien arteko gerra hasi zen, eta hilabeteek aurrera egin ahala gogortuz joan zen. Francok Madrileraino iristea lortu zuen; baina, 1936ko neguan, ezin izan zuen hiri horretan sartu, eta tropa faxistek, Molaren gidaritzapean, "iparraldeko" kanpainari ekin zioten 1937ko udaberrikit aurrera.



Euskal Herriko egoera benetan berezia zen: Nafarroa eta Araba altxatuen esku geratu ziren, eta Gipuzkoa eta Bizkaia, berriz, EAJ duda-mudatan ibili zen arren, Errepublikaren alde jarri ziren, azkenik. Altxatuen lehenengo helburua Gipuzkoa eskuratzea izan zen; horretarako, Donostiako Loiolan zegoen goarnizioaz gain, nafar errekkete zutabe ugari zituzten. Loiolako soldaduak ez ziren garaiz altxatu, ordea, egun batzuen ostean baizik; Donostiaroko ezkertiarrek defentsa sendoa antolatu zuten ordurako, eta goarnizioak errenditu egin behar izan zuen. Donostiako porrota gertatzea zela, Molak makina bat errekkete zutabe bidali zituen Nafarroatik Gipuzkoara bidean. Aiako Harrietañ gipuzkoar miliziek fronte bat osatu eta nafarrak geldiarazi zituzten; baina

Ataundik barrena zetorren beste zutabe batetik igarotzea lortu zuen, eta, Beasain eskuratuta, Oria ibarrean zehar erresistentzia handiegirik gabe jarraitu zuen. Tolosa ere altxatuen mende geratu zen abuztuaren 10erako. Irun irailaren hasieran erori zen, eta Donostia Hernani baino egun bat geroago, irailaren 13an. Fronreak Bizkaia aldera egin zuen; Deba ibaiaren arroan gelditua egin zuen, eta bertan iraun zuen 1937ko udaberrian Molak Bilbo hiria eskuratzeko kanpaina hasi zuen arte⁵.

1936ko uda Hernanin

Beste leku askotan bezala, gerra hasi zela segituan jakin zuten hermaniarrek, egunkari eta irratien bidez, eta ahotik ahora zabaldu zen berria. Donostia Hernanitik hain gertu egonik, han gertatu ziren hasierako borrokaldiek

-Loiolako soldadu eta errepublikaren artekoek- oihartzun handia izan zuten Hernanin ere, eta Loiolako setioan hermaniar ezkertiar ugarik parte hartu zuen -abertzaleek, hasieran, ez zuten parte hartu-. Loiolako kuartela erori artean Hernanin ez zen egunkari eta garraiorik izan, gainera taberna eta denda ugari itxita egon ziren; baina uztail bukaeran gauzak bere onera eterri ziren berriro ere.

Donostiako borrokaldietan ezkertiarren parte hartzea oso handia izan zen, gehienak CNT eta UGTko kideak ziren⁶; abertzaleek, berriz, aurreko urteetan izandako liskarren ondorioz, ezkertiarren ondoan borrokatzeko mesfidantza handia zuten. Loiolako kuartela errenditu eta gero, Donostiako Defentsa Batzordea osatu zen, eta horren gerizpean Defentsa Batzordeak sortu ziren hainbat herritan, Hernanin esaterako. Dirudienez, herrietañ osaturiko Batzordeak ez ziren oso eraginkorrik, presaka antolatu baitzitzuten. Hernanin ere horrelako zerbait gertatu zen: antolamendu eskaseko "komisariotzak" osatu ziren, eta armak ahal zuten lekuetatik

lortzen zituzten, Guardia Zibilari kenduz edo eskopeta zaharrak erabiliz.

Dena den, herri inguruan guardiak antolatu ziren, Tellerigainen eta San Joan elizaren kanpandorrean. Ezkertiarrek fusilak eskutan zituztela guardiak egiten ziharduten, eta, abertzaleek, berriz, eskuindar jendea babesteko ardura hartu zuten. Hernanin ideia karlistak zituzten zenbait pertsona ezagun atxilotu zituzten, horien artean Pablo Morencos, ehun lantegi baten jabea. Morencosek, atxilotzera joan zitzaizkionean, eskopeta batekin tiro eginez erantzun zien Fronte Popularreko kideei, baina azkenean atxilotu egin zuten⁷. Atxiloturiko guztiak, Udaletxeko arkupe txikian zegoen presondegian eduki zituzten lehenik; gero, Santa Barbara Elkartearen atzealdean dagoen Birebendarren etxera eraman zituzten; eta, azkenik, Agustindarren Komentura, bertan baitzeukaten EAJko kideek beraien kuartela ezarrita. Azkenean, Francoren tropak sartzearekin batera, Azpeitiraino eraman zituzten, baina han libre utzi zituzten⁸. Abertzaleek, eskuindarren etxeak ez ezik, komentu eta elizak ere babestu zituzten, ezkertiarrek haien kontra ezer egin ez zezaten.

1936ko abuztuak aurrera egin ahala frontea gero eta gertuago ikusten zen. Esan bezala, abuztuaren 10ean frontea Tolosan zen; herri hori eskratu ondoren, hurrengo helburua Andoaingo herria izan zuten Francoren tropek, eta abuztuaren 16rako Andoaingo tiro eta kanoikaden hot-sak entzuten ziren Hernanitik. Urduritasuna gero eta nabariagoa zen, batez ere Andoain faxisten esku erori eta Buruntzako borrokaldia hasi zelarik. Onddi mendiaren inguruan ere gertatu zen errekketeen erasorik, baina Hernanitik joandako 60 bat errepublikarrek errekkete taldea geldiarazi zuten. Andoainen

atzetik defentsa lerro sendo bat osatu zuten errepublikaren aldekoek: Belkoain, Buruntza, Santa Barbara eta Santiagomendiren gainetan bateriak jarri eta lubakiak egin zituzten. Santa Barbaran, Loiolako kuarteletatik lapurturiko zenbait bateria ipini zituzten, eta Asturias aldetik etorritako meatzari miliziar talde bat Andoainen zegoen zutabe frankista bertatik bonbardatu nahirik zebilen, etsaiak Buruntzako gainetik eraso ez zean. Dena den, Buruntzan gotorturik zeuden soldaduek handik egun batzuetara bertatik alde egin behar izan zuten, eta mendi hori altzatuen esku geratu zen abuztuaren bukaeran⁹.

Andoain frankisten menpe geratu eta Hernani erori arte, bi herri horiek zenbait bonbardaketa jasan behar izan zituzten, batez ere Santa Barbarako bateriei kontra egiteko etorri ziren Savoia 81 hegazkinenak. Bonba batzuek Hernaniko kaskoa jo zuten bete-betean: Kardaberaz kaleko Prontxonia zeritzon etxearen -Plaza Nagusitik gertu- pertsona bat hil zen; Ezkiaga pasealekuaren ere bonba batek jo eta bertako ezki ugari hondatu zituen; gainera, Goiz Eguzkiko Gingo Biloba zuhaitz handia ere kaltetu zuen bonba batek -gero porlanaren bitartez sendatu zuten-. EAJk Agustindarren komen-

Errepublikar talde bat Santa Barbaran



tuan ikurrin handi bat jarri zuen; bonbak botatzen zituzten hegazkinen helburu bihurtu zen horrela, eta bonba pare batek inguru horretan jo zuten¹⁰.

Hasieran, herritarak ez ziren ohartu obus eta bonbek egin zezaketen kalteaz, baina, lehenengo bonben txikizioak ikusirik, gotorlekuak eraikitzeari ekin zioten, etxe sendo eta berrienen sotoetan edo lur azpiko tuneletan -Lizeaga auzoan, adibidez-. Hegazkinak hurbiltzen zirenean, lantegietako sirenak jotzen zituzten herritarak ohartarazteko; gainera, kanpandorrean guardia egiten aritzen ziren boluntarioek ere kanpaiak jotzen zituzten, jendea babeslekuetara joan zedin.

Burutzaldean bombardaketa eta borroka gogorrak gertatzen ari ziren bitartean, Bidasoa aldean errekkete nafarrak Irun menderatzeko ahaleginetan zebiltzan, jendeak mugaz bestaldera ihes egin ez zezan. Irun gogor zigortu zuten borrokaldi haietan, bombardaketa ugari jasan eta gero, ustez, anarkista talde batek bertako gune historikoari su eman baitzion. Irun errekketeen esku erortzear zela jakin zenean, herniar askok ihes egitea erabaki zuten: batzuk Pasaiako edo Donostiako portuetara joan ziren, Frantzia edo Bilbora eramango zituen itsasontziren baten bila; beste batzuk Bizkairako bidea hartu zuten; eta izan zen Irungo muga zeharkatzen saiatu zenik ere.

1936ko irailean nahasmena erabatekoa zen Hernanin; errepublikarrek Santa Barbaran gotorlekua antolatzeaz gain, mendi horren magalean zenbait lubaki ipini zituzten herria defendatzeko, trenbideko habeak erabiliz. Buruntza frankisten esku gelditu eta gero, egun batzuetan geldialdia egon zen; baina 700 gizonez osaturiko zenbait galiziarr konpaina falangista iritsi ziren, eta erasoak berriro hasi ziren. Irailaren 11 eta 12an, borrokaldi gogorren ondoren, Hernaniko inguru guztiak frankisten esku geratu ziren, Santa Barbara

izan ezik¹¹. Egun horietan, ezkertiarrek herriko zenbait eskuindarren etxeak erre zituzten, baita Don Juan Maria Larrea apaizarena ere - Ispizua kalean-; badirudi, norbaitek San Joan parrokiari su eman nahi izan ziola mezan zegoenean, baina sua itzaltea lortu zuten. Gerra Zibilean oso ohikoak izan ziren horrelako jokabideak: herria etsaiaren eskuetan erortzear zela gehiegikeria asko egiten ziren. Tolosan esaterako, atxiloturik zeuden zenbait eskuindar preso hil zituzten. Hernanin ere izan zen hilketarik: irailaren 8an, ezezagun batzuek epaitegiko idazkaria eta bere emaztea hil zituzten¹². Baina esan beharra dago kasu horiek guztiak salbuespenak izan zirela eta orokorrean ordenari eustea lortu zela.

Altxatuak herrian: errepresioa, gosea...

Irailaren 12ko arratsean, azkeneko bombardaketaren ondoren, galiziarr falangistak Urnieta bidetik sartu ziren Hernanira, eta errekkete nafarrak, berriz, Portura ailegatu ziren Onddi menditik. Hernani eta Orereta etsaiaren esku zeudela, Santa Barbaran zeuden errepublikarrek bertako gotorlekua abandonatu zuten egun bat geroago, irailaren 13an, Donostia frankisten menpe erori zen egun berean. Faxistak herrira iritsi bezain laster, errepresioa eta gehiegikeriak nabarmenak izan ziren: irailaren erdialdetik hasi eta azaroa bitarte, 200 pertsona baino gehiago fusilatu zituzten, bai Galarreta inguruan eta baita hilerri ondoan ere. Gehienbat Ondarretako kartzelan preso zituzten errepublikarrak izan ziren; Hernaniraino isilpean ekarri eta gauean tiroz hiltzen zituzten, inolako epaiketarik egin gabe. Fusilatutiko pertsona guzti horien artean baziren herniar batzuk, hogeい bat zehazki¹³.

Baina fusilatzeetan gain, bestelako zigorrak ere jasan behar izan zituzten herritarrek, batez ere emakumeek. Hilea moztu edo errizino-olioa edanarazi eta gero, kale-buelta egitera



Hernaniko hilerrian fusilaturiko pertsonen oroigarri moduan dauden bi monumentuak



behartzen zituzten, beraien senarrak edo senideak ihes eginda zeudelako, errepublikaren alde gerra egitera edo erbestera. Udal era-kunde guztiak eskuindar frankisten esku geratu ziren, umeei dotrina frankista erakusten hasi zitzaizkien eskolan eta eguneroko bizitza espainiartasunaren eta katolikotasunaren inguruan egitera behartu zituzten herritarrok, Francoren irudiak leku publikoetan ipiniz, himno falangistak entzunaraziz eta egun berezietan desfileak eginez. Egoera horrek Bilbo erori arte iraun zuen batez ere, 1937ko uda arte, baina hurrengo urteetan frankistek erre-gimen gogorra ezarri zuten¹⁴.

Gerraren ondorio garbietako bat janari falta izan zen. Banaketa-liburuxken bidez janariaren kontrola eduki nahi zen, baina estraperloan ibili beharra zegoen, banaketa-liburuxketan tokatzen zena oso gutxi baitzen; Hernanin, batez ere Goizueta inguruko ogia zen estra-perloan ekartzen zena, baina baita mugaz haraindiko elikagai eta materialak ere -Florentino Goikoetxea benetan abila izan zen lantegi horretan-. Falangeak, "Gizarte Zerbitzu"aren ardura zuenez, jangela ezarri zuen Kale Nagusian, Oraienea etxearen pareko eraikinean, eta hara joaten ziren janari beharrez zeuden haurrak. Neurri horrez gain, ohikoak izan ziren "plater bakarraren eguna", "postrerik gabeko eguna" eta antzeko neurriak; horien bidez bere soldaduentzat¹⁵ jakia lortu nahi omen zituen erregimen frankistak.

Hernaniarrak gerran eta erbestean

Hernniko ingurueta borrokaldiak irailean bukatu baziren ere, Euskal Herrian oraindik asko iraun zuten, Bilbo 1937an erori baitzen. Donostia erori eta segituan fronteak mende-balderantz egin zuen, baina Bizkaiko mugetan finkatu zen. Dena den, Donostia erori baino lehenago, ezkerreko taldeek eta abertzaleek batailoia osatu zituzten, lehenengoek Eiba-

rren eta bigarrenek Azpeitian. Ez ziren gutxi izan batailoi horietan izena eman zuten hernaniarrak, zerrenda luzea litzateke artikulu hone-tan ipintzeko, baina "Hernniko miliziak", JSren miliziak, Euzko Gaztedi, "Herri miliziak", edo "Dragones" taldeetan sartu ziren, besteak beste; hain zuen, azken batailoi horren erdia hernaniarrek osatzen zuten, eta Bilboko defentsan sutsuki parte hartu zuten. Baina hil-dako asko ere izan zen; guztira, bostehun hernaniar baino gehiagok hartu zuten parte erre-publikaren aldeko gerran, soldadu gisara¹⁶. Gainera, izan zen tropa frankistak sartu eta erreketeen zutabeetan edo falangistekin bate-ra joan zenik, batzuk boluntario -oso gutxi-, beste batzuk beharturik¹⁷.

Uda osoan zehar ihes egin zuen jendeak herritik, batez ere gerra hotsak hurbilduz zihoz-zen heinean; Frantzia, Bizkaia eta Amerika izan ziren erbestearatuen helmuga. Erreketeek Nafarroan egin zituzten basakeriak zirela-eta alde egin zuten nagusiki, beldurraren beldur-rrez. Aste gutxiren buruan herrian oso jende gutxi gelditu zen; biztanle kopurua erdiraino jaitsi zen, gutxi gorabehera. Gerrak Bizkaia alderantz egin zuanean, hilabeteak pasa ahala, jendea itzultzen hasi zen eta orduan ohartu ziren haietako asko etxeak konfiskatu-rik zituztela; izan ere herri osoan konfiskazio eta lapurreta asko egin zituzten frankistek - baita Fronte Popularrekoek ere, lehenago-, eta etxea libratzeko hainbesteko bat ordaindu behar izaten zuten jabeek. Beste kasu askotan konfiskazioak betiko izan ziren; Guardia Zibilak Kardaberaz kalean zuen kuartela esa-terako, ihes egindako hernaniar batena zen, eraikin egin berria, gainera¹⁸.

Gerra bukatzean, preso geratu ziren gudari edo miliziar hernaniarrek kartzelan edo langile batailoietan bukatu zuten; beste batzuek, berriz, heriotza aurkitu zuten bidean. Erregimen frankistak, preso bakoitzari buruzko txosten zehaztuak eskatzen zituen herri

bakoitzean eta txosten horien arabera era-bakitzent zuten zer zigor ipini. Hernaniko agirtegian ehunka txosten daude, ez bakarrik miliziar edo soldaduenak, baita herrian geratu ziren emakume eta haurrenak ere¹⁹. Urte askoan kanpoan egon eta Hernanira itzultzen zirenak lanik gabe aurkitzen ziren asko eta asko, betiko lantegian ez zieten lanik eman nahi-eta.

Gerra gogorra izan zen, baina gerra ostea ez zen hobea izan: lehenago errepublikar izandako asko alderdiz aldatu eta frankista bihurtu ziren; salaketak eta isilmandatuak behin eta berriz egiten ziren; eta mesfidantza nagusitu zen herritarrengan. Eguneroko bizitza, etxetik kanpora baino, etxe barrura bildu zen orduan, eta urte dezente behar izan ziren Hernanik gerra aurreko bizitasuna berreskuratzeko.

1. Azken urteetan ahozko iturria erabil duten lan ugari argitaratu dira, bai Espanian eta baita Euskal Herrian ere: FRA-SER, Ronald: "Recuérdalo tu y recuérdalo a otros: historia oral de la guerra civil española". Grijalbo Mondanoni. Bartzelona, 1997. BULLON DE MENDOZA, Alfonso; DIEGO, Alvaro de: "Historias orales de la guerra civil". Ariel. Bartzelona, 2002. UGARTE, Javier: "La nueva Covadonga insurgente". Biblioteca Nueva. Madril, 1998, 158-160 orr.
2. FUSI, Juan Pablo; PALAFOX, Jordi: "España: 1808-1996. El desafío de la modernidad". Espasa. Madril, 1997, 253 orr.
3. UGARTE, Javier: "La nueva Covadonga insurgente". Biblioteca Nueva. Madril, 1998, 158-160 orr.
4. BARRUSO, Pedro: "El Movimiento obrero en Guipúzcoa durante la II República". Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1966, 343 orr. Ikusi ere: "Octubre de 34 en Euskadi". Ipes Cuadernos de Formación, 5 zbk., 1984, 55-59 orr.
5. BARRUSO, Pedro: "Verano y revolución. La guerra civil en Guipúzcoa (Julio-Setiembre de 1936)". Haranburu arg. 1996.
